

Kultura 07



KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Kultura 07

Kultura 07

KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2007

kulturaren
euskal
kontseilua
consejo
vasco
de cultura

Argitaraldia: 1.a 2007ko azaroa

Ale-kopurua: 2.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimatzea: Michelena Artes Gráficas S.L.

ISSN: 1888-2285

Lege-gordailua: VI-528/07

AURKIBIDEA

Aurkezpena	7
Hitzaurrea	10
I. Kultura-behatokiak munduan	15
1. Kulturaren behaketa munduan: begirada historikoa	16
2. Kultura-behatokiak: errealitate konplexuaren hurbilketa	25
3. Behatokiak kultura-politikek ezarritako erronken aurrean	29
Kasu baten azterketa sakona: Quebec-eko kulturaren eta komunikazioen behatokia martxan jartzearen ondorioak	42
II. Kulturaren Euskal Behatokia	46
1. Kulturaren Euskal Plana eragile gisa	47
2. Azterketa sektorialak: behaketaren lehen fasea	51
3. Kulturari buruzko informazio-sistemaren egoera eta erronkak	53
3.1. Ondarea	53
3.1.1. Liburutegiak	54
3.1.2. Museoak	55
3.1.3. Artxiboak	55
3.1.4. Ondare-ondasunen Erregistroa eta Inbentarioa	56
3.2. Adierazpen artistikoa	63
3.2.1. Arte eszenikoak eta musikalak	63
3.2.2. Ikusizko arteak	65
3.3. Kultura-industriak	71
3.3.1. Argitalpen-industria	72
3.3.2. Industria fonografikoa	73
3.3.3. Ikus-entzunezko industria	74
3.3.4. Artisautza-industriak	74
3.4. Komunikabideak	82

3.5. Zeharkako elementuak	86
4. Euskal kulturaren esparru estatistikorantz	96
4.1. Behaketa-eremua: ikuspegiak eta perspektibak	96
4.1.1. Eredu propioa: kontzeptuak eta definizioak	99
4.2. Adierazleak eta informazio-iturriak: lan-prozesu irekia	107
4.3. Sistemaren kudeaketa teknologikoa	109
5. Etorkizuna behatokitik: programa estatistiko baten dinamizazioa	110
1. Eranskina: kultura-behatokien katalogoa	114
2. Eranskina: sektore-hurbilketen katalogoa	122

FITXEN AURKIBIDEA

LIBURUTEGI PUBLIKOAK	58
Karakterizazio orokorra	58
Azpiegiturak, funtsak eta eskuragarritasuna	58
Zerbitzuak	59
Enplegua	59
Erabiltzaileak	60
Diru-sarrerak eta gastuak	60
MUSEOAK ETA BILDUMA MUSEOGRAFIKOAK	61
Karakterizazio orokorra	61
Azpiegiturak, funtsak eta eskuragarritasuna	61
Zerbitzuak, ekipamenduak eta jarduerak	61
Enplegua	62
Bisitariak	62
Diru-sarrerak eta gastuak	62
ARTE ESZENIKOAK	67
Karakterizazio orokorra	67
Ekintza	67
Ikusleak	67

Bildutako diru-kopurua	68
MUSIKA	69
Karakterizazio orokorra.....	69
Ekintza	69
Ikusleak	70
Bildutako diru-kopurua	70
ARGITALPEN-INDUSTRIA	76
Enpresa-karakterizazioa	76
Enplegua	76
Fakturazioa	76
Jarduerak	77
Irakurleak	77
IKUS-ENTZUNEZKOEN INDUSTRIA.....	78
Karakterizazio orokorra.....	78
Jarduerak	78
Kontsumoa-ikusleak	79
Bildutako diru-kopurua	79
ARTISAUTZA-INDUSTRIA	80
Enpresa-karakterizazioa	80
Enplegua	80
Jarduera.....	80
Artisauaren edo artisautza-enpresetako titularren profila	80
Trebakuntza	81
KOMUNIKABIDEAK	84
Karakterizazio orokorra.....	84
Jarduera	84
Ikus-entzuleen ezaugarriak.....	84
GASTU PUBLIKOA KULTURAN	88
Administrazio autonomikoa	88
Tokiko administrazioa	89

EUSKARAREN PRESENTZIA KULTURAN	90
Liburutegi publikoak	90
Arte eszenikoak	90
Kultura digitala	90
Argitalpen-industria	90
Praktika kulturalak	91
KULTURA DIGITALA	92
IKT ekipamendua	92
Interneteko erabiltzailearen profila	92
KULTURA-GASTUA ETA -PRAKTIKAK	94
Ondasun eta zerbitzu kulturaletan gastatutakoa	94
Jarduera kulturaletan izandako parte-hartzea	94
Kontsumoa euskaraz	95

Kulturaren Euskal Behatokia dagoeneko abian da. Kulturaren Euskal Plana –2004-2015erako euskal kulturaren plan estrategi-koa– egiteko prozesuan sortu zen, eta Kulturaren Euskal Kontseilua eta haren Erakunde arteko Batzorde Iraunkorra izan zituen buru. Han, “EAEko kulturaren egoerari eta eboluzioari buruzko informazio- eta segimendu-sistema bat ezartzeko eta plan estrategiko sektorialak eta egoerari buruzko azterketak egiteko beharra” nabarmendu zen. Hiru foru aldundiek, hiriburuek eta Eudelek elkarlanean burutu eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak bideratu duen lanari esker amaitu da proiektua aurreikusitako epe-etan, eta lehen tasuna eta hornidura esanguratsua lortu ditu.

EAE n hasi dugun behatokiaren proiektua gauzatzeko, hausnarketa sakona egin behar izan da, alderdi hauei dagokienez: leku kontzeptuala, funtzioak, haren orientazioa eragile eta gizartearekiko, eta helburuak zehaztea. Edonola ere, berrikuntza, ezagutza sortzea, kalitatea eta erabilgarritasunaren aldeko apustu irmoagoa egin dugu, informazio-kantitatearen aldekoa baino.

Behatokiaren rol orokorra da gizarte, eragile eta administrazioarentzat askotariko alderdiak dituen ispilua izatea, baina baita kanporako ere, bereziki beste zenbait behatokiarekin lankidetzan aritzeko. Informazio estatistikoa biltzeko eta sistematizatzeko tresnatzat bakarrik ez, kulturaren azterketa orokorra eta sektorekako ikerketak egiteko tresnatzat ere hartu dugu. Azken alderdi horretan, nabarmentzekoa da euskararen sorkuntzari eta erabilerari buruz egin beharreko segimendua, funtsezko rola baitu euskal kulturari.

Hala ere, guretzat Behatokia ez da gailu tekniko hutsa, kultura-proiektu askoz zabalagoa baizik. Tresna horretan, informazio-sistema eragile aktiboa, parte-hartzailea eta islatzailea da, eta aztertu beharreko errealitatean bertan inplikaturik dago.

Hainbat funtziotan lagunduko du Behatokiak:

- gure kulturaren espezifikotasuna askotariko mundu globalean nabarmentzea eta bere profiletatik abiatuta horretan laguntzea;

- bere aberastasun, eraikuntza eta etengabeko eguneratzearen aldeko apustua egitea, gure sortzaile, enpresa, eragile eta kultura-maileguen laguntzaz;
- kultura-hedapena eta -gizarteratzea indartzea, barneko integrazio-prozesuak eta kanpoko elkarrizketak aukera-berdintasunean bultzatuz;
- informazio kuantitatibo eta kualitatiboaren bidez gizarte-bizitzako kulturaren zentralitatea prestatzea, baita kultura-politikaren zentralitatea ere, politika publikoetan;
- parte-hartzea erraztea, bai gauzatzean, bai erabiltzean;
- eta beste zenbait kultura eta behatokiaren sareko elkarrizketetan laguntza ematea.

Funtzio generiko horiek guztiak ez dira gure asmakuntza; nazioarteko erakundeen printzipio berrien egokitzapenak dira, eta, batez ere, Unescok aniztasuna, identitatea, irismena edota parte-hartzeari buruz eman dituen printzipioenak.

Alabaina, Behatokiaren zeregin espezifikokoak dira kultura-alorreko informazioa ordenatzea, baliozkotzea eta sortzea, eta zentzurik zabalenean kulturari lotutako sektoreko eta lurraldeko alderdi orokorrak aztertzea; hain zuzen ere, funtzio hauek ditu:

- euskal administrazioen arteko informazio-zerbitzu koordinatua ematea;
- azterketa espezifikokoak egiten dituen kabinetearen rola izatea;
- planaren segimendu- eta ebaluazio-tresna izatea;
- eta euskal kulturaren egoerari eta aldaketei buruzko eztabaidarako tresna izatea, alderdi guztiei dagokienez.

Ezagutza integrala izateko bokazioa duenez, kulturaren arlo tradizional guztiak barne hartzen ditu Behatokiak: ondarea eta kultura-industrietan haiek dituzten erabilerak, komunikabideak eta adierazpen artistikoak. Taxonomia zorrotza, erabilgarria eta parekagarria sakondu dela esan nahi du horrek. Era berean, ordea, komunikazio globalek sortutako zeharkako adierazpen osagarri eta berriei zabaltzen zaie.

Sorkuntza-iturriez gain, ordea, ekoizteko edo kulturari balioa emateko faseetan gertatzen dena jakin behar da, trebakuntzatik hasi eta azken helmugaraino, eta, nola ez, jarrera eta ohitura kulturalak ezagutu, gizartean duten harrera balioesteko eta etengabe eta bat-batean gertatzen diren aldaketa sozialak aintzat hartzeko.

Zeharkako arlo gisa, garrantzi berezia ematen diogu euskararen rolari, portaerari eta erabilerari, begien bistako arrazoiak direla eta, hizkuntza propioa delako kultura-ekoizpenean eta -jardueran.

Hausnarketa horiez guztiez baliatuz, ezagutzari eta konparazioari egokitutako oinarrizko adierazleak dituen Kultura Esparru Estatistiko propio baterako bideari ekin diogu, baita hura sortzeko eta hedatzeko bideari ere.

Emitza gisa, hiru eremu hauek biltzen ditu Programa Estatistikoak:

- a) eskaintza produktiboa eta jardueretan parte hartzen duten eragileak; gai batzuetan, urteko segimendua egiteko eta, beste gai batzuetan, berriz, segimendu sekuentzialagoa egiteko;
- b) Jarrera, kontsumo, ohitura eta jardueretan eskaera, eta zenbait urtetik behin Kontsumo kulturalaren ohituren eta jarduera kulturalen estatistika egitea;
- c) Arlo publiko-instituzional arautzaileak, trebakuntzakoak barne, eta egitura korporatibo pribatuak

Lehen emitza publikoak agertzen hasi dira Behatokiko lan-ildoen eta horiek martxan jartzearen ondorioz. Hona hemen, adibide gisa, *Kultura 07* urteko lehen txostena. Bi funtzio hauek ditu: batetik, azterketa monografikoa egitea, edizio honetan, munduko kultura-behatokiei buruzkoa izango da. Bestetik, testuinguru informatiboa eta Euskal Estatistika Esparrua egiteko prozesua aurkeztea.

Miren Azkarate

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua

BEHATOKIAK: KULTURA-ERREALITATEARI BEGIRADA BAT

Behatokiak kultura-errealitatea, sektoreen egoera eta kultura-politikek beregan duten eragina aztertzeko helburuarekin sortutako kultura-tresnak dira. Guztiek partekatzen dituzte ezaugarri batzuk, nahiz eredu eta garapen desberdinak egon, abiapuntu bera baitute: behatzeko funtzioa. Funtzio hori da hurrengo paragrafoetan aztertuko dena, eta hortaz, behatoki guztientzat balio dezakeen hausnarketa. Horrela, behatokia era generikoan definituta, bere funtzioari lotutako galdera-sorta agertzen da: Behatzaile neutroa da? Zein eragin du behatzeko hartzen den perspektibak behaketaren emaitzan? Zein dira behatzen denaren mugak? Zein dira behatu daitekeenarenak? Zein da behaketa horren azken helburua? Galdera horiek guztiak ez dira erantzun bakarrekoak izango, baina gaiaren inguruko hausnarketa mahai gainean jartzeko helburuarekin erantzun posibleak ekar daitezke, soluzio bakarrak jartzeko borondaterik gabe.

Lehenik, behatokiaren neutraltasunari dagokionean, hausnarketa gizakiaren begia konparazio gisa hartuz egin daiteke. Bistan da, gizakiok ikusteko gaitasuna dugu, ikusmena dugu. Fakultate horri esker dugu inguratzen gaituen errealitate fisikoaren pertzepzioa. Baina, jakina denez, gizaki bakoitzak gauza beraren pertzepzio desberdinak ditugu: errealitateagan begirada jakin bat jartzen dugu, begirada pertsonala, gure ikuspegia. Hau da, ikusteko gaitasuna dugu, baina behatzen dugunean begiratu egiten dugu, aditasunez begiratu. Konparazioarekin jarraituz, behatokiak errealitatea ikustea ahalbidetzen diguten tresnak lirateke –begia–, baina, kasu horretan ere, esan daiteke ikusten den hori –kultura-errealitatea– begirada jakin batek ikusia dela: behatokiak errealitatea aztertzeko, interpretatzeko eta ezagutzeko aplikatzen duenetik.

Izan ere, behatokiaren posizioa ez da posizio neutroa; behatzen duen kultura-errealitatea begirada jakin batekin begiratzen du. Begirada hori da begiratzeko gaitasuna behatzailearen posiziotik bereizten duena. Hortaz, kultura-errealitatea behatzea ezin da neutroa izan.

**Behatzaile neutroa da?
Zein eragin du
behatzeko hartzen den
perspektibak
behaketaren emaitzan?
Zein dira behatzen
denaren mugak? Zein
dira behatu
daitekeenarenak? Zein
da behaketa horren
azken helburua?**

Argudio horri jarraiki, eta egindako bigarren galderari erantzunez, hein handi batean, behaketa begiradaren araberakoa da. Esparru kontzeptual bat, begirada analitiko bat, definitzea, edozein behatokiaren lanaren abiapuntua izan beharko litzateke. Hau da, hausnarketa bat egitea jakiteko kultura-errealitatearen zein alderdiri buruzko informazioa lortzea interesatzen den eta zein lirakteen informazio hori eskuratzeko tresna eta teknika egokienak. Zentzu horretan, behatokiaren funtzioa ez da soilik eta besterik gabe kulturaren alderdi desberdinei buruzko informazio estatistikoa biltzea –konparazioarekin jarraituz, ikustea litzateke hori–, baizik informazio baliagarria eskuratzeko eta aztertzea, kulturako sektoreei eta kulturari dagozkion estrategia politikoak definitzen dituzten arduradunei norabideetan ekarpenak egiteko helburuarekin. Eta, horretarako, ezinbestekoa da behatokiak kultura-politikaren strategiaren muinean kokatzea, estrategia horren garapenari eta eraginari dagokion jakintza sortzeko tresna izatea. Horrenbestez, estrategia horrekin bat datorren errealitatearenganako begirada definitu behar da.

Aztartzeko begirada edo ikuspegia argitzeak behaketaren helburuak argi zehaztuko ditu, eta azken horiek estrategia politikoa eta sektorekako informazio-beharrak islatu behar dituzte. Behatokia bezalako tresna bat eraikitzeke baliabideak bideratzen badira, baliabide horien emaitza produktu jakin bat izan beharko da. Produktu hori baliagarria izango da politikak hobetzeko azterketa orientatzaileak eta ebaluatzaileak sortzeko, baita sektoreak garatzeko tresna gisa erabiltzeko ere.

Kultura-errealitatea behatzeko abiapuntuaren beharraren ideari eutsita, bere mugei buruzko eztabaida sortzen da, hau da, zein errealitateetan zabaldu behar dugun azterketarako sarea –egindako hirugarren galdera. Horrela, galdera kontzeptualak begirada analitikoari bezain lotua egon behar du, kultura kontsideratzen denaren, behatu behar den errealitatearen, mugak definitzei. Argi eta garbi, kultura-behatoki baten aurre egin beharreko eztabaida nagusietako bat da behatzen duenaren mugak non jartzen dituen.

Behatoki desberdinek egindako lanaren esperientziak erakusten digu mugei inguruan oraindik ere ez dagoela nahikoa kontsentsu. Horrek ez du esan nahi behatokiaren esku dagoen informazioan enbor bateratu

Behatokiaren funtzioa ez da soilik eta besterik gabe kulturaren alderdi desberdinei buruzko informazio estatistikoa biltzea, baizik informazio baliagarria eskuratzeko eta aztertzea, kulturako sektoreei eta kulturari dagozkion estrategia politikoak definitzen dituzten arduradunei norabideetan ekarpenak egiteko helburuarekin

bat ez dagoenik. Baina enbor horretatik haratago, egia da, jarduera desberdinak kontabilizatzeko dibergentziak daudela, jardueri kultura-ezaugarria erlazionatu edo ez. Kulturaren izaera hedakorra da, gero eta giza jarduera gehiagorekin erlazionatzen delako kultural kalifikazioa, eta horrek eztabaida hori bizitu egiten du, irekita eta oraindik ixteko urrun dauden fronte desberdin askorekin.

Beste gai bat da, mugekin loturarik ez duena, behatokiak kultura-errealitatearen begirada osoa egiteko dituzten ezintasunak. Hau da, errealitatea nola egiten den behagarri. Behatzen den errealitateari buruzko behar beste datu eskura edukitzeko helburuak talka egiten du informazio hori guztia lortzeko dauden ezintasunekin.

Lehen muga begirada zedarritzeko beharretik dator. Giza begiarekin gertatzen den bezala, begirada ez bada finkatzen eta aldi berean gauza gehiegi behatu nahi bada, ezinezkoa dela errealitatea jasotzea. Behatoki guztiak, kulturala bezalako errealitate konplexuaren aurrean, gai izan dira errealitateak berak sortzen duen informazioa karakterizatzeko, tipifikatzeko eta sistematizatzeko. Kulturarengan begirada osoa lortzeko, behatokiak behatzen den errealitatea aldeetan banatzen dute, errealitate horrengan sare kontzeptuala zabaltzen dute eta alde bakoitzaren ezaugarriak zehazten dituzte. Horrela, alde horietatik abiatuta, behatzen denaren ikuspegi orokorra eraikitzen da. Hortaz, aurreko paragrafoetan defendatzen zen begirada analitikoaren definizioarekin batera, sare horren, behatzen den errealitate-alde bakoitzaren mugen definizioa azpimarratu beharra agertzen da. Eta gero, definizio horretatik haratago, alde horien elkarguneak jasotzeko gai den begirada dinamiko baterantz pausua eman behar da, eta, noski, alde horiek gurutzatzen eta harremanetan jartzen dituzten zeharkako hainbat elementu jasotzea ahalbidetzen duten tresnak sortu behar dira.

Errealitatearen dimentsio guztiak jasotzea ahalbidetzen duten tresnak sortzea da, hain justu, bigarren ezintasunari ematen zaion erantzuna: bista ondo ez dugunean, argitasunez ikustea ahalbidetzen diguten tresnak behar ditugu. Zentzu horretan, behatokiak kulturak eragina duen sektore, jarduera edo eremu bakoitzari buruzko behar beste informazio eskuratzeko tresna egokiena zein den definitu behar dute.

Kultura-behatoki batentzat aurre egin beharreko eztabaida nagusietako bat da behatzen duenaren mugak non jartzen dituen

Hirugarrenik, behatzailearentzat behatuaren posiziotik sor daitekeen ezintasuna. Hau da, behatua ez kutuan dagoenean edo bere osotasunean erakusten ez denean, bere perfila soilik ikusten dugu. Horrek mahai gainean jartzen du behatokiak errealitatea “argiztatzeko” formulak aurkitzeko beharra, errealitatea osorik eta gune ilunik gabe ager dadin. Errealitatea nola argiztatu erronka da behatokiarentzat. Hurbilketa kuantitatiboetatik eta kualitatiboetatik abiatuta, ikerketa-teknikak konbinatzea izan daiteke erronka horri erantzuten lagun diezaiokeen bidea.

Zentzu horretan, gaur egun arte behatokiak egindako ibilbide garrantzitsua onartuta ere, kultura-errealitatearen azterketarako behar beste informazio kuantitatiboz eta kualitatiboz hornitutako teknika berrien garapenean eremu berriak daude esploratzeko. Gaur egungo ezintasunen aurrean, erantzun garbiena berrikuntza eta beste ikerketa-eremu batzuetan sortutako teknika eta jakintza baliatzea da.

Behatzaileak behatuarekiko duen distantziak ere mugatu ohi du behatzailearen gaitasuna –ongi ikus-teko objektuarengana hurbildu behar dugu, baina puntu bat arte, hortik aurrera bista lausotu egiten baita. Distantzia finkatzea, kultura-behatokiaren kasuan, kultura-ekosistemaren baitan duen posizioa definitzea da. Agente behatzailearen posizioa eta era berean jakintza transmititzailea. Horregatik, beharrezkoa da kultura-errealitatera behar beste hurbiltzea. Horrek informazioaren xehetasuna jasotzea ahalbidetzen du, eta, era berean, nahikoa distantzia izatea informazioa behar bezain argi agertu dadin, gehiegizko hurbilketa eraginik gabe, azterketa objektiboa egin ahal izateko.

Behatzailearen posizioa, behatu behar den errealitatearen mugak eta behatzeko ezintasunak definituta, behaketaren emaitzen inguruan hausnartu behar da; hasieran egindako azken galdera behaketaren azken helburua zehazteari buruzkoa da. Aurreratu denez, helburu hori estrategia politikoari eta sektoreentzako baliagarritasunari oso lotuta egon behar da. Baina hortik haratago, geure buruari galdetu behar diogu zein den instituzioek egiten duten lanaren irismena.

Behatokiaren garapenaren esperientziak, planteamendu horri dagokionez, balio du gutxienez, bi eredu agertzen direla egiaztatzen. Alde batetik, informazio estatistikoa biltzeko eta sistematizatzen funtzioari le-

Gaur egun arte behatokiak egindako ibilbide garrantzitsua onartuta ere, kultura-errealitatearen azterketarako behar beste informazio kuantitatiboz eta kualitatiboz hornitutako teknika berrien garapenean eremu berriak daude esploratzeko

hentasuna ematen dioten behatokiak –informazio hori bide desberdinetatik argitaratzen dute. Bestetik, lehen funtzio horretaz gain, euren jarduera edukiekin betetzen dutenak, datuen azterketak eginda eta errealitatearen jakintza handiagoa dakarten sektorekako ikerketak sortuta. Helburu horrek, jakintza sortzeak, behatokiak euren inguruko kulturaren garapenean oinarritzko ekarpena egitera daramatza.

Laburbilduz, behatokia abian jartzeak, ikusi denez, bere funtzioen, posizionamendu kontzeptualaren, ezintasun posibleak gainditzeko estrategiaren eta behaketaren azken helburuaren inguruan hausnarketa zabala egitea eskatzen du. Horrela, berrikuntzaren, jakintza sortzearen eta, azken finean, informazioaren kuantitatearen alde baino behaketaren kalitatearen aldeko apustua egiteak, Euskal Autonomia Erkidegoan abiatu dena bezalako proiektu berrientzako bidea erakusten du.

Behatokia abian jartzeak, ikusi denez, bere funtzioen, posizionamendu kontzeptualaren, ezintasun posibleak gainditzeko strategiaren eta behaketaren azken helburuaren inguruan hausnarketa zabala egitea eskatzen du

**I. KULTURA-
BEHATOKIAK
MUNDUAN**

1. KULTURAREN BEHAKETA MUNDUAN

1. KULTURAREN BEHAKETA MUNDUAN: BEGIRADA HISTORIKOA

Kultura-politikak Ongizate Estatua egonkortzearekin sortu ziren, XX. mendearen erdialdean. Erdialdeko eta Ipar Europako herrialde gehienetan, lehen Kultura Ministerioak sortu ziren (frantses ereduaren oinarrituta) edo *Arts Council*-ak (eredu anglosaxoian oinarrituta); kultura-ondare nazionala kudeatzera, eta, era hasiberrian, sorkuntza promozionatzera eta kulturako sarbidea gero eta zabalagoa izatera zuzenduta zeuden.

Ministerioekin edo *Arts Council*-ekin batera sortu ziren kultura-sektorean instituzio eta finantza mailan esku hartzeko gailu publiko egokiak. Urte horietan utzi zen agerian politika publikoak eraikitzeko oinarri sendoak edukitzearen beharra eta hori garatzeko atal gakoetako bat da informazioa. Horrela, azterketak, politikak sortzeko prozesua eta horien programazioa eta ebaluazioa eskualde, nazio edo nazioarte mailan adierazgarri, fidagarri eta alderagarri diren datuetan oinarritzeak duen garrantziagatik agertu ziren lehen kultura-estatistikak.

Ez da erraza lehen kultura-estatistikak estatistika gisa agertu zireneko abiapuntua zehaztea. Hainbat herritan batera agertu zen datuak biltzen hasteko beharra. Hala ere, kulturaren esku hartze publikorako lehen ereduak Ingalaterran eta Frantzia jarri zirenez gero, nolabaiteko ziurtasunez esan daiteke kultura-estatistiken sorrera gerra osteko Europan kokatzen dela.

Frantzia, 1963an, Azterketa eta Ikerketa Zerbitzua sortzearekin sistematizatu zen, lehen aldiz, kulturari buruzko informazio estatistikoaren bilketa. Zentro hori, 1967an, Estatistika eta Prospektiba Saila (DEPS) izendatu zen. DEPSaren hasierako xedea Frantzia, kulturari buruzko datu sozioekonomikoak biltzea, prozesatzea, sailkatzea eta dibulгатzea izan zen.

Azterketak, politikak sortzeko prozesua eta horien programazioa eta ebaluazioa eskualde, nazio edo nazioarte mailan adierazgarri, fidagarri eta alderagarri diren datuetan oinarritzeak duen garrantziagatik agertu ziren lehen kultura-estatistikak

Aitzindari gisa izendatu daitekeen bigarren herrialdea Kanada da. *Kulturaren Estatistika Programaren* hasierak 1970eko hamarkadako hasieran jar daitezke, Statistics Canada (Kanadako Estatistika Institutua) filmei, liburutegiei eta museoei buruzko datuak biltzen hasi zenean, nahiz datuok nagusiki izaera ekonomikoa izan eta ezin zitezkeen eskualde mailan informazio egokia eskuratzeko beste bereizi. Interesgarria da aztertzea kultura-estatistiken lehen pausuek nola jarri zuten arreta kultura-sektorearen alde ekonomikoa azpimarratzean (enplegu-adierazleak, bilketa, etab.).

Nazio mailan kultura-informazioaren sistemak lekua egiten eta ordurako estatistikak esploratuak zituen beste arlo batzuen (ekonomia, hezkuntza) mailan kokatzen hasi ziren. Egoera horretan, esperientzia nazionalak entseatu eta sendotu ahala, nazioarteko erakundeek prozesu horretan jokatu duten sustatze-papera indarrez agertzen da.

Dudarik gabe, Unesco da kultura-fenomenoak mundu osoan "behatzeko", informazio-sistemak garatzearen garrantzia nabarmentzen gehien lagundu duen nazioz gaindiko erakundea. Jadanik, 1967an, Monakon egin zen Kultura Politikei buruzko Mahai Inguru batean esan zen kultura-politika bat eratzeko errealitatea (soziala, hezkuntza, kulturala...) ezagutzea eta horri lotutako beharrak ebaluatzea oso garrantzitsua zela, eta, aldiz, herrialde gehienetan ia ez zegoen bi alderdi horiei buruzko informaziorik.

Informazio horren beharra herrialde bakoitzeko kultura-politiken arduradunek adierazi zuten lehenik, eta horri esker hasi ziren garatzen kultura-politiken gai nagusienei oso lotuta zeuden estatistikak. Kasu batzuetan, erronka hori kultura-gaiez arduratzen ziren ministerioek hartu zuten beren gain, beste kasu batzuetan Estatistika Nazionaleko Institutuek, eta hirugarren bidea kultura-estatistikak garatzeko bi erakunde horien indarrak batu zituzten herrialdeena izan zen –Kultura eta Estatistika Nazionaleko Institutuen Ministerioa. Herrialde bakoitzak bere eredia aukeratu zuen, edukietan eta metodologietan besteengandik desberdintzen zena.

Nazio mailan kultura-informazioaren sistemak lekua egiten eta ordurako estatistikak esploratuak zituen beste arlo batzuen (ekonomia, hezkuntza) mailan kokatzen hasi ziren

Lehen kulturaren estatistika-sistemen garapena sistema horien baliozkotasuna bultzatzeko interesak lagunduta egon zen. Hala, Unesco, mundu mailan, nola Europako Kontseilua, kontinente mailan, dira kultura-politikei buruzko txosten analitikoak egiten liderrak, herrialdeen arteko alderagarritasuna posible egiteko helburuarekin. Horrela, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan, Unescok hurbilketa kualitatiboetatik eta kuantitatiboetatik (eskura zeuden datu estatistikoetan oinarrituta) kultura-politika nazionalak aztertzen zituen txosten-sorta argitaratu zuen (*Studies and Documents on Cultural Policies*). Garai berean, Europako Kontseiluak ere kultura-politikei buruzko txosten-sorta argitaratzeari ekin zion, Oslon (Norvegia), 1976an, egin zen Kulturako Europako Ministroen Konferentziarako aurre-dokumentazio gisa.

1980ko hamarkadan, beraz, jakintza metatzeko prozesua abian jarri zen. Prozesu horrek arrasto teorikoa sortu zuen eta horrela egin zen, 1986ean, Unescoko *Kultura Estatistiken Esparrua*. Ahalegin teoriko horrek garrantzia berezia eman zion kultura kontzeptua definitzeari, balore-katearen inguruko hamar kategoriaren (kultura-sektoreak) eta bost funtzioaren bidez.

Esparru hori argitaratzea mugarrizko izan zen, kontuan hartzen badugu herrialdeek kultura-sektorea lantzean topatutako lehen oztopoa, dudarik gabe, "kulturaren" definizioa bera izan zela. Hurbilketak, ordua arte, asko izan ziren eta, maiz, ikuspegi etnologikoak, ekonomikoak, sozialak, politikoak nahasten zizuten, eta horrek zaildu egiten zuen ikerketa-objektua eta bere mugak definitzeko kontsentsu batera heltzea. Era berean, kultura-sektorearen baitan sartutako jardueren aniztasunarekin ere borrokatu behar zen. Jarduerok ekoizpen-sektore desberdinetatik zetozen: industria, merkataritza, zerbitzuak, etab. Sektorre ekonomiko gisa kultura-sektorearen batasun eskasia agerian geratu zen.

Unescoren esparruak eremua zehazteko balio izan zuen. "Kultura" kontsideratu zitekeenaren eta definizio horretatik at geratzen zenaren ingerada¹ kokatzeko bertutea zuen. Argitzeko egindako ahalegin ho-

1. Mugak (*boundaries*), J. Mark Schuster-ek erabilitako terminoaren arabera. Aditu hori izan da informazio-sistema bakoitzak mugak ezartzearekiko duen posizionamendua ezartzeko eta zehazteko beharra gehien aztertu duena. Hiru motako mugak deskribatzen ditu: muga inklusiboak (*inclusive boundaries*), muga flotatzaileak (*floating boundaries*) eta muga finkoak (*anchored boundaries*).

1980ko hamarkadan, beraz, jakintza metatzeko prozesua abian jarri zen. Prozesu horrek arrasto teorikoa sortu zuen eta horrela egin zen, 1986ean, Unescoko *Kultura Estatistiken Esparrua*

rretan gogor eztabaidatu zen zein kategoria kontsidera zitezkeen kultural; azkenik, jokoak eta kirolak, natura eta ingurumena sartu egin ziren, eta, aldiz, arkitektura (arte gisa, ez ondare gisa, hori sartu baitzen) kanpo geratu zen.

Agerikoa da, urteak pasa ahala, eta XX. mendearen azken hamarkadetan eta XXI. mendearen hasieran jazotako aldaketa bizkorak kontuan izanda, esparru hori zaharkitua geratu dela. Zaharkitua ez baititu teknologia berrietan oinarritutako azken kultura-adierazpenak jasotzen. Zaharkitua etnozentrismoa kontsideratzen baita. Denbora pasa ahala jasotako kritikak kritika, Unescoren esparrua erreferentzia izan da herrialde askorentzat, hurbilketa horretatik abiatuta garatu baitituzte euren informazio-sistema propioak.

Kanada eta Australia izan dira Unescoren esparrua erreferente gisa hartzen lehen herrialdeetako bi, nahiz euren errealitatera egokitzeke aldaketa batzuk sartu zituzten. Zeelanda Berria, Herbehereak, Italia, baita Europar Batasuneko estatistika-proiektua ere, Unescoren hurbilketan oinarritu dira proposamenak egiteko.

Hamarkada horretan garatu zituzten mendebaldeko herrialde gehienek euren estatistika-sistemak, eta horietan kultura-estatistika, hein handiagoan edo txikiagoan, lantzen zen. Hala ere, esan daiteke 1990. hamarkadaren erdialdera arte nolabaiteko lozorro-garaia bizi izan zela, ez baitzen kultura-sektorean informazio-sistemen sorkuntzari eta garapenari lotutako jauzi kualitatibo handia ekarri zuen gertaerarik jazo.

1995ean berpiztu zen gai horri buruzko mundu mailako interesa, eta kultura eta bere fenomenoak neurtzeko abiatutako proposamenak berriz aktibatu ziren. Urte horretan izan zen Unescok eta Nazio Batuek, "Gure sorkuntza-aniztasuna" izenburupean, elkarrekin antolatu zuten Kulturaren eta Garapenaren Mundu mailako Batzordea. Batzorde hori inflexio-puntu garrantzitsua izan zen, gaur egun oraindik indarrean dauden bi kontzeptu sartu baitziren: garapena eta aniztasuna, kulturari oso hurbiletik lotuta. Elkarrekintza hori aspalditik kontsideratzen zen funtsezko, baina ordura arte ez zegoen politika berriak oinarritu ahal izateko mundu mailako azterketa konparatiborik.

Unescoren esparruak eremua zehazteko balio izan zuen. "Kultura" kontsideratu zitekeenaren eta definizio horretatik at geratzen zenaren ingerada kokatzeko bertutea zuen

"Ikuspegi mugatuan eta konbentzionalean ondare eta zerbitzu garrantzitsuenak ere balio handiko kontsideratzen dira, gure baloreekin bat gure askatasuna handitzen baitute. Hortaz, kultura, garapenaren tresna (edo oztopo) gisa garrantzitsua izanagatik ere, ezin da hazkunde ekonomikoaren sustatzaile- (edo balazta-) -funtzio subsidiario soilera alboratu. Kulturaren funtzioa ez da helburuak lortzeko bitarteko izatera mugatzen –nahiz eta, kontzeptuaren zentzu hertsian, hori izan bere funtzioetako bat–, helburuen beren oinarri soziala osatzen du. Garapena eta ekonomia herrien biziaren parte dira (*Gure sorkuntza-aniztasuna* txostenaren hitzaurrea, Unesco eta Nazio Batuak).

1993ko martxoa eta 1995eko iraila bitartean, Batzordea bederatzi aldiz batu zen munduko hainbat eskualdetan. Bilera horietan, informazio-talde bat sortu zen eta horrek kulturaren eta garapenaren arteko erlazioari buruzko argudio berriak eta sendoak eman zituen. 1995etik, nazioarteko foro askotan (Paris, 1995eko ekaina; Madril, 1995eko urria; Urbino, 1996ko maiatza) kultura-estatistiken eskasia berriro mahai gainean jarri zen, eta orduan hasi ziren Estatuak arlo horretarako konponbideak ahalegin handiagoz eskatzen.

Europar Batasunak eskaera horiek jaso zituen, eta bultzada horretaz baliatuz, 1997an, kultura-estatistikei buruzko LEG Culture sortu zuen (*Leadership on cultural statistics*), Eurostaten baitan.

Lan-talde horren helburua zen komunitate mailako informazio-sistema bat sortzea, 1986an Unescok hasitako lanarekin jarraituz, herrialde kideen kulturaren eta garapen sozioekonomikoaren arteko erlazioa hobeto ulertzea ahalbidetuko zuena. LEG Culture-a funtzio hauez arduratuko ziren lau azpitaldetan banatu zen: kultura-sektore bateratua definitu eta sektore hori jardueretan zatitu, horrela, kultura-jarduteen definizioa eginez (1. azpitaldea); kultura-enpleguei buruzko estatistikak aztertu eta lanbideen sailkapena egin (2. azpitaldea); finantziarioa eta kultura-gastua aztertu, eta ondasunen eta zerbitzuen kontsumoa ebaluatu (3. azpitaldea); kultura-jardueri buruzko eskaera ikertu (4. azpitaldea). Kultura-enplegua landu zuen taldea Frantziako Kultura Ministerioak zuzendu zuen, finantziario eta gastuei buruzko

Batzorde hori inflexio-puntu garrantzitsua izan zen, gaur egun oraindik indarrean dauden bi kontzeptu sartu baitziren: garapena eta aniztasuna, kulturari oso hurbiletik lotuta

taldea Frantziako eta Italiako Kultura Ministerioek elkarlanean eta kultura-jarduerei buruzkoa Italiako Estatistika Institutuak.

Behin azken txostena idatzita, LEG Culture-a, 2000. urtean, Eurostateko lanerako talde egonkorra izatera pasa zen (*Working Party*), estatu kideekin kolaborazio estuan hasitako lanak jarraitzeko eginkizunarekin. Lan horrek balio izan du, komunitate-esparru egokirik gabe, estatuak kultura-estatistikak beren gain bakarrik ezin dituztela hartu erakusteko.

XXI. mendea mundu mailako bultzada berriarekin hasi da. Oraingoan, tresna berriak sortu behar dira herrialdeek kultura-sektorea, testuinguru orokorrean, sektore estrategiko gisa uler dezaten. Izan ere, milurteko berriko kultura-eztabaidaren dokumentu erreferentea Kultura Aniztasunaren Deklarazio Unibertsala (2001. urteko data du) dela esan daiteke.

Kultura Aniztasunaren Deklarazio Unibertsalaren arabera, milurteko berriko erronkek aurreko urteetan baino kultura-errealitate askoz konplexuagoa tratatu beharko dute. Kultura-aniztasunak mende berriari kulturari buruz egiten diren azterketa guztien oinarrian egon behar du.

Unescok 1998an mundu mailako kultura-txostena argitaratu zuenean erakutsi zuen kulturaren behaketan jauzia egiteko borondatea. Argitalpen horrek bere gain hartu zuen sektore desberdinek *Kultura Estatistiketarako Esparruari* buruz eskatzen zuten berrikusketa. Horrela, are gehiago nabarmendu zen zer "behatu" behar zen zehazki definitzeko zailtasuna. Inguru anitzagoa, eta ondorioz, konplexuagoa, sortzeak adierazle berriak eraikitze beharra dakar. Alde batetik, erakutsi zen ezinbestekoa zela herrialde guztietako alderdi multikulturalak sartzeari, bestela produkzioko eta kontsumoko adierazle komertzialen nagusitasunagatik herrialde aberatsen alde sortzen den desoreka saihestezinari aurre egiteko. Kultura-estatistikek, beste arlo batzuetan ez bezala, herrialde pobreetako eta biztanleriaren maila pobreetako errealitatea ikusezin bihurtzen dute. Bestalde, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek sortu dituzten aldaketak (produkzioan, banaketan, kontsumoan) gehitu behar dira.

Kultura-aniztasunak mende berriari kulturari buruz egiten diren azterketa guztien oinarrian egon behar du

Horrela, mundu mailako txostena argitaratzea izan zen, beharrezko izan den aurre-lan guztiarekin, kultura-estatistikak, mundu mailan, testuinguru berrira egokitzeko lehen pausua. Biurteko argitalpena izan behar bazen ere, bi edizio soilik argitaratu dira: 1998koa, lehena, eta 2000. urtekoa. Bigarren argitalpenarekin, Unescok, Munduko Bankuarekin, PNUDekin eta beste gobernu-erakundeekin elkarlanean, gaurkotatutako datu berriak eta sortzeko ikerketa-prozesua irmoki zuzentzeko borondatea erakutsi zuen. Datuok kulturaren eta garapenaren arteko loturak neurtuko zituzten. Epe luzerako helburua kulturari buruzko nazioarteko estatistika-informazioa sortzea izan behar zen.

Seguru asko, mundu mailako txostenari buruzko proiektua Unescoren Estatistika Institutuaren (ingelesez, UIS) garapenaren eta egonkortasunaren mende geratu zen. 2001eko urrian, Unescok eskumenak dituen arlo guztietako (besteak beste, kultura-sektorea) estatistika-produkzioa sistematizatzeko helburuarekin sortu zen institutua. Sorreratik, UISek lau arlori buruzko informazioa biltzen du (argitalpen-produkzioa, filmak eta zinema, liburutegiak eta prentsa) eta, irratia eta telebista eta prentsa idatziari buruzko bi ikerketa ditu abian. Estatistika-arloa garatzeko Unescoren borondatea argi geratu zen *Kultura Estatistikei buruzko Nazioarteko Sinposioa* (Montreal, 2002) antolatzean. Hori izan da ezaugarri horietako azken gertakari handiena. Sinposio horretan gai horretako lehen-mailako adituak batu ziren, eta azken ondorioa izan zen oraindik bide luzea egin behar dela kultura-estatistikak beste arlo batzuetan dagoen informazioaren mailan jartzeko.

Unescok eta Eurostatek hasitako lanei esker, eta izandako bilera ugarietarako esker, nagusiki kultura-estatistikak garatzeko helburua duten erakunde ugari sortu dira azken hamarkadetan. Oinarrian, "behatoki" izenaren azpian, kasu askotan, administrazioetik (ministerioak, sailak, estatistika institutuak) egindako lana biltzen duten eta bultzada ematen dieten egiturak jarri dira martxan. Gainera, lan hori estatistiken eta kultura-politiken diseinuaren arteko lotura eratzearen aldeko ekimen kualitatiboekin osatzen dute.

Erakutsi zen ezinbestekoa zela herrialde guztietako alderdi multikulturalak sartzea, bestela produkzioko eta kontsumoko adierazle komertzialen nagusitasunagatik herrialde aberatsen alde sortzen den desoreka saihestezinari aurre egiteko

Azken berrogei urteetako gertakari nagusienak gainbegiratuta ikusten denez, eboluzio-prozesu luzea egon da kultura behatzeko eta neurtzeko sistemak sortu zirenetik horren kudeaketarako *ad hoc* erakundeak sortzeraino.

Laburbilduz, hiru fase (hasiera, garapena eta egonkortzea) bereiz daitezke. Sorrera historiografiko guztiak bezala, ez dira fase geldiak eta mugiezinak, eta gertakariak nola izan diren erakusteko balio behar dute:

Lehen fasea. Errealitate jakin batera egokitzen diren kultura-politikak egiten lagunduko duten kultura-estatistikak garatzeko interesa sortzen da. Une horretan, ez dira informazio-sistemak zentzu hertsian hartzen, baizik eta kultura-fenomenoen eta jardueren neurrirako hurbilketak. Herrialde gehienetan ardura hori kultura ministerioek edo estatistikarako institutu nazionalak hartzen dute beren gain. Fase hori 1960ko azken urteetatik 1980ko hamarkada bitartekoa izan zen, herrialde batzuk (besteak beste, Frantzia eta Kanada) berariazko kultura-estatistikak abian jartzen hasi zirenean. Sinbolikoki, Unescok *Kultura Estatistiketarako Esparrua* sortzearekin itxi zen fase hori.

Bigarren fasea. Lehen kultura-estatistikak agertu ziren, kultura-estatistika gisa egituratuak. Horietan informazioa biltzeko teknikak sofistikatu ziren (metodologia) eta ikertu beharreko arlo- eta eremu-sorta zabaldu egin zen, kultura-sektorea hobeto ezagutzeko. Fase horretan, kulturaren ikerketa ikuspegi kuantitatibotik eta kualitatibotik garatzera zuzendutako lehen behaketak sortu ziren. Hori 1990eko hamarkadan gertatu zen.

Hirugarren fasea. Kultura-behatokien eklosioa gertatu zen. Era guztietako behatokiak jarri ziren abian. Behatokiok funtzio desberdinak garatzen dituzte, eta sektore publikoak, pribatuak eta hirugarren sektoreak bultzatuak dira. Hirugarren fase hori 1990eko hamarkadako azken urteetan eta XXI. mendeko lehen hamarkadan koka daiteke.

Eboluzio-prozesu luzea egon da kultura behatzeko eta neurtzeko sistemak sortu zirenetik horren kudeaketarako *ad hoc* erakundeak sortzeraino

KULTURA-ESTATISTIKEN GARAPENEAN DATA ESANGURATSUAK

URTEA	GERTAERA
1963	Azterketarako eta lkerketarako Zerbitzuaren sorrera (Frantzia) 1967an DEPS izatera pasa zen.
1967	Kultura Politikei buruzko Mahai-ingurua (Monako). Unesco antolatua zuen eta bertan kultura-estatistikak izateko beharraz hitz egin zen.
1970eko hamarkada	Kanadako Estatistika Institutuko Kultura Estatistika Programa.
1970-1980eko hamarkadak	Unesco profil nazionalak argitaratu zituen. Bertan, zenbait kultura-politika aztertu ziren (<i>Studies and Documents on Cultural Policies</i>).
1976	Europako Batzordeak integratutako txosten-sorta argitaratu zuen, Oslo izan zen Europako Kultura Ministroen Konferentzia prestatzeko.
1982	Mexikon egin zen kultura-politikei buruzko mundu mailako MONDIACULT Konferentzia
1985	Europako Batzordea Europako Estatuetakoko kultura-politikak ebaluatzen dituzten txostenak egiten hasi zen. 1995ean eta 2000an, argitaratu ere egin ziren.
1986	Unesco <i>Kultura Estatistiken Esparru</i> propioa eratu zuen
1995	<i>Gure sorkuntza-aniztasuna</i> Kulturaren eta Garapenaren mundu mailako Batzordea abian jarri zen.
1997	EBko kultura-estatistikei buruzko LEG Culture taldea sortu zen.
1998	Europako Batzordeak antolatutako lehen <i>Cultural policies in Europe: a compendium of Basic facts and trends</i> topaketa.
1998	Garapenerako Kultura Politikei buruzko Stockholm-eko Ekintza Plana. Planak kulturari eta garapenari buruzko nazioarteko ikerketa indartzeko konpromisoa erakusten du.
1998	Kulturaren mundu mailako lehen Txostena argitaratu zen (Unesco)
1999	Munduko Bankuak, Unesco eta Italiako Gobernuak "Kulturak kontatzen du" mintegia antolatu zuten, Florentzian. Egindako aurrerapausoak estatistika-produkzioari buruzko mundu mailako txostena argitaratuta indartu ziren.
2000	Kulturaren mundu mailako bigarren Txostena argitaratu zen (Unesco)
2000	Eurostateko Kultura Estatistikei buruzko Lan-Taldea sortu zen
2001	Kultura-aniztasunari buruzko Unescoren Mundu mailako Deklarazioa.
2001	Unescoren Estatistika Institutua sortu zen (Montreal)
2002	Kultura Estatistikei buruzko Nazioarteko Sinposioa, Montrealen.

Hiru fase (hasiera, garapena eta egonkortzea) bereiz daitezke. Sorrera historiografiko guztiak bezala, ez dira fase geldiak eta mugiezinak, eta gertakariak nola izan diren erakusteko balio behar dute

2. KULTURA-BEHATOKIAK: ERREALITATE KONPLEXURA HURBILTZEA

Kultura-behatokiak 1980ko azken urteetan hasi ziren sortzen, eta 1990eko hamarkadatik gaur arte hedatu eta egonkortu dira gehien. Sorreran, erakunde horiek informazio-iturriak sistematizatzeko, kultura-politikei buruzko ikerketa eta azterketa berriak garatzeko eta kulturaren garapena bultzatzeko asmoarekin sortu ziren.

Gaur egun, erakunde ugari eta mota guztietakoak izendatzen edo kontsideratzen dira kultura-behatoki. Asko dira kultura-behatokien tipologian aniztasun hori egotea azaltzen duten arrazoiak: izaera, funtzioak eta ekimen-eremua; osatzen dituzten erakundeak, bertan diharduten profesionalak, baita sorreran egon ziren agenteak ere.

Gaur egun, kultura behatzera dedikatzen diren erakunde ugari biltzen dituzten datu-baseak daude. Datu-base horien artean azpimarratzekoa da Kultura Politiken Behatokien Nazioarteko Sarea. Sare hori Unesco sortu zuen, eta bere helburua munduko kultura-behatokien arteko konexioa eta esperientzien eta jakintzaren trukaketa sustatzea da. Interesgarria da, halaber, Interarts Fundazioaren eta Labfor Culture-n bilketa –azken hori European Cultural Foundation-en plataforma digital berria da. Bi horiek Europako kultura-sektoreko aktore gehienentzat oso erabilgarriak diren baliabideak biltzen dituzte.

Nazioarteko hiru erreferente horiek bilketa zabalagatik eta zehatzagatik nabarmentzen dira, baina, hala ere, deigarria da datu-base horietako bakoitzean kultura-behatoki ugariak aurkezteko aukeratutako sailkapenetan eta tipologietan desberdintasunak aurkitzen direla. Horrek nabarmen agertzen du kultura-behatokien zeregin propioak egiten dituzten erakundeak sailkatzea zaila dela.

Atal honetan, kultura-behaketa beren funtzio nagusien artean sartzten duten erakunde nagusien sailkapen bat aurkeztuko dugu. Sailkapen horren helburua da behatokien mundu mailako errealitateari begirada zabala ematea, baita bakoitzaren datu nagusienei buruzko hurbilketa egitea ere.

Gaur egun, erakunde ugari eta mota guztietakoak izendatzen edo kontsideratzen dira kultura-behatoki

Burutzen dituzten eginkizunei edo nabarmen egiten dituzten bereizgarriei buruzko deskribapen laburra ere gehitzen da.

Aukeraketa hori aurkezteko asmoz, hiru kultura-behatoki mota bereiztea erabaki da: ikerketa-zentroak eta nazioarteko erakundeak, eskualde edo nazio mailako erakundeak eta unibertsitate-zentroak. Tipologia horiek definitzeko Unescok, Interarts-ek eta LabforCulture-k egindako zenbait proposamen jarraitu dira, baina, batez ere, tipologia horiek hiru puntu nabarmen uzten dituztelako egin da aukeraketa hori: lehenik, proiektuaren sorreran dagoen agentea; bigarrenik, sortzen diren ingurune geografiko desberdinak; eta, azkenik, beren eginkizunen helburu nagusiak.

- **Ikerketa-Zentroak eta nazioarteko erakundeak:** administrazio publikoen mende ez dauden eta kultura-errealitatea aztertzeko eta ikertzeko helburua duten erakundeak.

Kategoria horretan sartzen diren ikerketa-zentroyen ezaugarria, kasurik gehienetan, nazioarteko dimentsioa da, hala ikerketa-eremuan nola osagaietan eta kideetan. Zentzu horretan, jakintza-sareak sortzeko eta informazioa trukatzeko egiten duten ekarpenagatik nabarmentzen dira. Horregatik, kultura-behatokiaren funtzioa izan ohi da haien zeregin askotarik bat. Normalean, kulturaren dibulgazioan egiten duten lana ere nabarmentzekoa izaten da.

- **Eskualde edo nazio mailako erakundeak:** Eskualde bateko kultura-errealitatearen ikerketari lotutako erakundeak eta, kasurik gehienetan, eskualdeko edo nazioaren gobernuaren borondatez sortuak.

Erakunde horiek eremu geografiko mugatu bat aztertzerazuzenduak izan ohi dira, eta euren helburua da haien gaineratik dauden erakunde publikoek jarritako kultura-politiken definizioan, garapenean eta ebaluzioan ekarpenak egitea.

- **Unibertsitate-zentroak:** kultura-politiken eta kultura-errealitatearen ikerketan eta behaketan espezializatutako unibertsitate-sailak. Kasu askotan, sail horiek lurraldeko kultura-politikak aztertzen dituzten eskualdeko edo nazioaren ekimenei lotzen zaie azkenean.

Hiru kultura-behatoki mota bereiztea erabaki da: ikerketa-zentroak eta nazioarteko erakundeak, eskualde edo nazio mailako erakundeak eta unibertsitate-zentroak

Hiru tipologia horiek, *Kultura-behatokien katalogoa* 1. eranskineko behatokiak sailkatzeko balio duten arren, ohartarazi behar da, kasu batzuetan, aipatutako erakundeak tipologia batean baino gehiagotan sailkatuak izan daitezkeela, nahiz aukeraketa honetan behatoki bakoitza behin bakarrik aipatu.

Sailkapen horretatik haratago, garrantzitsua da behatokien ikerketan are gehiago sakondu daitekeenaren ziurtasuna izatea, egitura formalean baino gehiago edukietan –funtzioak, tresnak, helburua– sakonduz.

Maila horretako begirada batek konplexutasunak markatutako eta baliabide ugari erabiltzeak definitutako eremua irekitzen du. Baliabide horiekin, informazioa sortu eta kultura-sektorearen beharrei erantzunak ematea bilatzen da.

Behatokiek erabilitako estrategia eta tresna guztietatik badira erreferente gisa hartu eta guztien arretik bereizten direnak.

Behatokien arteko desberdintasuna markatzen duten elementuetako bat zera da: funtzioen artean, datu estatistikoek bilketa eta prozesamendu zuzena eta urtekarietan edo bestelako dokumentuetan datuok argitaratzea aurreikusten duten ala ez. Zentzu horretan erreferenteak dira Frantziako Département des Études de la Prospective et des Statistiques (DEPS) edo Quebecoko Observatoire de la Culture et des Communications. Azken hori, hain zuzen ere, herrialdeko estatistika-zentroari lotuta sortu zen.

Behatoki ugari erabiltzen duten beste tresnetako bat, batez ere lurraldearekin lotura zuzena dutenek, eskualdeko kultura-sektoreko agente nagusienentzat baliabideak sortzea eta eskaintzea da. Zerbitzu horiek guztiak eskainita, informazio kualifikatua eskainiz, sektorearen dinamizazioan eta egonkortzean eragin nahi da. Era horretako ekintzen adibideetako bat Culturescope da (Kanadako kultura-behatokia). Behatoki horrek sektoreko interesei lotutako gai desberdinak lantzeko lan-taldeak sortu ditu.

Funtzioen eta tresnen bereizketa horretan, nabarmena da ere euren lanak kultura-programen eta politiken orientazioan edo definizioan eragitera zuzentzen dituzten behatokien eta, politiketatik urrunago, be-

Sailkapen horretatik haratago, garrantzitsua da behatokien ikerketan are gehiago sakondu daitekeenaren ziurtasuna izatea, egitura formalean baino gehiago edukietan –funtzioak, tresnak, helburua– sakonduz

girada analitikoagoa dutelako bereizten diren behatokiaren arteko desberdintasuna. Lehen behatokiaren artean ugari dira funtzio hori betetzen dutenak, baina, batez ere, ikerketarako eremu geografiko mugatua dute. Horien artean nabarmentzekoak dira bi erakunde italiarrak: Piemonteko Osservatorio Culturale eta Lombardiakoa. Bigarrenak, nagusiki ikerketa-zentroak eta nazioarteko erakundeak dira, eta joera horren erreferente on bat Europako Batzardeak eta Ericarts-ek sustatutako Compendium da, Cultural Policies and trends in Europe. Internet bidez, Europar Batasuneko estatu kideetan eta beste herrialde batzuetan kulturari buruzko datu nagusiak eskaintzen ditu.

Behatokiaren funtzionamendu propioaren arabera bereizketa horiek guztiek ez dute presentzia espliziturik ondorengo sailkapenean. Hala ere, erakundearen funtzionamenduan tresna edo mekanismo espezifikoa detektatu diren behatokietan, deskribapenean aipatu egin dira.

Funtzioen eta tresnen bereizketa horretan, nabarmena da ere euren lanak kultura-programen eta politiken orientazioan edo definizioan eragitera zuzentzen dituzten behatokiaren eta, politikatik urrunago, begirada analitikoagoa dutelako bereizten diren behatokiaren arteko desberdintasuna

3. BEHATOKIAK KULTURA-POLITIKEK EZARRITAKO ERRONKEN AURREAN

Kultura-politiken erronka berriak

Azken urte hauetan kulturari buruz hausnartzeko egindako eztabaidetan identifikatu dira kultura-politiken erronkak. Eztabaida horietan, batetik, gainditu gabeko arazoak sakondu dira eta, bestetik, globalizazioari, garapen sozial iraunkorreko ereduari eta hiritartasun kontzeptuari buruz hitz egin da. Beraz, bi dokumentu hauetan ematen da aipaturako eztabaiden berri: *Kultura-adierazpenen aniztasuna babesteari eta sustatzeari buruzko konbentzioa eta Kulturaren Agenda 21*. Dokumentu bakoitzak kulturaren dimentsio jakin bat nabarmentzen du. Ondoren ikusiko dugun bezala, behatokiek ekarpen garrantzitsuak egin ditzakete horrelako eztabaidetan, dagokien jarduera-eremutik abiatuta, hausnarketak eginez eta irtenbideak proposatuz.

Kulturaren neurketarako eta kultura-politiken inaktuaz aztertzeko sistemari buruzko eztabaida zaharrak oraindik gainditu ez diren honetan, beste eztabaida batzuk ari dira sortzen. Beraz, zer eztabaidei egin behar diete aurre behatokiek? Zein dira eztabaida horiek argitzen laguntzen duten kontzeptu nagusiak? Zer erronka jartzen dituzte eztabaidek? Neurri handi batean, Konbentzioak eta Kulturaren Agenda 21ek galdera horiei erantzuten diete.

2007ko martxoaren 18an jarri zen indarrean *Kultura-adierazpenen aniztasuna babesteari eta sustatzeari buruzko konbentzioa*² 35 estatutan –horien artean Espainia– eta Europako Batasunean. Beste 27 herrialdek Konbentzioa berretsi edo onartu dute edo beren atxikimendua azaldu dute (indarrean sartu aurretik eman beharreko pausoa da). Hala, kultura-politiken arloko nazioarteko erreferente politiko-kontzeptual nagusitzat har daiteke Konbentzioa. Beraz, horrek baieztatzen du Unescok apustu sendoa egin

Horrek baieztatzen du Unescok apustu sendoa egin duela nazioarteko agenda politikoaren erdigunean kultura ezartzeko, eta, gainera, onarpen eta adostasun handia lortu du

2. 2005eko urriaren 3tik 21era Parisen egindako hezkuntzari, zientziari eta kulturari buruzko Nazio Batuen Erakundearen konferentzian –33. bileran– onartutakoa.

duela nazioarteko agenda politikoaren erdigunean kultura ezartzeko, eta, gainera, onarpen eta adostasun handia lortu du.

Konbentzioan definitutako esparru politiko-kontzeptualari esker, kultura-politika leku pribilegiatua eta garrantzitsua kokatu da, globalizaziotik eta aldaketa sozial, ekonomiko eta politikoetatik datozen erronkei erantzuteko. Duela gutxi erreferentea da Konbentzioa –eta gertutasun hori du bertute–, kulturaren egoerari buruzko azterketa global eta eguneratua egin ondoren sortu dena, eta, gainera, ibilbide-erri bat proposatzen du, hau da, kultura-politikarako eredu bat etorkizunerako.

Bestalde, 2004ko maiatzaren 8an Bartzelonan egindako Gizartean barneratzeari buruzko tokiko agintarien IV. Foroak –Kulturen Foroaren esparruan– *Kulturaren Agenda 21* onartu zuen. Agenda horretara atxiki ziren mundu guztiko ehun hiritik gora eta beste hainbeste tokiko gobernu-sare eta erakunde nazional. Unescoren kultura-aniztasunari buruzko deklarazio unibertsalean³ inspiratutako dokumentua da. Eztabaida-prozesu luze baten ondoren egin zen, eta printzipio, konpromiso eta gomendio batzuk jasotzen ditu, gizarte globalizatuaren kultura-erronkei aurre egiteko.

Hein handi batean, dokumentu horiek tresna baliagarria dira kultura-politikaren erronka nagusiak zehazteko. Bistan denez, kultura-politikaren erronkak ez dira erreferentziazko testu horietatik eratorzen; izan ere, erronkak askotarikoak dira, baita eman daitezkeen erantzunak ere. Hala eta guztiz ere, nazioarteko erreferenteak –kultura-politikak aurrean dituen erronkei buruzko azterketa globaletik jasotakoak– eskuan izatea, gutxienez, erabilgarria da, kultura-politikak komunean garatzeko norabidea zehazten baitu. Aldi berean, erreferente horiek lurralde eta administrazio-eremu jakin batera ekartzean, leku edo eremu horretako ezaugarri bereziak hartzen ditu, errealitate kultural eta sozial jakin bakoitzari erantzuteko. Dena den, errealitate kultural zehatz horiek ez daude kontraesan maila

3. Unescoren batzar orokorrean onartutakoa (Paris, 2001eko azaroa).

Konbentzioan definitutako esparru politiko-kontzeptualari esker, kultura-politika leku pribilegiatua eta garrantzitsua kokatu da, globalizaziotik eta aldaketa sozial, ekonomiko eta politikoetatik datozen erronkei erantzuteko

guztietan eta erronka guztiei –aipatutako testuen arabera, globalak nahiz tokikoak– eman beharreko erantzunekin.

Eztabaidetako bat –testu horietan oraindik gainditu gabekoa eta behatokiak sortzean dagoeneko eztabaidagai zena– gai honen gainekoa da: kulturaren definizioa eta, beraz, kultura-politikaren eta behatokiaren aztergaiaren mugak. Eztabaida horren atzean dago kulturaren izaera hedakorra, eta, beraz, kultura sektore gisa mugatzeko zailtasuna. Eztabaida horrekin batera, eta haren ondorioz, behatokiak gero eta jarduera gehiago barneratzen dituzte kultura-sektorearen balio ekonomikoa kontabilizatzeko eta informazio kultural estatistikorako. Hala, jarduera horiek kontuan hartzeak ala ez hartzeak kulturaren mugei buruzko eztabaida berpizten du. Irtenbide zaileko eztabaida da, beste gauza batzuen artean, “kultura” kontzeptuaren izaera hedakor hori inbaditzailea delako, hau da, *kultural* atributua ezartzen dielako lehen ezaugarri hori ez zuten jardueri. Behatokiak ekarpen handiak egin dizkiote eztabaida horri, bereziki, eztabaida horretan zehazten baita errealitate kulturalaren behatzaile gisa duten funtzioa.

Konbentzioaren arabera, kultura da gizartearen garapen iraunkorrerako sektore nagusienetakoa. Hala, kulturaren eta ezagutzaren zentralitatea eskatzen du, aniztasuna errespetatuz eraikitako bidezko garapenaren eragile izan dadin. Esan bezala, kulturaren kontzeptuzko mugei buruzko eztabaida oraindik gainditu gabe dago, eta, halaber, ez da argitu erabat zer esan nahi dugun “kultura-sektore” diogunean. Hala ere, Konbentzioaren iritziz, munduko –eta, ondorioz, munduko lurralde guztietako– gizarte-eta ekonomia-garapenerako zutabeetako bat izan behar du sektore horrek. Orain arte esandakoak ondorio honetara eramaten gaitu: **sektorearen normalizazioa** da kultura-politikaren erronka nagusienetakoa, eta, horretarako, kultura-sektorearen mugak definitu behar dira, munduan dauden errealitate kulturalak errespetatuz. Eta normalizazio hori posible egiteko, besteak beste, sektoreari buruzko informazio nahikoa emango duten tresnak diseinatu behar dira, sektorearen garapena alderatu eta neurtu ahal izateko.

Kulturaren eta ezagutzaren zentralitatea eskatzen du, aniztasuna errespetatuz eraikitako bidezko garapenaren eragile izan dadin

Eztabaida horrekin lotuta, Konbentzioaren arabera, hauek dira munduko errealitatearen ezaugarri nagusiak: globalizazioa, komunikatzeko erraztasuna eta teknologia berrien zabalkundea. Beraz, testuinguru hori izanik, batetik, aurre egin behar zaio merkatuko indarrak estandarizatzeko joerari eta, bestetik, kultura-adierazpenen aniztasunari eutsi behar zaio. Hala, kultura-berezitasunaren aldeko apustu argia egiten da, hau da, ondare eta adierazpen guztiei balioa emateko beharra nabarmentzen da, munduko kultura-aniztasunari ekarpena egiten dioten aldetik. Nabarmena denez, balioespen hori egiteko, adierazle batzuk diseinatu behar dira, aniztasunaren aberastasuna eta haren ekarpen sozial eta ekonomikoa ebaluatu ahal izateko. Alde horretatik, kultura-aniztasunak bizirik iraun dezan bermeak eskatzeaz gain, Konbentzioak balioa ematen dio aniztasunari eta helburu komun bat ezartzen du munduko nazio guztientzat: kultura garapen-estrategiaren erdigunean ezartzea.

Konbentzioak proposatutako eraikuntza globalerako eredu horretatik abiatuta, kultura-politiken-tzako hiru erronka berri definitu dira: **zentralitatea, aniztasuna eta konektibitatea**. Lehenengo biei dagokienez, ikusi dugun bezala, Konbentzioaren arabera, beharrezkoa da kultura-politiken zentralitatea eta kultura-adierazpenen aniztasuna errespetatzea garapen sozial eta ekonomikoa iraunkorra izan dadin.

Konektibitateari buruz, berriz, esan behar da, zeharkako moduan, beste bi erronken azpian dagoela erronka hori. Izan ere, kultura estrategia politikoaren erdigunean badago eta munduaren garapena bada helburua, behar-beharrezkoa da herrialdeen arteko lotura eta elkarrizketa estrategikoa. Lotura diogunean, helburu politiko, sozial eta ekonomikoak partekatzeari buruz ari gara. Eta, noski, lotura horretarako, mundu global honetako errealitate guztiei buruzko informazioa eta ezagutza trukatu behar da.

Kulturaren eta ezagutzaren trukerako merkatu multilateralak definitzea geroz eta beharrezkoagoa da aipatutako konektibitate hori posible egiteko, eta argi eta garbi erantzuten die kultura-ekoizpenaren ezaugarri bereziei. Alde horretatik, eta jabetza intelektualaren errespetua arriskuan jartzen dela onartuz, teknologia berriei esker, batetik, merkataritza-trukerako eredu berriak jarri dira martxan, bestetik, merkatuen

Kultura-berezitasunaren aldeko apustu argia egiten da, hau da, ondare eta adierazpen guztiei balioa emateko beharra nabarmentzen da, munduko kultura-aniztasunari ekarpena egiten dioten aldetik. Balioespen hori egiteko, adierazle batzuk diseinatu behar dira, aniztasunaren aberastasuna eta haren ekarpen sozial eta ekonomikoa ebaluatu ahal izateko

gainjartzea eta fusioa gertatu da merkatu globalean eta, azkenik, kultura-produktuak ekoizteko eta zabaltzeko bitarteko berriak agertu dira. Ekoizpen-eredu eta -bitarteko berri horiek neurketa-parametro berriak sortzeko beharra sortzen diete behatokiei. Merkatutik abiatutako konektibitate horrek iraultza ekonomiko txiki bat eragin du kultura-sektorean. Beraz, hau da erronka: lehendik dauden dinamikak baliatzea garapen-ereduaren estrategia bateratua bultzatzeko.

Bestalde, aniztasunaren eta konektibitatearen arteko harremanari homogeneousotasunaren kontzeptua kontrajartzen zaio. Izan ere, kulturaren ikuspegitik, globalizazio-prozesuak eragin kaltegarriak izan ditzake aniztasunaren biziraupenean. Hau da, konektibitatea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da inbasio-arriskua. Baina, Konbentzioaren ustez, sare globaleko nodulu bakoitzaren sendogarriri gisa ulertu behar da konektibitate hori. Hala, aniztasunaren babesa lotuta dago errealitate kultural bakoitzak kultura globalari egiten dion ekarpena balioestearekin (ondaretik hasi eta espresibitatearaino). Beraz, kulturen arteko elkarrizketaren eredua eskaintzen da, aniztasunetik abiatuta, konektibitatearen erronkari aurre egiteko. Eta erronka horri berdin-berdin erantzun behar zaio gizartearen eta politikaren arloko garapen-ereduen ikuspegitik nahiz ekonomiaren eta merkataritzaren ikuspegitik.

Konbentzioak aniztasunaren aldeko apustua egiten du garapenaren ikuspegi globaletik abiatuta; tokiko gobernuek onartutako Kulturaren Agenda 21ek, bere aldetik, konpromiso globaleko tokiko ekintzaren ikuspegia ematen du. Hau da, bi dokumentuek munduko errealitate kulturalaren ikuspegi bera eman arren, bakoitzak erronka eta erantzun posible batzuetan –nazio mailakoak edo tokikoak, kasuaren arabera– jartzen du arreta. Kulturaren Agenda 21 irakurrita, azpian dauden ideia batzuk esplizituago agertzen dira beste batzuk baino, baina dokumentuaren xedetik oso argi ondoriozta daitezke. Ideia horietako gehienekin bat dator Konbentzioaren testua, lehen esan bezala, beste alor batzuetan arreta jarri arren. Hala, hiru ardatz nagusiren gainean sostengatzen da erreferente horren norabide kontzeptuala. Ardatz horiek kultura-politikaren erronkatzat har daitezke: **espresibitatea, sarbidea eta parte-hartzea**. Aldi berean, ar-

Kulturen arteko elkarrizketaren eredua eskaintzen da, aniztasunetik abiatuta, konektibitatearen erronkari aurre egiteko

datz horiek erronka garrantzitsuak jartzen dituzte, jasotzen dituzten erantzunak ebaluatzeko behar den informazioari dagokionez. Informazio horrek kontuan izan behar ditu, batetik, elementu kuantitatiboak –behatokiek horrelako informazioarekin egiten dute lan gehienbat– eta, bestetik, elementu kualitati- boak –behatokiek gutxiago erabiltzen dituzte horrelakoak. Informazio horren guztiaren bidez, definitu- tako helburuen ebaluazio osatua egin daiteke.

Lehenik eta behin, espresibitatearen erronkak zera eskatzen du: behar diren mekanismoak eskura- tzea, adierazpen artistiko eta sortzaile guztiek –sormena gizakiaren berezko gaitasuntzat hartuz– garatzeko behar dituzten bideak izan ditzaten.

Espresibitatea garatzeko beharrezko baldintza da hezkuntza jasotzeko aukera izatea. Izan ere, hez- kuntzaren bidez jasotzen dira adierazpen artistiko eta sortzailerako behar diren gaitasunak. Eta, gaitasunak jasotzeko aukera izatearekin batera, adierazpen-askatasun artistikoa eta adierazpen-aniztasuna errespetatu behar dira.

Aldi berean, espresibitateak aukera ematen du kultura artekotasuna lantzeko, trukerako eta kultura- adierazpenen aniztasuna ezagutzeko. Halaber, espresibitatearen erronkaren dimentsio gisa eta kultura ar- teko elkarrizketarako tresna gisa ulertu behar dira sortzaileen arteko harreman horizontala, trukerako sareak finkatzea eta kultura digital berriaren adierazpen-bitartekoen aprobetxamendua.

Azkenik, espresibitatearekin lotuta dago aberastasunaren sorkuntza: jabetza intelektualaren esku- bideak errespetatzea eta gaitasun sortzailearen, berrikuntzaren, kapital intelektualaren eta garapen eko- nomikoaren arteko lotura. Beraz, Konbentzioaren eta Kulturaren Agenda 21en helburua da aniztasun espresibo, sortzaile eta kulturala garapen ekonomikoko eredu jakin baten eragile bihurtzea.

Behatokiek asko aztertu dute azkena aipatutako dimentsioa –abertasunaren sorkuntza–, beste batzuekin alderatuta. Oraindik ere zer aztertu asko dago dimentsio horietan. Bestalde, kultura-sektorearen

Espresibitateak aukera ematen du kultura artekotasuna lantzeko, trukerako eta kultura- adierazpenen aniztasuna ezagutzeko

aberastasun-sorkuntzak eztabaida interesgarriak irekitzen ditu sorkuntza hori kontabilizatzeko metodologiei buruz.

Bigarrenik, sarbidearen erronka lotuta dago kultura-politikek kulturarako sarbidea bermatzeko duten gaitasunarekin, beti ere, berdintasunaren eta unibertsaltasunaren printzipioetatik abiatuta. Jakintza eta ezagutza demokratizatzeko behar hori ez da ulertu behar ikuspegi paternalistatik, hau da, ez du esan nahi hiritarra kultura-zerbitzuen jasotzaile denik eta administrazioa igortzaile. Hala, azpiegiturak eta zerbitzuak martxan jartzeaz gain, hiritarra jakintzaren ekoizle eta jasotzaile gisa hartu behar da. Beraz, sarbidea bermatzea da erronka, ezagutzak eta gaitasunak lortzeko edo horiek gozatzeko aukera oro oztopatzen duten trabak kontuan hartuta: batetik, jakintza eta kultura jaso eta sortzea eta, bestetik, edukiak deskodifikatzea, informazio *input*-ek gero eta pisu handiago dutenez.

Populazioaren prestakuntza-maila da kultura jasotzeko oztoporik nagusienetakoa. Hala, kultura jasotzeko mekanismo nagusia hezkuntza dela esan daiteke, kultura kontsumitzeko "gosea" sortzen duelako eta kultura-adierazpenak interpretatzeko aukera eta tresnak ahalbidetzen dituelako. Ildo horretatik, komunikabideek kultura demokratizatzeko duten zeregina gogoratu behar da; izan ere, lan handia egin dezakete kultura-adierazpenak herritarrei gerturatzeko.

Halaber, zirkuitu kulturalak ez baztertzeko, erabiltzaile potentzialei erakutsi behar zaie zirkuitu finkoak eta ulergarriak direla. Alde horretatik, sarbidea bermatzeko behar beharrezkoa da elkarrekin lotura duten baliabideak dituzten ekipamendu-sareak sortzea eta, batez ere, gertuko ekipamenduak bermatzea (liburutegiak, kulturguneak, kultura-etxeak, gizarte-etxeak...). Halaber, beharrezkoa da hizkuntzak eskuragarri izatea. Horrekin lotuta, "zulo digital" kontzeptuaren garrantzia aipatu behar da, hau da, informazio- eta komunikazio-tresna berrien sarbidearen eta sarbide ezaren arteko distantzia.

Kultura jasotzeko mekanismo nagusia hezkuntza dela esan daiteke, kultura kontsumitzeko "gosea" sortzen duelako eta kultura-adierazpenak interpretatzeko aukera eta tresnak ahalbidetzen dituelako

Behatokiiek sarbidearekin lotutako alderdi hauei buruko informazioa izaten dute, batez ere: kultura-azpiegiturak, horietan egiten diren jarduerak eta kultura-praktika eta -ohiturei buruzko inkestak. Tresna horiek oso baliagarriak dira kulturaren sarbideari buruzko azterketara hurbilketa egiteko. Hala ere, Agenda 21ean aipatzen den sarbidearen kontzeptua hainbeste aztertu gabe dauden alderdiekin ere lotu behar da: baldintzatzaile soziokulturalak, sarbidearen baldintzak eta kalitatea edo kulturaren dimentsioa eguneroko ongizatearen sortzaile gisa.

Hirugarrenik, parte-hartzearen erronkak erreferentzia egiten die erabakiak hartzeko prozesuei eta kultura-ekosistemaren barruko eragileen arteko harreman- eta lankidetzeta-sistemei. Azken aldian, eragile publiko eta pribatuen arteko hitzarmen-mekanismo berriak ari dira sortzen, eta, horrekin batera, erakundeen arteko harreman horizontalak eta sareko harremanak finkatzen ari dira. Horren guztiaren eraginez, al-daketa handiak gertatzen ari dira kultura-ekosistema horretako eragile bakoitzaren parte-hartze mekanismoetan, eta prozesuak gero eta konplexuago bihurtzen ari dira. Batetik, estrategia kolektiboetan adostasun handiagoak lortu nahiak eta, bestetik, eragileen arteko sinergiak hobeto aprobe txatu nahiak eragiten du konplexutasun hori.

Bestalde, kultura-sektoreak ezaugarri bereziak ditu parte-hartzearen arloan, eta, ondorioz, erronka horri erantzuteko Arte Kontseiluak sortu dira zenbait lekutan. Kontseilu horiek administrazio publiko-aren eta kultura-sektoreen artean kokatutako erakundeak dira, eta herrialde bakoitzean zeregin eta eskuduntza desberdinak dituzte. Hala, kulturaren arloko parte-hartzeari buruzko eztabaidaren eraginez, kultura-sektoreak gidari lanak hartu ditu kultura-politikak diseinatzeko eta gauzatzeko lan-eredu berriak garatzeko.

Halaber, parte-hartzearen ikuspegitik, gizarteko kohesioaren eta banakoek beren ingurune sozial eta fisikoarekin duten harremanaren zutabeetako bat da kultura. Alde horretatik, globalizazio-prozesua- ren aurrean, gizarte-kohesiorako funtsezkotzat jotzen da komunitate bateko kide izateko sentimendua in-

Azken aldian, eragile publiko eta pribatuen arteko hitzarmen-mekanismo berriak ari dira sortzen, eta, horrekin batera, erakundeen arteko harreman horizontalak eta sareko harremanak finkatzen ari dira

dartzea. Hala, gizarte- eta kultura-ingurune batean parte hartzeak eta ondarea balioesteak sentimendu hori sortu eta indartzen dute, argi eta garbi. Bestalde, kide izateko sentimendua lotuta dago hiritarraren eta espazio publikoaren arteko harremanarekin. Egile askoren ustez, harreman hori pribatizazio- eta estandarizazio-prozesuan murgilduta dago, eta espazio publikoa baztertzen ari da harremanetarako gune gisa. Alde horretatik, parte-hartzearen erronkak prozesu horiei ere erantzun behar die, eta kultura espazio publikoa berreskuratzeko prozesuaren bultzatzaile nagusi bihurtu.

Parte-hartzearen gaia ikerketa-eremu interesgarria izan daiteke behatokiarentzat. Izan ere, aukera ematen du administrazio/hiritar, administrazio/kultura-sektore harreman-dinamikak eta eragileen arteko sareak eta harremanak aztertzeko.

Laburtuz, Konbentzioaren eta Kulturaren Agenda 21en arabera, hauek dira kultura-politikek aurrean dituzten erronka nagusiak: kultura-sektorearen normalizazioa, sektorearen mugak zehaztea, kulturaren zentralitatea garapen-ereduan, kultura-aniztasuna errespetatzea, konektibitate globala, espresibitatea, sarbidea eta parte-hartzea. Behatokiak ekarpen handiak egin ditzakete erronka horiei erantzuteko lanean. Hala ere, beharrezkoa da azalpen bat ematea: estatu bakoitzaren garapen kultural eta ekonomikoaren testuinguruak eta antolaketa politikoko ereduak erabat baldintzatzen du leku bakoitzean erronka horiei erantzuteko modua. Ez da ahaztu behar Konbentzioa edo Kulturaren Agenda 21 ez dela berdin ulertzen mendebaldeko herrialde edo hiri batean –garapen ekonomiko handikoa eta egitura demokratiko finkokoa– eta ekonomikoki azpigaratua dagoen edota garapen demokratikorik ez duen herrialde batean.

Behatokiak kultura-politiketarako tresna gisa

Alderdi hori funtsezkoa da hausnarketa honetarako. Kultura-ingurune heldua sortzeko tresnetako bat da behatokia, kultura-politikek ezarritako erronkei aurre egin ahal izateko balio duena. Erronka horiek ingurune sozial, ekonomiko eta instituzional garatuen testuinguruan ulertu behar dira. Hala, testuin-

Hauek dira kultura-politikek aurrean dituzten erronka nagusiak: kultura-sektorearen normalizazioa, sektorearen mugak zehaztea, kulturaren zentralitatea garapen-ereduan, kultura-aniztasuna errespetatzea, konektibitate globala, espresibitatea, sarbidea eta parte-hartzea

guru horietan, behatokiak funtsezko tresna bihurtzen ari dira ingurune horietako kultura-politiken eraginkortasuna eta inpaktua egiaztatzeko. Ingurune horietan nahikoa azpiegitura dago kultura-politikak garatu ahal izateko.

Erronkei buruz aritzean, nabarmendu dugu erronka horietako bakoitzari hainbat alorretatik erantzun behar zaiola. Behatokiak erantzukizun berezia dute alor horietako bakoitzari buruzko informazioa eta edukiak sortzeko. Argi dago behatokiak funtzioa ez dela erronka horiei erantzutea, baizik eta kultura-politiken inpaktua –horiek diseinatzen dira erronkei erantzuteko– ebaluatzeko tresnak jartzea. Behatokiak eta kulturari buruzko ezagutza sortzeko bestelako espazioei esleitutako zeregin horren eraginez, kausa-efektu posizio bikoitzean kokatu dira historikoki. Alegia, batetik, eztabaidak bultzatu eta sortzen dituzte eta, bestetik, eztabaida horien ondorioz, kulturari buruzko ezagutza behatzeko eta sortzeko duten zeregina moldatzen dute.

Kultura-sektorearen kontzeptuzko mugei buruzko eztabaidan behatokiak protagonismo argia izan dute. Lehenago ikusi bezala, herrialde edo lurraldeen errealitate kulturalari buruzko informazioa jasotzea da kultura-behatokiaren helburua. Halaber, azaldu dugu sail eta institutu estatistikoak hazi eta espezializatean sortzen direla behatoki horietako asko, eta, beraz, datu estatistiko asko sortzen dutela –gutxienez, lehenengo urteetan. Bestalde, informazio hori egitura sektorialeko –kultura-sektoreei– eta, zeharka, kontsumo- eta ohitura-elementuei eta gastu publikoari buruzkoa izaten da.

Behatokiak sorkuntza oso lotuta dago informazio kuantitatiboaren behararekin eta kulturaren sektore-egituraren ikuspegiarekin, eta bultzada handia eman die zerbitzu horiei eta kulturaren hainbat alderdiri buruzko informazio estatistikoari. Hain zuzen, esparru estatistikoak zehaztean, kultura-sektorearen mugei buruzko eztabaida piztu da, eta, aldi berean, erantzunak eman zaizkio eztabaida horri. Baina horrek zailtasunak sortu ditu kulturaren eta kultura-politikaren azterketan, eztabaiden norabidea eta behatokiak egokitze-gaitasuna ez baitira beti berdinak izan. Hala eta guztiz ere, eztabaida horien konplexutasunaren eraginez, behatokiak gero eta tresna konplexuagoak bihurtu dira, eta, beraz, egokitzen joan dira.

Batetik, eztabaidak bultzatu eta sortzen dituzte eta, bestetik, eztabaida horien ondorioz, kulturari buruzko ezagutza behatzeko eta sortzeko duten zeregina moldatzen dute

turalari buruzko begirada jakin bat izatea eskatzen du. Eta, hain zuzen, puntu horretan, behatokiak lehenengo mailako eragileak dira, errealitate kulturala eta kultura-politikak behatuz lortzen den informazio berria jasotzeko, tratatzeko eta sortzeko lanean. Hala, espresibitateari, sarbideari eta parte-hartzeari buruzko jarduerak garatzeko konpromisoa izateak errealitatearen aurreko begirada analitiko jakin bat definitzea eskatzen du.

Estrategia politiko bat, gizarteko kultura-ereduaren horizonte ideal bat zehaztuz, modu argian defini daitezke estrategia honetako helburuen betetze-mailari buruzko informazioa emango duten elementu nagusiak. Berriz ere, hiru erronka horien edukia ikusirik, errealitate kulturala aztertzeke beharrezkoa dirudi teknika kualitatiboak erabiltzea. Izan ere, nahikoak al dira artistei, konpainiei, ikuskizunei... buruzko errolak espresibitatea aztertzeke? Nahikoa al da kultura-ohitura eta -kontsumoari buruzko informazioa kulturaren sarbidea aztertzeke? Nahikoa al da kulturaren arloko entitate eta diru-laguntzen kopuruari edo kultura-industrien ekarpen ekonomikoari buruzko datuak izatea parte-hartzea aztertzeke?

Erantzuna argi dago; baina ez da ahaztu behar datu horiek ere garrantzitsuak direla eta erantzun batzuk ematen dituztela. Hori dela eta, kulturaren eta kultura-politikaren azterketari aplikatutako ikerketa-teknika berriak garatu behar dira. Hain nabarmenak eta kuantifikagarriak ez diren alorrak sakontzeko adierazle subjektiboak behar dira (adibidez, hiritarrek kulturari buruz duten pertzepzioa edo esperientzia). Finean, ikuspegi analitikotik diseinatutako teknikak behar dira, estrategia politiko jakin bati eta kultura-politikak ezarritako erronkei emandako erantzunari buruzko ondorioak ateratzen lagunduko dutenak.

Beraz, behatokiak eta informazio-sistemek ekarpen aberatsa egin diete kulturalari eta kultura-politikari buruzko eztabaidei, eta eragin handia izan dute eztabaida horietan. Halaber, informazioa biltzeko eta eduki berriak sortzeko duten zeregina ere erabakigarria izan da kultura-politikak diseinatzeko orduan. Baina, gaur egun, erreferente politiko-kontzeptual berriak agertzen eta lan-horizonte berriak sortzen ari dira, eta behatokiak arlo horietan ere zeregin garrantzitsua izan dezakete, eta izan behar dute. Hala, beha-

Behatokiak eta informazio-sistemek ekarpen aberatsa egin diete kulturalari eta kultura-politikari buruzko eztabaidei, eta eragin handia izan dute eztabaida horietan

turalari buruzko begirada jakin bat izatea eskatzen du. Eta, hain zuzen, puntu horretan, behatokiak lehenengo mailako eragileak dira, errealtate kulturala eta kultura-politikak behatuz lortzen den informazio berria jasotzeko, tratatzeko eta sortzeko lanean. Hala, espresibitateari, sarbideari eta parte-hartzeari buruzko jarduerak garatzeko konpromisoa izateak errealtatearen aurreko begirada analitiko jakin bat definitzea eskatzen du.

Estrategia politiko bat, gizarteko kultura-ereduaren horizonte ideal bat zehaztuz, modu argian defini daitezke estrategia honetako helburuen betetze-mailari buruzko informazioa emango duten elementu nagusiak. Berriz ere, hiru erronka horien edukia ikusirik, errealtate kulturala aztertze beharrezkoa dirudi teknika kualitatiboak erabiltzea. Izan ere, nahikoak al dira artistei, konpainiei, ikuskizunei... buruzko errolak espresibitatea aztertze? Nahikoa al da kultura-ohitura eta -kontsumoari buruzko informazioa kulturaren sarbidea aztertze? Nahikoa al da kulturaren arloko entitate eta diru-laguntzen kopuruari edo kultura-industrien ekarpen ekonomikoari buruzko datuak izatea parte-hartzea aztertze?

Erantzuna argi dago; baina ez da ahaztu behar datu horiek ere garrantzitsuak direla eta erantzun bartzuk ematen dituztela. Hori dela eta, kulturaren eta kultura-politikaren azterketari aplikatutako ikerketa-teknika berriak garatu behar dira. Hain nabarmenak eta kuantifikagarriak ez diren alorrak sakontzeko adierazle subjektiboak behar dira (adibidez, hiritarrek kulturari buruz duten pertzepzioa edo esperientzia). Finean, ikuspegi analitikotik diseinatutako teknikak behar dira, estrategia politiko jakin bati eta kultura-politikak ezarritako erronkei emandako erantzunari buruzko ondorioak ateratzen lagunduko dutenak.

Beraz, behatokiak eta informazio-sistemek ekarpen aberatsa egin diete kulturalari eta kultura-politikari buruzko eztabaidei, eta eragin handia izan dute eztabaida horietan. Halaber, informazioa biltzeko eta eduki berriak sortzeko duten zeregina ere erabakigarria izan da kultura-politikak diseinatze orduan. Baina, gaur egun, erreferente politiko-kontzeptual berriak agertzen eta lan-horizonte berriak sortzen ari dira, eta behatokiak arlo horietan ere zeregin garrantzitsua izan dezakete, eta izan behar dute. Hala, beha-

Behatokiak eta informazio-sistemek ekarpen aberatsa egin diete kulturalari eta kultura-politikari buruzko eztabaidei, eta eragin handia izan dute eztabaida horietan

tokiek erronka horiei erantzun behar diete, batetik, kultura-politikak bideratzeko elementuak emanez eta, bestetik, kulturak gizartearen garapenari egiten dion ekarpena ikusaraziz, eta ondorioz, balioetsiz. Dagoeneko lehenengo pausoak eman ditugu bide horretan, baina oraindik ere bide luzea dugu aurretik.

Erreferente politiko-kontzeptual berriak agertzen eta lan-horizonte berriak sortzen ari dira, eta behatokiek arlo horietan ere zeregin garrantzitsua izan dezakete, eta izan behar dute

KASU BATEN AZTERKETA SAKONA:

Quebec-eko Kulturaren eta Komunikazioen Behatokia martxan jartzearen ondorioak

Serge Bernier, kargua uztera doan OCCQko zuzendaria

Sarrera

Sei urte baino gehiago igaro dira Quebec-eko Kulturaren eta Komunikazioen Behatokia (OCCQ) martxan jarri zenetik. Horrek aldaketa garrantzitsuak eragin ditu Quebec-eko kultura-arloan. Bi kategoria handi hauetan sailka ditzakegu inpaktu horiek: batetik, OCCQ behatokiak kultura-arloan izan duen eragina: kultura-arloa egituratzeko eta horretan kohesioa bermatzeko elementu bilakatu da; bestetik, estatistika-sistema nazionalan izan duen inpaktua: kulturak bere lekua hartu du.

Azterketa hau egiteko, zuzendaritza-kontseiluko kideei eta OCCQko taldekideei egin diet kontsulta. Konturatu naiz —eta interesgarria iruditu zait— bi inpaktu-kategoria horiekin bat datozela bildu ditudan informazio guztiak. Beraz, badirudi Estatuak eta kultura-sektorearen ordezkariak ikuspegi bera dutela OCCQren inpaktuari buruz.

OCCQ behatokia, kultura-arloa egituratzeko eta horretan kohesioa bermatzeko elementua

Sei kide publikok finantzatzen dute OCCQ, eta behatokiaren zuzendaritza-kontseiluan daude. Zortzi kontsulta-batzorde ditu behatokiak, eta horien presidentek ere zuzendaritza-batzordean daude. Azken horien eginkizuna da ingurunearen beharren berri ematea kontseiluko kideei. Batzorde horretan, adostasuna da erabakiak hartzeko prozedura. Hortaz, lehenago gutxitan (edo inoiz ez) elkartzen zen jendea hurbiltzen lagundu du OCCQk (Estatuaren ordezkariak, kultura-arloetakoak, udaletako kultura-esparrukoak, unibertsitateko kultura-ikerketak kuantitatiboa egiten dutenak). Behatokiak sare informal bat sortu du azterketak egiteko, gaiez hausnartzeko eta jakintzak hedatzeko. Horri esker, erakunde eraginkorra da dagoen lanean.

Badirudi Estatuak eta kultura-sektorearen ordezkariak ikuspegi bera dutela OCCQren inpaktuari buruz

Quebec-eko Estatistika Institutuan (ISQ) du egoitza OCCQk, Quebec-eko Gobernuaren estatistika-erakunde nagusia, hain zuzen ere. Hori dela eta, eremu neutroa da behatokia, inguruneak eragiten ez dion leku bat, alegia. Behatokia ez dago Estatu kulturalaren lerro hierarkikoan (ministerioa, elkarteak); horren ondoan baizik. Independentea da, kultura-arlo guztiei garrantzi bera ematen saiatzen da, eta ahalik eta garbiena lan egiten du.

Hiru eginkizun hauek ditu OCCQk: estatistikak egitea, ikerketari laguntzea eta zaintza. Erakundearen lehen lana izan zen ziurtatzea eginkizun horiek bete genitzakeela, inguruneak zituen premiak eta aurrekontu-arazoak kontuan hartuta.

Behatokia sortu eta segituan, egituratze-lan batzuei ekin genien. Aipagarriak dira, besteak beste, koadro kontzeptual bat egin genuela gure behatze-eremua mugatzeko eta sailkapen estatistiko bat, eragiketarako egituratzeko. Halaber, inguruneak zituen lehenasunezko premiei erantzuteko, inkesta estatistiko batzuk egiten hasi ginen produktu kultural nagusien merkatuei buruz, eta oraindik ere egiten dira. Lehenasunezko behar horiek (informazio fidagarria izatea eta azkar produzitzea, erabakiak hartzen laguntzeko) asetzeko ekimenari esker, serie estatistiko fidagarriak eta nahikoa luzeak ditugu gaur egun. Horren ondorioz, gertatu diren aldaketak azter ditzake orain behatokiak, joera jakin batzuk erakutsi eta kultura-arlo guztietarako baliagarriak diren adierazleak sortu.

Erabilera ere aldatu egin da. Gaur egun, kalitate oneko informazio kuantitatiboa baliatzen da eztabaidetan. Kazetariak ere maiz erabiltzen dituzte OCCQren datuak. OCCQk argitaratutako datuak komunikabideetan agertzea lagungarria da Quebec-eko kulturaren irudikapen publikoa aldatzeko. Prentsak plazaratzen dituen kulturari buruzko zenbakizko datuek kultura legitimatzen dute, bai eta kulturaren eginkizuna eta arlo ekonomikoan duen garrantzia ere.

OCCQk lekua egin dio kulturari estatistika-sistema nazionalan

Lehenik eta behin, kultura-jarduerak eta komunikazioak sailkatzeko sistema bat (*Système de classification des activités de la culture et des communications*) sortu zuen OCCQk, eta horixe da eragiketa es-

Behatokia ez dago Estatu kulturalaren lerro hierarkikoan (ministerioa, elkarteak); horren ondoan baizik. Independentea da, kultura-arlo guztiei garrantzi bera ematen saiatzen da, eta ahalik eta garbiena lan egiten du

tatistiko guztien oinarria. Saillapen ekonomiko estandarrak ez dio erantzuten eragile kultural askoren errealtateari. Beraz, estatistika ofizialek ez dituzte asetzen sektore horien beharrak. Kultura-saillapenean lekua aurkitu dute, besteak beste, zenbakizko eduki interaktiboen eremuak eta artista-zentro autogestio-natuek. Informazio estatistikoaren balioa begien bistakoa da oinarri dituen kontzeptuen eta definizioen inguruan adostasun handia dagoenean. OCCQren saillapen-sistemari, eta, beraz, bere ekoizpen estatistikoari esker, etengabe ikusten da informazio hori egokia den edo ez.

Denbora luzea behar izan genuen sistema sortzeko, eta ahalegin handia egin behar izan zuten kultura-arloetako ordezkariak. Zehazki, beren alorrari sakon begiratu behar izan zieten ordezkariak, eta ingurune eragileak kontsultatu. Horri esker, elkar ulertu dute denek. Gero, saillapen-sistema osoari oniritzia eman zion zuzendaritza-kontseiluak. Hartara, arlo batzuetako eragileek beste arloen benetako egoera eza-gutzen dute.

OCCQ erreferentzia bihurtu da Quebec-i buruzko estatistika kulturalen arloan. Hain zuzen, horretara bideratuta dago erakundearen hedatze-politika. Hasteko, behatokiaren ekoizpena denon eskura dago aldi berean, eta neutraltasuna ziurtatzen du horrek. Gainera, kide finantzarioei buruzko informazio administratiboak biltzen ditu OCCQk; gero, horien estatistika ofizialak egiten ditu, eta bere web orrian plazaratzen ditu. Kontsultak egiteko leku paregabe hori leiho garrantzitsua bilakatu da kultura-arloan diharduen jendearentzat. Hala, datu fidagarrietan oinarrituta hartzen dituzte erabakiak. OCCQ behatokia sortu aurretik, kultura-arloan zihardutenek berek ekoitzi behar zuten eguneroko kudeaketa-lanetarako eta dosierrak defendatzeko behar zuten informazioa. Zaila eta garestia iruditzen zitzaion askori lan hori, eta ez zituzten beti lortzen espero zituzten emaitzak. Inguruneak orain badu tresna bat kultura-arloek bakarka edo taldean egin ezingo zuketena.

Azkenik, inkesten erantzun asko jaso zirelako dira batik bat fidagarriak OCCQren datuak. Kultura-arloko elkarteek ere laguntza handia ematen dute, kideek parte hartzen baitute. Emaitzak oso fidagarriak izateak eta estatistika-legearen aginduak bete behar izateak (objetibotasuna, neutraltasuna, inpartzialta-

OCCQ erreferentzia bihurtu da Quebec-i buruzko estatistika kulturalen arloan. Hain zuzen, horretara bideratuta dago erakundearen hedatze-politika. Hasteko, behatokiaren ekoizpena denon eskura dago aldi berean, eta neutraltasuna ziurtatzen du horrek

sun, konfidentziasuna), konfiantza ematen die inkestak erantzuten dituztenei. Hori dela eta da erantzunkopurua handia.

Ondorioa

Modernotasun pentsakorraren aroan dago Quebec kulturala, eta OCCQ behatokiak baliabideak ematen ditu arlo horretako jardueri buruz gogoeta egiteko. Behatokiari esker, kultura-arloak hobeto ulertzen du bere bilakaera eta dinamika, eta zehaztasun handiagoz koordinatzen ditu beharrak eta esku-hartzeak. Oinarrizko estatistika deskribatzailearen egoera gainditu du dagoeneko, eta azterketak eta ikerketak egiten ditu orain. Kultura-erabakiak hartzen dituzten maila guztietako jendeari hausnarrarazten diete azterketa horiek. Gaur egun lehia handia dago fondo publikoak eta babesletza pribatuak lortzeko; bada, orain, beste ekonomia-sektoreek bezalako tresnak balia ditzakete ingurune kulturalean dihardutenek. OCCQ aurrerapauso garrantzitsua da Quebec-eko kultura-arloaren egituraketan.

**Behatokiari esker,
kultura-arloak hobeto
ulertzen du bere
bilakaera eta dinamika,
eta zehaztasun
handiagoz
koordinatzen ditu
beharrak eta esku-
hartzeak**

**II. KULTURAREN
EUSKAL
BEHATOKIA**

II. KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA

1. KULTURAREN EUSKAL PLANA ERAGILE GISA

Euskal kulturaren errealitatea behatzeko kontzeptuzko esparrua

EAeko kultura-politikak erronka garrantzitsuei egin behar die aurre, baina, aldi berean, ezaugarri bereziak dituen errealitate kulturala du, eta erronka horiei ere aurre egin behar die. Alde horretatik, Kulturaren Euskal Planean (KEP) egindako hausnarketa eta handik ateratako ondorioak lehen mailako tresnak dira EAeko kultura-politikaren erronkak definitzeko, eta, beraz, behatokiaren ikuspegi analitikoaren norabidea zehazteko.

KEPean jasotako erronka guztiak ez dira zehaztasun-maila berekoak, baina, oro har, bi ardatz nagusi daudela esan daiteke, elkarrekin lotutakoak eta gainerakoen oinarrian daudenak:

Lehenik eta behin, eraikitzen ari den kultura izatea da euskal kulturaren ezaugarri nagusienetakoa. Berez, esan daiteke kultura guztiak eraikuntza-prozesuan daudela etengabe. Baina, testuinguru eta eboluzio historikoen eraginez, ezaugarri hori bereziki nabarmena da euskal kulturaren kasuan. Hala, euskal kultura kultura minorizatua izan da, eta, gaur egun, gero eta gehiago garatzen joateko bidea eraikitzen ari da. Eraikuntza horrek ahalegin berezia eskatzen du, eta, horretarako, administrazioen laguntzaz gain, kultura-sektore osoak eta herritarrek prozesu horren alde egin behar dute, pausoz pauso egindako lorpenekin zimentuak jartzen joateko. KEPean adierazten den bezala, babestu eta sustatuko duen estatu-naziorik gabeko kultura izateak ahalegin gehigarria eskatzen du. KEPren arabera, estatu-naziorik gabeko kulturak ez ditu estatuak kultura sortzeko dituzten automatismoak. Beste modu batera esanda, ez da onargarria norbere kulturari buruzko (ustezko) interesik eza agertzea; kultura menderatzaileek, kultura sortzeko erakunde sotilagoak –baina indartsuagoak– dituztenek, bakarrik dute aukera hori.

Eraikitzen ari den kultura izatea da euskal kulturaren ezaugarri nagusienetakoa

Bigarrenik, eraikuntza-eredu propioaren ideiarekin lotuta dago integrazioaren kontzeptua. Kulturak gizartearen kohesiorako elementua izan behar du, hau da, adierazpenen aniztasuna integratzen lagundu behar du, kultura-bizikidetzeta eta -trukea nagusi den ingurunean. Eraikitzen ari den kultura babesteko beharraren eraginez, ez da eredu homogeneo eta itxi bat sortu behar. Gizartearen errealitateak kultura-eredu integratzailea eskatzen du, izan nahi dena islatuko duena, izate konplexu eta askotariko batetik urrundu gabe.

Laburtuz, kultura integrazioarako tresna nagusietako batean bihurtu behar da, kulturaren eraikuntza-eredu propio baten bidez. Euskal kulturaren garapenak bi erronka horiei erantzun behar die. KEPak bi erronka horiei erantzuteko lan-ildoen bidea zehazten du. Eta horrek guztiak Kulturaren Euskal Behatokiari eragiten dio, eta eragin behar dio. Behatokia nazioarteko beste testuinguru batzuetako erakundeen antzekoa da, baina errealitate eta erronka oso zehazteta egokitua dago. Horretarako, Behatokiak arreta handia jarri behar die, batetik, euskal kulturaren normalizazioari (ekoizpenaren, kultura-jardueraren, esportazioaren... ikuspegitik) eta, bestetik, gurea bezalako gizarte konplexu eta anitzean gertatzen diren integrazio-fenomenoei.

Kulturaren Euskal Behatokia sortzeko behar den bultzada

2004ean Kulturaren Euskal Plana egin eta onartzean ekin zion lanari Kulturaren Euskal Kontseiluak. Hala, datozen urteetan euskal kulturak izango duen etorkizuna bideratuko duten prozesu eraldatzaileak sortu ziren plan horren bidez.

Plana egiteko prozesua parte-hartzailea eta irekia izan zen: 300 pertsona ospetsuk baino gehiagok parte hartu zuten hausnarketan, eta kultura-subjektuaren kontzientzia indartzen lagundu zuen bere zabalatasun eta konplexutasun osoan. Euskal kulturaren sistemari (sistema horren azpisistemak eta sektore-esparruak) eta kultura-balioaren kateari (kate horren mailak eta eragileen profilak) buruzko ikuspegi globala ematen du Planak.

Kultura integrazioarako tresna nagusietako batean bihurtu behar da, kulturaren eraikuntza-eredu propio baten bidez

Kultura komunitateen bizitzeko modu gisa ulertzen da –eta horrek sortzen du identitatea–, eta ikuspegi zabal horretatik abiatuta, alderdi hauek azpimarratzen dira: kulturak kohesiorako eta gizarte aurreratu baten garapenerako elementu gisa duen balioa, kulturaren balio ekonomiko geroz eta handiagoa eta kultura-sistemaren garrantzi instituzionala elementu sozializatzaile gisa, hezkuntza- eta komunikazio-sistemarekin batera.


Eta eraldatzeko bokazio hori oinarri gisa hartuta, KEParen eragile publiko eta pribatuek adostasuna agertu zuten euskal kulturaren ikuspegi estrategikoari, lehenetasunei eta jarduera-irizpideei buruz. Hala, helburu eta lan-dinamika batzuk jarri ziren martxan, baina horrek gutxieneko informazio- eta ezagutza-esparru bat eskatzen zuen.

Hain zuzen, egindako diagnostiko partekatu horretan, alderdi honi buruz azaldutako adostasuna azpimarratu behar da: euskal kulturaren errealitateari buruzko informazio sistematikoa eta kalitatezko informazioa hobetzeko beharra, Planaren jarduera eraldatzailearen baldintzatzaile estrategiko gisa.

Diagnostiko partekatuaren elementu hori honela islatu zen:

- proposamenezko alderdietan, kulturaren egoerari eta eboluzioari buruzko informazio- eta segimendu-sistema bat sortzeko aginduaren bidez (Plana osatzen duten hamar ardatz estrategikoe-tatik bigarrena).
- eta antolakuntza- eta egituraketa-alderdietan, Kulturaren Euskal Behatokia sortuz, informazioaren eta ezagutzaren bidez kultura-sistema guztia elikatzeko ardura duen erakunde gisa. Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien, udalen eta Eustat-en arteko zerbitzu koordinatua da, informazioaren fluxu erregularra eta erkagarria ziurtatzen duena, euskal kulturarekin lotutako azterketak eta ikerketak egiten dituena eta Planaren ebaluazioa eta segimendua egiten duena.

KEParen eragile publiko eta pribatuek adostasuna agertu zuten euskal kulturaren ikuspegi estrategikoari, lehenetasunei eta jarduera-irizpideei buruz



Informazioa eta ezagutza (edukia) + Behatokia (kudeaketa-tresna), hori da KEPak bultzatutako oinarrizko binomioa, euskal kultura-sistemaren erronkei eta proiektuei erantzun ahal izateko

Informazioa eta ezagutza (edukia) + **Behatokia** (kudeaketa-tresna), hori da KEPak bultzatutako oinarrizko binomioa, euskal kultura-sistemaren erronkei eta proiektuei erantzun ahal izateko.

Sistemarentzako oinarrizko erregaia edo lehengaia –informazioa eta ezagutza– sistema guztian sortzeko eta banatzeko tresna moduko bat da: dimensio sektorial edo produktiboa (azpisisistemak), gizartearen edo hiritarren dimentsioa eta dimensio instituzionala.

2. AZTERKETA SEKTORIALAK: BEHAKETAREN LEHEN FASEA

Plana onartu zenez geroztik, Kultura Saila azterketa sektorialak egiteko lanean murgilduta egon da. Behaketaren eta ezagutza-sorkuntzaren lehenengo fasearen barruan egin dira azterketa horiek. Hala hainbat ekimen jarri dira martxan ikuspegi, metodologia eta emaitza desberdinak erabiliz, eta bildutako informazio guztia behatokiaren lehenengo lan- eta hausnarketa-materiala bihurtu da.

Kulturaren hainbat alorri buruzko berariazko azterketa analitiko-deskribatzaileak egin dira: arte plastikoak eta ikusizkoak, industria fonografikoa, artisau-industriak, musika, antzerkia eta dantza (ikus 2. eranskina: *Sektore-hurbilketen katalogoa*). Proiektu horien bidez, lehendik zegoen informazio-falta osatu da –batzuetan bestetan baino gehiago. Hala, proiektu horietan, lehenik eta behin, sektore bakoitzaren egoera deskribatzen da; sektorearen, bere dinamikaren eta bizi duen unearen karakterizazioa egiten da; eta martxan jar daitezkeen jarduera-lerroak eta etorkizuneko proposamenak ere egiten dira.

Proiektu horien osagarri gisa, *Kultura-azpiegituren mapa* egiteko lehenengo hurbilketa ere egin da. Mapa hori egiteko mugak izan arren, kapitulu horretara hurbiltzeko lehenengo ahalegina da.

Azterketa sektorial horiez gain, KEPean jasotako beste ekintza batzuk bideratzeko ekintzak ere egin dira: kultura-edukien digitalizazioa, ondare etnografikoari buruzko inbentarioa eta argitaletxeen euskarazko ekoizpena aztertzeke proposamena kasu.

Azkenik, lehendik zegoen informazioak bideragarri egiten zuen alorretan, berariazko proiektuak egin dira (adibidez, *Irakurketa-mapa*, egoeraren diagnostikoa egiteaz gain, EAEko liburutegi publikoen sarea perfektionatzeko tresna izan nahi duena).

Atal honetan ez dugu azterketa bakoitz xehe mehe azaldu nahi –sektore bakoitzari buruzko laburpen-fitxak daude eranskinean–, baizik eta azterketa sektorial horiek abiapuntu gisa egiten duten ekarpena

Azterketa sektorialen osagarri gisa, *Kultura-azpiegituren mapa* egiteko lehenengo hurbilketa ere egin da. Mapa hori egiteko mugak izan arren, kapitulu horretara hurbiltzeko lehenengo ahalegina da

nabarmendu nahi dugu, eta, aldi berean, informazioaren eta estatistikaren aldetik dauden oztopoak azaldu nahi ditugu.

Hala, azterketa horiek interesgarriak dira behatokiaren eraikuntza-prozesurako tresnak diren aldetik, batetik, egoerari buruzko deskribapena egiten dutelako eta, bestetik, dauden informazio-gabeziak agerian uzten dituztelako. Hala eta guztiz ere, azterketa horien planteamendua oso urrun dago ikuspegi estatistikoko behaketa-sistema izatetik. Kontzeptuzko, metodologiazko, denborazko... heterogeneotasuna falta zaie, eta informazioaren kalitatearen eta estalduraren aldetik era askotako emaitzak ematen dituzte. Beraz, azterketa horien planteamendua behaketaren lehenengo fasetzat hartu behar da, sistema orokor eta formalizatu baterako trantsizio partzelatu modura. Sistema orokor eta formalizatu horren bidez, informazio- eta ezagutza-tresna homogeen, konparagarri eta sinergikoak sistematikoki planteatu, koordinatu eta integratu ahal izango dira. Informazio-sistema horretan, azterketak ez dira hainbeste oinarritzko informazio-iturria, baizik aztertze eta sakontze tresna, hau da, informazioaren bidez balioa sortze tresna.

Azken finean, azterketa horien bidez, sektore bakoitzaren errealitateari buruzko hurbilketa partzialak eta askotarikoak egin dira; kulturaren kaleidoskopioaren ispilu hasiberriak, oraindik lotu gabe daude. Beraz, hau da aurrean dugun erroka: irudiak integratu eta biderkatuko dituen informazio-sistema eraikitzea, eta interpretaziorako eta ezagutzarako aukerak optimizatuko dituzten sinergiak sortzea.

Hau da aurrean dugun erroka: irudiak integratu eta biderkatuko dituen informazio-sistema eraikitzea, eta interpretaziorako eta ezagutzarako aukerak optimizatuko dituzten sinergiak sortzea

3. KULTURARI BURUZKO INFORMAZIO-SISTEMAREN EGOERA ETA ERRONKAK

Euskal Kultura-Sistema eremu edo azpistema ezberdinetaz osotua dago: kultura-ondarea; adierazpen artistikoa; kultura-industriak; eta komunikabideak, zeharkako beste ikuspegien batzuen artean.

Ondare azpistemaren barnean museoak, artxiboak, liburutegiak eta ondare etnografikoa, arkeologikoa, artistikoa, arkitektonikoa, industrialia eta abarri dagozkien zerbitzuak biltzen dira.

Adierazpen artistiko edo arteen azpistemak antzerkia, dantza, musika, literatura, bertsolaritza eta ikusizko arteak barne hartzen ditu.

Kultura-industriek eremu editoriala, fonografikoa, ikus-entzunezkoa eta multimedia hartzen dituzte bere baitan. Komunikabideek kultura-industrien artean esparru berezia osatzen dute.

Zeharkako elementuen artean kultura-ohiturak, kontsumo eta praktikak; finantziazioa eta kultura-gastua; euskara; enplegua; kultura digitala; eta prestakuntza eta heziketa aipa daitezke.

Azpistema bakoitzaren deskribapen orokorra egin ondoren, azpistema horietako bakoitzari buruzko kultura-informazioaren egoera aztertuko dugu. Hala, bakoitzaren berezitasun eta arazoak azalduko ditugu, eta, horrez gain, gaur egun ditugun zifra/informazio batzuen oinarritzko taula emango dugu. Horrekin ez dugu zifren analisia arretagune nagusi bihurtu nahi, baizik eta sektore bakoitzeko informazio eta estatistikaren arloko ezaugarriak eman nahi ditugu: balibideak, gabeziak, konplexutasunak, kalitateak, interpretazio-aukerak...

3.1. ONDAREA

Gaur egun, euskal kulturaren sistemari buruzko datu estatistiko gehienak ondareari buruzkoak dira. Ondarea aztertzeko informazio-sistema homologatuak eta aldizkakoak erabili dira partzialki, baina alor horretan ere askotariko egoerak daude.

Ez dugu zifren analisia arretagune nagusi bihurtu nahi, baizik eta sektore bakoitzeko informazio eta estatistikaren arloko ezaugarriak eman nahi ditugu

Hori horrela izatea ez da kasualitatea. Ondarearen barruan daude liburutegiak, museoak, artxiboak eta ondarezko ondasunen erregistro eta inbentario administratiboa. Horiek guztiek gure gizartearen “kultura-biltegia” osatzen dute, hau da, ezagutzaren eta kulturaren adierazpen artistikoen sortze-prozesuaren azken geltokia (literatura, pintura, eskultura, musika-sorkuntza...)

Kultura-jalkinaren biltegi-izaera horrek balio kolektiboa ematen dio ondareari, eta interes bereziko eta lan publikoko eremu bihurtzen du. Eta, horrez gain, ondareak egonkortasuna eta ikusgarritasuna ematen dizkio kulturari, eta beraz, behaketa-objektu gisa, segimendua egiteko eta informazioa biltzeko lana errazten du.

Ondarearen sektoreak beste sektore batzuekin alderatuta dituen ezaugarri berezien erakusgarri dira estatu mailako estatistikak ere. Estatistika horiek lan egiteko bide bat irekitzen dute, eta homologatzeko eta alderatzeko esparru bat eskaintzen dute.

Dena den, egoera orokor horren barruan, hiru egoera eta erronka desberdin bereizi behar dira. Hauek dira bereizi beharreko hiru alorrak: lehenik, liburutegiak, bigarrenik, museoak, hirugarrenik, artxiboak eta, laugarrenik, ondarezko ondasunak.

3.1.1. Liburutegiak

Deskribatutako testuinguruan, liburutegiak –museoekin batera–, dira euskal kultura-sistemaren abangoardia estatistikoa:

*EAEko udal liburutegien estatistika*⁴ urtero egiten da 2001az geroztik, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Liburutegi Zerbitzuak sustatuta. EAEko udal liburutegi publikoek emandako datuekin egiten da, zerbitzuak berak liburutegiei banatzen dien inkesta baten bidez. Estatistikaren adierazleek alderdi hauei buruzko ezaugarriak deskribatzen dituzte: azpiegiturak eta ekipamenduak, liburutegietako jarduera, erabiltzaileak, langileak, finantziarioa eta gastuak.

4. Azken edizioan Foru aldundietako liburutegiak barne hartzen ditu

Kultura-jalkinaren biltegi-izaera horrek balio kolektiboa ematen dio ondareari, eta interes bereziko eta lan publikoko eremu bihurtzen du

Serieen jarraitutasunari, informazioaren kalitateari, adierazleen arteko harreman konplexuari eta Kultura Ministerioaren estatistikekin eta beste iturri batzuekin alderatzeko aukerari esker, EAEko kulturaren arloko eragiketa estatistiko finkoenetakoa da.

3.1.2. Museoak

Liburutegien egoeraren antzera, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Museoen Zentroak *Euskadiko museoak eta bilduma museografikoak* izeneko lan estatistikoa egiten du bi urtean behin, 2002tik hasita. Kultura Ministerioak 2000az gozotik kudeatzen duen antzeko eragiketa batekin koordinatuta dago.

Liburutegien kasuan bezala, estatistika horrek nahikoa informazio ematen du sektorearen egoera nolakoa den ikusteko: ezaugarri orokorrak, azpiegiturak eta ekipamenduak, jarduera, langileak, erabiltzaileak/bisitariak eta datu ekonomikoak, besteak beste.

Euskadiko museoei buruzko 7/2006 Legeak arautzen du EAEko museo-ondarea. Lege horrek establezimenduen kategorizazioari eta erregistroari buruz ezartzen dituen arauak eragina izango dute gaur egun martxan dauden estatistiketan, kontzeptuzko ikuspegitik eta emaitzen ikuspegitik.

3.1.3. Artxiboak

Ondarearen dinamika estatistikoaren barruan, artxiboak dira hurrengo erronka. Azken urte hauetan, aldaketa handiak ari dira gertatzen euskal dokumentu-ondarean, tokiko, foru-aldundietako eta gobernuko administrazioek egindako lanaren eraginez. Hala, aurrerapen garrantzitsuak egin dira kontserbazioaren alorrean, funtsen tratamenduan eta zabalkundean. Hala ere, estatistikari dagokionez, ez dago sektorearen egoera, dinamika eta bilakaera modu erregularrean erakusten duen informaziorik.

Ezaugarri horrek artxiboen egoera konplexua eta askotarikoa islatzen du, dudarik gabe; izan ere, tipologia eta titulartasun askotakoak daude (udal artxiboak, lurraldekoak, estatukoak, elizakoak, enprese-

Aldaketa handiak ari dira gertatzen euskal dokumentu-ondarean, tokiko, foru-aldundietako eta gobernuko administrazioek egindako lanaren eraginez

nak, ospitaleenak, pertsonenak, familienak...). Irargi Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroaren arabera, 1.785 artxibo-zerbitzu (1.038 publikoari irekiak) eta 2.933 artxibo-funts daude EAEn. Baina, praktikan, "artxibo" kontzeptua era zorrotzagoan hartzen bada, asko murrizten da behaketa estatistikorako eremua, kontzeptuaren informazio-hutsuneen eta heterogeneotasunaren eraginez eta artxiboek balio kolektibogisa duten interesaren eraginez.

Alde horretatik, EAeko udal liburutegiei buruzko estatistikak irekitako bideak gauza asko ikasteko balio izan du. Irakaspen horiek baliagarriak dira, dudarik gabe, artxiboen etorkizun hurbileko lan-ildoak zehazteko. Oraindik onartu gabe dagoen Euskadiko dokumentu-ondareari eta artxiboetarako Legeak ere babestuko du lan hori. Hala, Legearen aurreproiektuan EAeko dokumentu-ondarean errolda eta inbentarioa sortzea aurreikusten da.

3.1.4. Ondare-ondasunen Erregistroa eta Inbentarioa

Kontuan hartu beharreko azken esparrua ez da hainbeste arduratzen alor estatistikoarekin, baizik eta erregistro administratibo publikoen informazioa optimizatzea da esparru horren erronka. Beraz, eztabaidak eta lan-prozesuak alor hauei buruzkoak dira: sailkapen-irizpideen egokitasuna eta adierazgarritasuna, informazioaren eskuragarritasuna, informazio-ahalmena eta informazio hori ustiatzeko aukerak eta beste informazio-banku edo kultura-ekipamendu batzuekin duen lotura.

Uztailaren 3ko euskal kultura-ondareari buruzko 7/1990 Legearen helburua da euskal kultura-ondarea defendatu, aberastu eta babestea eta, horrez gain, zabaldu eta sustatzea. Lege horretan, ondare edo ondare-talde bakoitzari dagokion babes-erregimenaren arabera sailkatzen da kultura-ondarea. Hala, kalifikatutako kultura-ondasunek erregimen zorrotzagoa dute inbentariatutakoek baino. Kultura-ondasunei behar duten publizitatea emateko, Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erregistroa eta Kultura Ondasunen Inbentario Orokorra sortu da. Publikoari irekitako zerbitzuak dira, eta Legeak sortutako Euskal Kultura Ondarearen Zentroan integratuta daude.

Kontuan hartu beharreko azken esparrua ez da hainbeste arduratzen alor estatistikoarekin, baizik eta erregistro administratibo publikoen informazioa optimizatzea da esparru horren erronka

Legearen arabera, euskal kultura-ondarea osatzen duten ondasunak kalifikatuak edo inbentariatuak izan daitezke, eta kategoria hauetako batean sailkatu behar dira:

- Monumentua: banaka hartuta interes kulturala duen ondasun higigarri edo higiezina.
- Monumentu-multzoa: kultura-unitate bat osatzen duten ondasun higigarri edo higiezinen multzoa.
- Kultura-espazioa: euskal kulturaren eta euskaldunen espresibide eta bizimoduekin lotutako lekuak, jarduerak, sorkuntzak, sinesmenak, tradizioak edo iraganeko gertaerak.


Euskadiko Monumentu deklaratuak ondasun higigarri eta higiezinen katalogoak eta inbentarioak egin eta kudeatzea da Kultura Ondarearen Zentroaren zeregina. Gaur egun, sarbide publikoko hiru datu-base daude web gunean:

- Arkitektura eta azpiegiturak: 4.400 agertzen dira (4.239 ondasun kalifikatu eta 161 ondasun inbentariatu).
- Arkeologia: 768 erregistro daude (448 ondasun kalifikatu eta 69 ondasun inbentariatu).
- Erretaulak: 73 erregistro daude; horietatik 72 ondasun kalifikatuak dira.


Euskadiko Monumentu deklaratuak ondasun higigarri eta higiezinen katalogoak eta inbentarioak egin eta kudeatzea da Kultura Ondarearen Zentroaren zeregina

LIBURUTEGI PUBLIKOAK

LIBURUTEGI-FUNTSAK LURRALDEAREN ARABERA




UDAL-LIBURUTEGIEN FUNTSAK LURRALDEAREN ARABERA



ZERBITZUAK

LIBURUTEGIEN MAILEGUAK, EUSKARRI-MOTAREN ARABERA



ESKURAGARRI DAUDEN ZERBITZUAK


Eskuragarri dauden zerbitzuak	%
Maileguak egiten dituzten liburutegiak	88,5
Liburutegien arteko zerbitzua duten liburutegiak	50,0
Antolatutako jarduera-motak	
Erakusketak	12,0
Ipuinaren ordu-kopurua	23,9
Irakurtzera animatzea	32,3
Literatura lehiaketak	1,7
Beste jarduera batzuk	30,1

ENPLEGUA

LANGILE-KOPURUA


L.H.	Liburutegiak		Udal-liburutegiak	
	Abs.	b.%.	Abs.	b.%.
EAE	764	100,0	637	100,0
Araba	101	13,2	76	11,9
Bizkaia	393	51,4	331	52,0
Gipuzkoa	270	35,4	230	36,1

LANGILE-KOPURUA LURRALDEAREN ARABERA




LIBURUTEGI PUBLIKOAK

LIBURUTEGI-FUNTSAK LURRALDEAREN ARABERA




UDAL-LIBURUTEGIEN FUNTSAK LURRALDEAREN ARABERA



ZERBITZUAK

LIBURUTEGIEN MAILEGUAK, EUSKARRI-MOTAREN ARABERA



ESKURAGARRI DAUDEN ZERBITZUAK


Eskuragarri dauden zerbitzuak	%
Maileguak egiten dituzten liburutegiak	88,5
Liburutegien arteko zerbitzua duten liburutegiak	50,0
Antolatutako jarduerak	
Erakusketak	12,0
Ipuinaren ordu-kopurua	23,9
Irakurtzera animatzea	32,3
Literatura lehiaketak	1,7
Beste jarduerak batzuk	30,1

ENPLEGUA

LANGILE-KOPURUA

L.H.	Liburutegiak		Udal-liburutegiak	
	Abs.	b.%.	Abs.	b.%.
EAE	764	100,0	637	100,0
Araba	101	13,2	76	11,9
Bizkaia	393	51,4	331	52,0
Gipuzkoa	270	35,4	230	36,1

LANGILE-KOPURUA LURRALDEAREN ARABERA




ERABILTZAILEAK

OINARRIZKO ADIERAZLEAK

Oinarrizko adierazleak	Liburutegiak	Udal-liburutegiak
Erabiltzaileak ²	864.493	712.906
Erabiltzaileen batezbestekoa	3.023	2.493
Mailegu-erabiltzaileak ³	722.750	710.689
Mailegu-erabiltzaileen batezbestekoa	2.527	2.511
Han egindako kontsulten kopurua	92.214	92.214

ERABILTZAILE-KOPURUA 100.000 BIZTANLEKO, LURRALDEAREN ARABERA



ERABILTZAILEAK ETA BERTAN EGINDAKO KONTSULTAK, LURRALDEAREN ARABERA

L.H.	Erabiltzaileak				Bertan egindako kontsultak	
	Liburutegiak		Udal-liburutegiak		Liburutegiak	
	Abs.	b. %	Abs.	b. %	Abs.	b. %
Araba	89.777	10,4	69.612	9,8	6.176	6,7
Bizkaia	510.166	59,0	413.672	58,0	42.831	46,4
Gipuzkoa	264.550	30,6	229.622	32,2	43.207	46,9


2. Liburutegiko edo hango zerbitzu edo sail bateko txartela duen pertsona-kopurua edo liburutegiaren erabiltzaileen datu-basean alta emanda daudenak.
 3. Erabiltzaileek maileguen zerbitzua erabili duten aldian.

DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK

FINANTZIAZIO-MOTAREN ARABERAKO DIRU-SARRERAK (%)

	Liburutegiak	Udal-liburutegiak
Udalak	63,5	93,3
Foru-aldundiak	32,7	1,2
Liburutegiko zerbitzuak	2,3	3,4
Diru-laguntza bereziak: Eusko Jaurlaritzak	1,2	1,8
Beste batzuk	0,3	0,2


GASTUAK



MUSEOAK ETA BILDUMA MUSEOGRAFIKOAK¹


KARAKTERIZAZIO OROKORRA

MUSEOEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA



Museo-motak	%
Espezializatua	23,2
Historiari buruzkoa	14,5
Etnografikoa eta antropologikoa	13,0
Tokian tokikoa	10,1
Zientzia eta teknologiar buruzkoa	7,2
Orokorra	7,2
Zientziak edo historia naturalari buruzkoa	5,8
Arkeologiar buruzkoa	4,4
Arte garaikideari buruzkoa	4,4
Arte ederrei buruzkoa	2,9
Museo-etxea	2,9
Beste zenbait	4,4

TITULARTASUNA



MUSEO-KOPURUA / 100.000 BIZTANLE

EAE	3,23
Araba	6,29
Bizkaia	1,84
Gipuzkoa	4,19


AZPIEGITURAK, FUNTSAK ETA ESKURAGARRITASUNA

Azalera erabilgarri osoa (m ²)	42.192 m ²
Museoen batez besteko antzinatasuna	23,8 años
Museo-funtsak	786.045
Publikoarentzako eskuragarri dauden funtsak %	%51,04
Bilguma egonkorren funtsetik beste erakunde batzuei utzitakoen ehunekoa	%0,04
Museoetan jarritako beste zenbait erakunde edo partikularren fondoehunekoa	%1,01
Museoek antolatzen dituzten aldi baterako erakusketen batez bestekoa (2006)	%3,87
Urteko irekiera-egunak	
250 egun baino gehiago	%84,2
201-250 egun bitartean	%5,3
151-200 egun bitartean	%5,3
100 egun baino gutxiago	%5,3
Ordenagailua duten museoen %	%85
Web-orria duten museoen %	%85

ZERBITZUAK, EKIPAMENDUAK ETA JARDUERAK

Eskuragarri dauden zerbitzuak eta ekipamenduak	%
Bisita gidatuak	85,0
Minusbaliatuentzako sarbidea	73,3
Ikus-entzunezkoen aretoa	66,7
Liburutegia	65,5
Denda/liburu-denda	63,3
Jarduera didaktikoetarako lekua	63,3
Ekitaldi-aretoa	43,3
Aparkaleku publikoa	36,7
Lekuen alokairua beste batzuentzako	28,3
Berriztapen-lantegia	25,0
Kafetegia/jatetxea	18,3
Audio-gidak	15,0
Argazki-laborategia	3,3

MUSEOETAKO BESTE JARDUERA BATZUK




1. 2006ko informazioa. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. *Euskadiko museoak eta bilduma museografikoak 2006ko estatistika-txostena.*

MUSEOAK ETA BILDUMA MUSEOGRAFIKOAK

ENPLEGUA

Langile-kopurua	Guztira	Emakumeen %
EAE	732	57,8
Araba	134	60,4
Bizkaia	330	61,6
Gipuzkoa	268	51,9


MUSEOKO LANGILE-KOPURUA LURRALDEAREN ARABERA



BISITARIAK

Mota	Museoetako bisitari-kopurua	Museo/bildumako urteko bisitari-kopurua
Arte garaikideari buruzkoa	1.189.660	396.553
Orokorra	433.084	86.617
Espezializatua	250.996	16.733
Zientzia eta teknologiari buruzkoa	186.746	37.349
Arte ederrei buruzkoa	176.653	88.327
Tokian tokioa	86.450	14.408
Historiaren arabera	75.623	7.562
Etnografia eta Antropologia	48.266	8.044
Arkeologiari buruzkoa	41.872	13.957
Zientziari edo historia naturalari buruzkoa	33.336	8.334
Museo-etxea	800	400
Beste zenbait	32.577	16.289
GUZTIRA	2.556.063	37.044

BISITARI-KOPURUA, 100.000 BIZTANLEKO




BISITARI-KOPURU GUZTIA ETA ATZERRIKO BISITARI-KOPURUA


L.H.	Bisitari-kopurua guztira		Atzerriko bisitariak	
	Abs.	b.%	Abs.	Atzerritarren %, guztizkoarekiko
EAE	2.556.063	100,0	802.443	31,4
Araba	333.196	13,0	18.561	5,6
Bizkaia	1.463.953	57,3	653.166	44,6
Gipuzkoa	758.914	29,7	130.716	17,2

DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK

MUSEOEN SORTUTAKO DIRU-SARRERAK



MUSEO ETA BILDUMETAN EGINIKO GASTUAK



3.2. ADIERAZPEN ARTISTIKOA

Adierazpen artistikoaren azpistemaren barruan, bi informazio-alor daude: batetik, Arte Eszenikoek eta Musikalek –Antzerkia, Dantza eta Musika– osatutakoa (hirurek antzeko ezaugarri eta arazoak dituzte oinarrian, eta horregatik, nahiko homogeenak dira behaketa estatistikoaren ikuspegitik), eta, bestetik, Ikusizko Arteek osatutakoa (besteetatik bereizitako eskaintza edo ekoizpen artistikoa eta banaketa- eta kontsumo-kanalak dituzte).

Bi mundu horiek ezaugarri desberdinak dituzte informazioaren ikuspegitik, baina bien kasuan hutsune handiak daude alor horretan.

3.2.1. Arte eszenikoak eta musikalak

Ondarearen sektorearekin alderatuta, arte eszeniko eta musikalen sektoreak (antzerkia, dantza eta musika) sorkuntza-prozesuaren izaera iragankor eta ahulena ordezkatzeko dira. Definizioz, arte horiek une batean eta zuzenean bizi eta gozatzeko dira, eta une horretatik kanpo, desagertu eta atzemanezin bihurtzen dira.

Eskaintza eszeniko eta musikalaren ezaugarri horrek eragina du, nolabait, oinarrian dagoen sare artistiko guztian. Sare artistiko horretan hainbat eratako formulak –berez, egonkorak izan beharrik ez dutenak– erabiltzen dira (interpreteak, konpainiak, proposamen artistiko eta musikalak...). Gainera, formula horiek gainjarri eta gurutzatu egiten dira, eta ondorioz, bakoitzaren identifikazioa eta sektoreari buruzko informazioa biltzea zailago bihurtzen da.

Bestalde, arte eszeniko eta musikalen ekoizpen-sarearen barruan daude profil eta mota askotako enpresa osagarriak ere (ekoizleak, banatzaileak, programatzaileak, erakusketen antolatzaileak...). Ez daukate jarduera artistikoa egin beharrik, eta arte eszeniko eta musikalen ekoizpen-prozesuan parte hartzen dute, adierazpen artistikoa (emankizuna) bideratuz.

Ondarearen sektorearekin alderatuta, arte eszeniko eta musikalen sektoreak sorkuntza-prozesuaren izaera iragankor eta ahulena ordezkatzeko dira. Definizioz, arte horiek une batean eta zuzenean bizi eta gozatzeko dira

Konplexutasun bikoitz horren eraginez, ez da kasualitatea arte eszeniko eta musikalen enpresa- (eskaintza) sareari buruz informazio gutxi izatea. Beraz, informazioaren aldetik garatu beharreko esparrua da, eta beharrezkoa da Behatokiak esparru horri buruzko berariazko azterketa estatistikoa egitea –*Arte eszeniko eta musikalei buruzko estatistika*.

Hori dela eta, ulertzekoa den bezala, espazio eszenikoei eta horien oinarrian dauden enpresa-egiturek gehien kontrolatzen dituzten esparruei buruzko informazioa dago bilduta: programatutako jarduera eta ikusleak (emanaldi eta ikuskizunen kopurua, ikusleen kopurua, txartel-leihatiletako diru-sarrerak...).

Ikuspegi horretatik, hauek dira informazio-iturri nagusiak: SGAE, eskubideen notaritza eta erregistro-tratzaile gisa eta Sarea, antzokien euskal sarea, jarduera ekonomikoki bideragarri egiten laguntzeko babesle publiko gisa. Hala ere, erakunde horietako bakoitzaren ikuspegiak informazioa baldintzatzen du. Hala, Sarearen kasuan, informazioa partziala da, antzokien egoerara mugatzen delako eta, SGAEren kasuan, informazioa gehiegi zabaltzen da, erregistroa osatzeko helburura mugatzen delako⁵. Ondorioz, kontzeptuak doitzeko eta bi informazio-iturri horiek optimizatzeko –eta osatzeko– prozesua ireki da, serie osagarriak finkatzeko eta informazioaren funsgabetasunak eta bikoizketak saihesteko.

Orain arte deskribatutako arte eszeniko eta musikalen egoera eta informazioaren ikuspegitik dituen erronkak osatzeko, adierazpen artistiko batzuetako dinamika profesional/amateurra aipatu behar da. Bereziki, musika korralaren eta dantzaren kasua azpimarratu behar da. Dantzaren kasuan, antzeko eztabaida dago dantza tradizionalari/ez-tradizionalari buruz.

Alor horietako eskaintza profesionala oso murrizta da, eta, horrekin batera, kultura-elkarteen sare zabal batek amateur eran lantzen ditu jarduera horiek. Dena den, horrek ez du esan nahi emanaldi batzuentatik ordainketa ekonomikorik izaten ez denik.

5. Hala, espazio eszeniko gisa hartzen da adierazpen artistiko bat egin den edozein leku –ekitaldi-aretoak, kirol-ekipamenduak, dantzalekuak, elizak, gune historikoak...–, eta bildutako informazioa ikusleen eta diru-sarreren kopuruarekin lotuta egoten da.

Ulertzekoa den bezala, espazio eszenikoei eta horien oinarrian dauden enpresa-egiturek gehien kontrolatzen dituzten esparruei buruzko informazioa dago bilduta

Horrekin lotuta, esan behar da sektoreko kultura-eskaintzari buruzko informazio estatistikoa bilzteko beharrezkoa dela profesionaltasunaren irizpidea erabiltzea. Irizpide horri uko eginez gero, asko aldatzen da behaketa-eremua, eta gainera, mugatzen oso zaila den eremu batean bihurtzen da arte eszenikoen kasuan (antzerki amateurra edo dantza tradizionala) baita gainerako kultura-jardueren kasuan ere: pinturatik zinemara eta eskulturatik literatura-sorkuntzara.

Baina, aldi berean, kasu jakin batzuetan jarduera ez-profesionalek duten garrantzia dela eta, ezinbestekoa da esparru horri buruzko berariazko hurbilketa estatistikoa egitea: *Kultura herrikoari buruzko estatistika*.

Hurbilketa hori egitean, oso berezkoa dugun adierazpen artistiko herrikoi bat modu berezian hartu behar da kontuan: bertsolaritza.

Bertsolaritza oso adierazpen artistiko berezia da –ez soilik funtsean jarduera amateurra delako, bai-zik eta besteetatik bereizten dituen ezaugarriak dituelako–, eta horregatik, bertsolaritzaren unibertso bereziari buruzko kapitulu berezi eta egokitu bat behar da. Hurbilketa hori egiteko, kontuan hartu beharko dira egindako kontzeptuzko aurrerapenak, sailkapenen kategorizazioak eta arlo horretako elkarteek bildutako informazioak⁶.

3.2.2. Ikusizko arteak

Hauek dira ikusizko arteen ezaugarri nagusiak: batetik, informazio estatistikoa oso gutxi dago sektoreari buruz eta, bestetik, gero eta garrantzi gehiago hartzen ari da komunikabideetan joera berriekin eta modernitatearekin lotutako kontsumo ikoniko gisa. Nabarmena da bi ezaugarri horien artean dagoen alde izugarria.

Informazio estatistikoa zuzenean sektorearekin lotu beharrak sortzen du paradoxa hori. Hala, oso sektore txikia da; sare artistiko, produktu eta merkatu oso bereziko; eta sektorearen errealitatea oso urrun

6. Bertsozale Elkarteak bertsolaritzari buruzko informazioa biltzen du, eta horretarako, kategorizazio berezi batzuk erabiltzen ditu: lagun artekoak, plazako saio libreak, jaialdiak, programatuak, bereziak, txapelketak, sariketak, didaktikoak, hitzaldiak . . .

Kasu jakin batzuetan jarduera ez-profesionalek duten garrantzia dela eta, ezinbestekoa da esparru horri buruzko berariazko hurbilketa estatistikoa egitea: *Kultura herrikoari buruzko estatistika*

dago aldian behingo garrantzi handiko adierazpen artistikoek komunikabideetan duten eraginetik eta ekipamendu bereziek sortzen duten erakarpenetik.

Ikusizko arteetako ekoizleen mikrounibertsoa oso berezia da, eta merkatua ohiz kanpoko, iritzia sortzen duen elite espezializatu batek sortutako balio sinbolikoak zuzentzen duena. Ikusizko arteen produktua bakarra da, eta banaketa-zirkuitu mugatuetan kudeatzen da. Zirkuitu horiek ez dira publiko orokorraren araberakoak izaten, kasu gehienetan. Horren guztiaren eraginez, sektoreari buruzko datu estatistikoak biltzea erronka handia da.


Ez dago ia zeharkako informazio-iturririk sektoreari buruz eta *ad hoc* egindako azterketen bidez lortutako emaitzak oso mugatuak dira. Hori guztia dela eta, behar beharrezkoa da arte plastikoei zuzendutako behaketa-mekanismo espezializatu bat sortzea –berariazko lan– eta estatistika-direktorioak– deskribatutako errealitatera eta haren berezitasunetara egokitu ahal izateko.

Ikusizko arteetako ekoizleen mikrounibertsoa oso berezia da, eta merkatua ohiz kanpoko, iritzia sortzen duen elite espezializatu batek sortutako balio sinbolikoak zuzentzen duena. Ikusizko arteen produktua bakarra da

ARTE ESZENIKOAK

KARAKTERIZAZIO OROKORRA

SAREAKO ANTZERKIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA¹



EAEKO ANTZERKIAK, MOTAREN ARABERA²

Tipologia	Eserleku-kopurua	%
Barrutiak	325	50,0
Aretoak	171	26,3
Beste zenbait leku	154	23,7
Guztira	650	100,0

EKINTZA


ARTE ESZENIKOEN IKUSLE-KOPURUA EAEN

Iturria		Antzerkia		Dantza		Lirika		GUZTIRA
		Abs.	b.%	Abs.	b.%	Abs.	b.%	
SGAE 2005	Profesionala	1.679	65,7	139	81,8	85	95,5	1.903
	Afizionatua	878	34,3	31	18,2	4	4,5	913
	GUZTIRA	2.557	100,0	170	100,0	89	100,0	2.816
Sarea 2006	Araba	134	10,2	13	13,4	7	16,3	154
	Bizkaia	739	56,3	52	53,6	29	67,4	154
	Gipuzkoa	440	33,5	32	33,0	7	16,3	579
	GUZTIRA	1.313	100,0	97	100,0	43	100,0	1.453


1. 2006ko informazioa. Iturria: Sarea. Euskal Antzerkien Sarea. 2006ko Datu Estatistikoak.

2. 2005eko informazioa. Iturria: Egile eta Editoreen Elkarteak. 2006ko Arte eszenikoei, musikalei eta ikus entzunezkoiei buruzko SGAEren urtekaria.

EMANALDI-KOPURUA, PUBLIKO MOTAREN ARABERA¹



HAURRENTZAKO SAIOAK, HIZKUNTZAREN ARABERA¹




IKUSLEAK


ARTE ESZENIKOEN IKUSKIZUN-KOPURUA EAEN

Iturria		Antzerkia		Dantza		Lirika		GUZTIRA
		Abs.	b.%	Abs.	b.%	Abs.	b.%	
SGAE 2005	Profesionala	637.266	73,8	79.703	82,7	105.372	99,1	822.341
	Afizionatua	226.429	26,2	16.709	17,3	942	0,9	244.080
	GUZTIRA	863.695	100,0	96.412	100,0	106.314	100,0	1.066.421
Sarea 2006	GUZTIRA	375.634	100,0	30.427	100,0	25.627	100,0	431.688

ARTE ESZENIKOEN IKUSKIZUN-KOPURUA EAEN, LURRALDEAREN ARABERA¹



IKUSLE-KOPURUA HIZKUNTZAREN ARABERA – ANTZERKIA ETA LIRIKA¹




ARTE ESZENIKOAK


EMANALDIAK, IKUSLEAK BATEZ BESTEKO IKUSLE-KOPURUA IKUSKIZUNAREN ETA HIZKUNTZAREN ARABERA¹

	Ikuskizun-kopurua	Ikusle-kopurua	Ikusle-kopurua ikuskizuneko
Euskera	445	82.097	184
• Haurrentzako	335	69.719	208
• Gazte-helduentzako	110	12.378	113
Gaztelania	818	286.908	351
Beste zenbait	18	7.837	435
Testu gabea	75	24.419	326


IKUSLE-KOPURUA, IKUSKIZUNAREN ETA IKUSKIZUN-MOTAREN ARABERA¹



IKUSLE-KOPURUA, IKUSKIZUN ETA LURRALDEAREN ARABERA¹



KONPAINIEN JATORRIA¹



BILDUTAKO DIRU-KOPURUA

ARTE ESZENIKOEN EAEN BILDUTAKO DIRU-KOPURUA (SGAE 2005)

	Antzerkia		Dantza		Lirika		GUZTIRA
	Abs.(€)	h. %	Abs.(€)	h. %	Abs.(€)	h. %	
Profesionala	13.249.190	78,0	1.242.953	7,3	2.497.810	14,7	16.989.953
Afizionatua	284.017	85,8	41.960	12,7	5.010	1,5	330.987
GUZTIRA	13.533.207	78,1	1.284.913	7,4	2.502.820	14,5	17.320.940

ARTE ESZENIKOEN EAEN BILDUTAKO DIRU-KOPURUA (SAREA 2006)


	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		GUZTIRA
	Abs.(€)	b. %	Abs.(€)	b. %	Abs.(€)	b. %	
GUZTIRA	871.433	16,4	3.423.915	64,6	1.006.251	19,0	5.301.599

BATEZ BESTEKO DIRU-SARRERA IKUSLEKO

Iturria	€
SGAE	16,2
Sarea	12,3

KARAKTERIZAZIO OROKORRA

KONTZERTUAK OSPATU DIREN ESPARRU-KOPURUA




MUSIKA KLASIKOKO KONTZERTUAK ANTOLATU DITUZTEN BARRUTIAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

	Barrutiak	Aretoak	Tokiak	Guztira
GUZTIRA	374	104	270	748
Araba	27	7	20	54
Bizkaia	190	51	139	380
Gipuzkoa	157	46	111	314

EKINTZA


MUSIKA KLASIKOKO ETA HERRI-MUSIKAKO KONTZERTUAK




MUSIKA KLASIKOKO KONTZERTUAK, MOTAREN ARABERA

Musika sinfonikoa	151
• Ordaintzekoa	123
• Doakoa	28
Ganbera-musika eta bakarlariak	526
• Ordaintzekoa	203
• Doakoa	323
Musika korala	383
• Ordaintzekoa	11
• Doakoa	372
Bandako musika	319
• Ordaintzekoa	19
• Doakoa	300


MUSIKA KLASIKOKO KONTZERTUAK, LURRALDEAREN ARABERA



HERRI-MUSIKAKO KONTZERTUAK, MUSIKA-GENEROAREN ARABERA



HERRI-MUSIKAKO KONTZERTUAK, KONTZERTU-MOTAREN ARABERA²




1. 2005eko informazioa. Iturria: Egile eta Editoreen Elkarteak. *Arte eszenikoei, musikalei eta ikus entzunezkoei buruzko SGAren urtekaria.*

2. 2.500 ikusle baino gehiago dituzten kontzertuak handizat jotzen dira; 2.500 ikusle baino gutxiago dituztenak, berriz, kontzertu arruntzat jotzen dira.

MUSIKA

IKUSLEAK


MUSIKA KLASIKOKO ETA HERRIKOIKO IKUSLEAK




MUSIKA KLASIKOKO IKUSLEAK

Musika sinfonikoa	187.969
• Ordaintzekoa	167.467
• Doakoa	20.502
Ganbera-musika eta ahots bakarlariak	178.086
• Ordaintzekoa	102.190
• Doakoa	75.896
Musika korala	128.765
• Ordaintzekoa	8.125
• Doakoa	120.640
Bandako musika	93.736
• Ordaintzekoa	11.366
• Doakoa	82.370

KONTZERTUKO IKUSLE-KOPURUA




MUSIKA HERRIKOIKO IKUSLEAK, KONTZERTU-TIPOLOGIAREN ARABERA²



BILDUTAKO DIRU-KOPURUA

MUSIKA KLASIKOAREKIN ETA HERRIKOIAREKIN BILDUTAKO DIRU-KOPURUA, EUROTAN




MUSIKA KLASIKOAREKIN BIZTANLEKO ETA URTEKO GASTATU ZENA

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
0,54	1,45	2,67

IKUSLEKO BILDU ZENA

Musika klasikoak	Musika herrikoa	Guztira
6,03	5,96	5,98


MUSIKA KLASIKOAREKIN BILDUTAKO DIRU-KOPURUA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA




MUSIKA KLASIKOAREKIN BILDUTAKO DIRU-KOPURUA

Musika sinfonikoa	2.174.946
Ganbera-musika eta ahots bakarlariak	1.243.466
Musika korala	28.514
Bandako musika	106.986

MUSIKA HERRIKOIKO KONTZERTUETAN BILDUTAKO DIRU-KOPURUA, MUSIKA-GENEROAREN ARABERA



MUSIKA HERRIKOIAREKIN BILDUTAKO DIRU-KOPURUA, KONTZERTU-TIPOLOGIAREN ARABERA



3.3. KULTURA-INDUSTRIAK

Definizioz, beste ekoizpen-sektoreekin antzekotasun gehienak dituen azpisistema da. Kultura-industriek arteak erabiltzen dituzte kontsumo masibora zuzendutako ondasun sinbolikoak ekoizteko. Beraz, industria-ekoizpenarekin lotutako kontzeptua da; kultura-ondasunak eta -zerbitzuak ekoizten dituen azpisistema, jendeak kontsumitzeko (euskarri ukigarriak eduki ukiezinekin). Kultura-industrien produktu orok dualtasun hau du bere osagaietan: batetik, osagai ekonomiko eta industrialak eta, bestetik, osagai ideologiko eta kulturalak; dimentsio ekonomikoaren ikuspegitik, salgaiak dira eta, dimentsio kulturalaren ikuspegitik, eduki sinbolikoak.

Lehenengo dimentsioari buruz biltzen da datu estatistikoetarako informazio gehiena, itxuraz, gainerako sektore ekonomikoekin homologagarriagoa –eta, ondorioz, konplexutasun gutxiagokoa– izateko. Hala eta guztiz ere, informazio hori biltzeko zailtasunak sortzen dira. Ondorioz, unean uneko azterketa sektorialak egiteko baino ez dira egin informazio-bilketa horiek, eta ez da bildu nahikoa informazio estatistika erregular konparagarriak egiteko.

Sektorearen definizioak berak sortzen ditu zailtasun gehienak, alegia, kultura-industria bakoitzaren atzean ekoizpen-jarduera ez-homogeneoak egoteak. Adibidez, industria fonografikoaren barruan daude diskoetxeak, grabazio-estudioak, musika-argitaletxeak, banaketa-enpresak... eta, horren aurrean, ondasunak ekoizten dituzten enpresak edo jardueraren zerbitzu osagarriak sektorearen barruan sartu behar diren ala ez eztabaidatzen da. Modu batera ala bestera, eztabaida horrek kultura-industria guztiei eragiten die. Hala, soinuaren edo irudiaren euskarri digitalak edo material teknologikoak ekoizten dituzten enpresek industria fonografikoari eta ikus-entzunezko industriari eragiten die; inprimategiek argitaletxeei; eta musika-tresnak egiten dituzten enpresek musikaren arloko industriari.

Erritmoa motela izan arren, pixkanaka-pixkanaka, sektore horiei buruzko informazioa eta datu estatistikoak biltzen, eta, horrekin batera, gai horri buruzko hitzarmenak egiten ari dira. Datuak arbitrarioak izan arren, azkenean nolabaiteko kontzeptu-multzoak sortzen dira informazio-serieetan. Dena den, informazio

Kultura-industrien produktu orok dualtasun hau du bere osagaietan: batetik, osagai ekonomiko eta industrialak eta, bestetik, osagai ideologiko eta kulturalak

erregularren arloan *ad hoc* egindako aurrerapenak partzialak eta mugatuak dira oraindik ere, salbuespenak salbuespen: gremio batzuek egindako ahaleginak (adibidez, argitalpen-industria), erregistro administrati- boen ustiapena (ISBN edo ISMN) edo SGAE erregistroen ustiapena.

Alor horietako bakoitzaren egoera oso desberdina da.

3.3.1. Argitalpen-industria

Dudarik gabe, informazio-euskarri sendo eta erregularrena duen kultura-industria da.

Nagusiki, bi iturri hauetatik ateratzen da EAEko liburuaren argitalpenari buruzko informazioa: Euskadiko Editoreen Elkarte eta Kultura Ministerioa.

Lehenengo kasuan, *Euskadiko liburuaren barne-merkataritza* izeneko urteko txostenean jasotzen da informazioa. Azken edizioak 2005eko datuak jasotzen ditu, eta jarraian egindako bederatzigarrena da dago- eneko. Azterketa horren helburua da, batetik, EAEko argitaletxe pribatuek barne-merkatuan duten fakturazioa zehaztea eta, bestetik, argitaletxeen liburu-eskaintza eta horien merkaturatzea nolakoa den ezagutzea, bai oro har bai euskarazko argitalpenei dagokienez.

Datu horiekin ikerketaren serie historikoak egiten dira, planteamendu homogeenak erabiliz, eta ar- gitaletxeen jardueraren bilakaera eta joerak zehazten dira.

Horrez gain, Euskal Editoreen *Elkarteak Irakurketa-ohiturak eta liburuaren erosketak 2005* azterketa egiten du CEDROrekin eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin elkarlanean. Azterketa horrek 14 urtetik gorako EAEko herritarrek irakurtzeko eta liburuak erosteko dituzten portaerei buruzko erretratua egiten du.

Kultura Ministerioak, berriz, "ISBN duten liburuaren espainiar edizioaren ustiapen estatistikoa" (*Ex- plotación estadística de la Edición Española de Libros con ISBN*) izeneko azterketa egiten du. Izaera admi- nistratiboko azterketa da, direktorio gisa Espainiako ISBN fitxategia erabiltzen duena. Fitxategi horretan Espainiako argitaletxeek egindako argitalpenak –ISBNrekin identifikatutakoak– inskribatzen dira, eta

Erritmoa motela izan arren, pixkanaka-pixkanaka, sektore horiei buruzko informazioa eta datu estatistikoak biltzen, eta, horrekin batera, gai horri buruzko hitzarmenak egiten ari dira

erregistro horretako liburuak dira azterketaren unitatea. Egoeraren arabera egiten den azterketa da, oso aldiari behingoa. Azterketaren emaitza gisa, "Espainiar edizioen liburuaren egoera" (*Panorámica de la Edición Española de Libros*) izeneko argitalpena egiten da, hiruhileko aurrerapenekin, urteko datuekin eta bilakaera-taulekin.

Sektoreari buruz bilduta dagoen informazioa, eta, bereziki, deskribatutako ibilbidea oso abiapuntu egokia da argitalpen-industriaren hurbilketa estatistiko ofizialak –argitalpen-industriari buruzko estatistika– egiteko, sektorearekin elkarlan estuan arituz, eta, hala, sektorearen esperientzia optimizatuz.

3.3.2. Industria fonografikoa

EAEko industria fonografikoaren informazio-egoera ez da hain ona.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak unean uneko hurbilketa egiten du *EAEko sektore fonografikoaren egoerari buruzko azterketan* (EAEko sektore fonografikoaren ekoizpen-, banaketa- eta salmenta-fasearen erretratua egiten du). Baina, azterketa horretaz aparte, Kultura Ministerioak eskaintzen du sektoreari buruzko informazio erregular bakarra, "ISMNn inskribatutako Espainiako musika-argitalpenaren ustiapen estatistikoa" (*Explotación Estadística de la Edición Musical en España inscrita en el ISMN*) azterketaren bidez.

ISMNren bidez egiten den azterketa administratiboa da. Saltzeko edo alokatzeko dauden musika-argitalpenak, doakoak direnak eta egile-eskubideen ondorioetarako erregistratutakoak identifikatzen ditu ISMN zenbakiak. 2002an sortutako ISMNren Espainiako Agentziak etengabe kudeatu eta eguneratzen du direktorio hori. Argitaratzaileak ez du direktorioan erregistratzeko obligaziorik.

Beste sektore batzuekin alderatuta, industria fonografikoari buruzko informazioa biltzeko behar handia dago. Horretarako, bide handia dago egiteko oraindik, eta sektoreko enpresek ahalegin handia egin beharko dute elkarrengana hurbiltzeko eta elkarrekin lan egiteko.

Beste sektore batzuekin alderatuta, industria fonografikoari buruzko informazioa biltzeko behar handia dago. Horretarako, bide handia dago egiteko oraindik, eta sektoreko enpresek ahalegin handia egin beharko dute elkarrengana hurbiltzeko eta elkarrekin lan egiteko

3.3.3. Ikus-entzunezko industria

Gaur egun, bi iturritatik jasotzen da EAEko zinemagintzari eta bideogintzari buruzko informazio erregularra (sektoretik kanpoko iturriak dira biak): batetik, Kultura Ministerioak Zinematografiaren eta Ikus Entzunezko Arteen Institutaren (ICAA) bidez sustatzen duen “Zinematografiari buruzko estatistika: ekoizpena, banaketa eta sustapena” (*Estadística de cinematografía: producción, distribución y fomento*) eta, bestetik, “Arte eszeniko, musikal eta ikus-entzunezko arteei buruzko SGAEren urtekaria” (*Anuario SGAE de las artes escénicas, musicales y audiovisuales*).

Sektoreari buruzko informazioa mugatua da, eta dauden hutsuneak betetzeko tresnak jarri behar dira martxan. Eiken Euskadiko Ikus Entzunezkoen Klusterra sektoreari buruzko txostena egiten ari da azken hilabeteetan, eta beraz, kultura-esparru gehienetan irekitako bideari ekin zaio ikus-entzunezkoen sektorean ere. Hasitako bide horrek sektorearen barruko elkarlana eskatzen du, hurbilketa estatistikoa erregularra eta zorrotza izan dadin.

3.3.4. Artisautza-industriak

Artisau-industria da kultura-industrien artean atipikoena. Izan ere, oso zaila da kokatzen. Ekoizpen etnografiko, artistiko eta ondasun funtzionalen ekoizpenaren artean dago, artisau-industriaren balio kulturalak lan-bide gisa duen oinarrira eramaten gaitu, alegia, memoriaren, artearen, tradizioaren eta, aldi berean, egungo lehiakortasun-eskaera nahiz kontsumitzailearen balioetara egokitzen duen berrikuntzaren artean dago.

Enpresaren ikuspuntutik ia nabarmentzen ez dena izanik, oso zaila da kolektiboari buruzko informazio sistematikoa lortzea. Hiru lurralde historikoetako foru-aldundien erregistroak eta foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak KEP dela-eta egindako unean uneko azterketak dira informazio-iturri bakarra.

Funtsezkoa da sektoreari buruzko informazioa biltzeko eta segimendua egiteko iturri estatistiko egonkorra sortzea, jardueraren lehiakortasunaren beharrezko egokitzapen prozesua eta horrekin batera

Enpresaren ikuspuntutik ia nabarmentzen ez dena izanik, oso zaila da kolektiboari buruzko informazio sistematikoa lortzea


bere biziraupena informatiboki laguntzeko. Hala, beharrezkoa da aipatutako erregistro-iturriak optimizatzea, eta aldizkako hurbilketa estatistiko homogenea egiteko direktorio gisa erabiltzea. Tresna estatistiko hori artisau-mikroenpresen berezitasunetara modu errealistan egokitzen bada, foru-aldundien –horiek dute alor horretako eskuduntza– eta sektorearen beraren ezagutza-iturri eta lan-tresna bihurtuko da.

Funtsezkoa da sektoreari buruzko informazioa biltzeko eta segimendua egiteko iturri estatistiko egonkorra sortzea, jardueraren lehiakortasunaren beharrezko egokitzapen prozesua eta horrekin batera bere biziraupena informatiboki laguntzeko

ENPRESA-KARAKTERIZAZIOA¹

ARGIALETXE PRIBATUEN KOPURUA²: 108
GREMIOKO ENPRESAK ETA GREMIOKOAK EZ DIRENAK


Gremiokoak 45 (%41,7)



Gremiokoak ez direnak
63 (%58,3)

ENPLEGUA¹

**LANGILEEN BANAKETA,
JARDUERAREN ARABERA**




**ARGIALETXE PRIBATUETAKO
LANGILE-KOPURUA**

Argialetxe pribatuetako langile-kopurua	626
Argitalpenean jarduten duten langileen %	43,4
Merkataritza jarduten duten langileen %	27,8
Administrazio-lanetan jarduten duten langileen %	26,8
Kanpo-merkataritzan jarduten duten langileen %	2,0
Batez besteko langile-kopurua enpresako	5,8

FAKTURAZIOA¹

**ESTATUKO ARGIALETXE PRIBATUEN
FAKTURAZIOA BARNE-MERKATUAN**


EAEEn 155.580 (%5,3)



Estatuko gainerakoan 2.777.650 (%94,7)

LIBURUEN FAKTURAZIOA EAEN, ARGIALETXEEN JATORRIAREN ARABERA


Euskal argialetxeak
44.795 (%28,8)



Estatuko gainerako argialetxeak
110.785 (%71,2)

**EUSKAL ARGIALETXEEN
FAKTURAZIOA BARNE-MERKATUAN**


Estatuko gainerakoan
41.398 (%48,0)



EAEEn
44.795 (%52,0)

**EUSKAL ARGIALETXEEN
FAKTURAZIOA EAEN,
HIZKUNTZAREN ARABERA**

Gaztelaniaz
12.437 (%27,8)



Euskeraz
32.358 (%72,2)

FAKTURAZIO-KOPURUA, MERKATURATZE-KANALEN ARABERA

	Guztira (milaka euro)	% euskera
Liburu-dendak	35.600	41,3
Liburu-denden kateak	17.199	31,33
Hipermerkatuak	7.760	44,7
Kioskoak	165	23,6
Enpresak eta erakundeak	16.638	46,6
Liburutegiak	45	68,9
Argialetxeak	663	2,1
Kreditu bidezko salmenta	984	55,5
Posta	1.558	5,9
Telefonia, klubak, Internet, harpidetzak	4.347	6,5
Gainerakoak	1.234	4,3
Guztira	86.193	37,5

1. 2005eko informazioa. Iturria: Euskadiko Editoreen Elkarteak. *EAEko argitalpenei buruzko IX. txostena, barne-merkataritza (2005)*.

2. EAEko argitalpenei buruzko IX. txostena. Euskal Herrian 191 argialetxe –publiko nahiz pribatu– daudela adierazten duen ISBNko datuak garbituta, barne-merkatuak adierazten du 108 argialetxe pribatu daudela EAEEn.

JARDUERAK


ARGITALPEN-EKOIZPENA GAIKA (Euskadiko Editoreen Elkarte - 2005)¹

Oinarritzko adierazleak	Argitaratutako titulu-kopurua		Argitaratutako ale-kopurua		Batez besteko tirada	
	Guztira	Euskarazkoen %	Guztira	Euskarazkoen %	Guztira	Euskeraz
Guztira	3.515	46,0	7.931.505	42,6	2.256	2.089
Literatura	462	54,8	587.000	42,4	1.272	986
Haur eta gazteentzako liburuak	579	89,8	1.230.000	82,3	2.122	1.945
Testu ez-unibertsitarioak	957	66,9	2.880.000	60,6	3.007	2.720
Unibertsitateko liburuak/ zientifiko teknikoak	697	11,8	1.417.000	7,5	2.033	1.301
Giza zientziak eta gizarte-zientziak	551	9,8	875.000	6,3	1.590	1.026
Liburu praktikoak	63	19	239.000	14,2	3.809	2.875
Dibulgazioa, orokorrean	97	21,6	382.000	27	3.936	4.781
Hiztegiak/ entziklopediak	47	61,7	124.000	33,1	2.465	1.421
Beste batzuk	62	8,1	197.000	16,2	3.178	6.746

ARGITALPEN-EKOIZPENA, LURRALDEAREN ARABERA (INE/2006)³

	Argitaratutako titulu-kopurua		Argitaratutako ale-kopurua	
	Guztira	b.%	Guztira	b.%
GUZTIRA	2.360	100	5.574.000	100
Araba	260	11,0	949.000	17,0
Bizkaia	1.241	52,6	2.582.000	36,6
Gipuzkoa	859	36,4	2.042.000	46,6

ISBNN ERREGISTRATUTAKO LIBURUAK⁴



ISBNn erregistratutako liburuak	Abs.	Estatuko guztizkoarekiko %
ISBNn erregistratutako Espainiako liburuaren kopurua	77.330	-
ISBNn erregistratutako EAEko liburuaren kopurua	2.712	3,5
Euskaraz argitaratutakoak ⁵	1.417	1,8
Euskarara itzultitakoak ⁵	92	0,1

3. 2006ko informazioa. Iturria: INE. *Liburu-argitalpenen estatistikak*.


4. 2006ko informazioa. Iturria: Kultura Ministerioa. *ISBN duten liburuaren edizioen estatistika*.

5. ISBN duten argitaratutako liburuei buruzko datuak eta euskarazko itzulpenak hiru hilean behin argitaratzen dira, beraz, hiruhileko bakoitzeko zifrak batu dira urteko guztizkoa lortzeko


6. 2005eko informazioa. Iturria: Euskadiko Editoreen Elkarte. *EAEko herritarrek liburuak irakurtzeko eta erosteko dituzten ohiturak*.

IRAKURLEAK⁶


IRAKURLEAK GENEROAREN ARABERA




BIZTANLERIA, URTEAN IRAKURRITAKO LIBURU-KOPURUAREN ARABERA



IRAKURLE-KOPURUA ADINAREN ARABERA



IRAKURLE-KOPURUA, LURRALDEAREN ARABERA




KARAKTERIZAZIO OROKORRA ¹


ENPRESA-KARAKTERIZAZIORAKO ADIERAZLEAK

Zinema-ekoizle kopurua	24
Zinema-kopurua	61
Emanaldi-areto kopurua	243
• Araba	51
• Bizkaia	107
• Gipuzkoa	85
Areto-kopurua / 100.000 biztanle	11,5

ZINEMA-EKOIZLEEN KOPURUAREN BILAKAERA



EAEKO ZINEMEN BANAKETA, ARETOEN ARABERA




JARDUERAK

OINARRIZKO ADIERAZLEAK

Emandako film-kopurua (2005) ²	612
Saio-kopurua (2005) ²	257.485
Zinema-jaialdi kopurua (2005) ²	16
EAEk parte hartu duen film-kopurua (2006) ¹	21

ZINEMA EMANALDI-KOPURUA, LURRALDEAREN ARABERA ²



1. 2006ko informazioa. Iturria: Kultura Ministerioa. *Zineko informazio-buletina*.


2. 2005eko informazioa. Iturria: Egile eta Editoreen Elkarteak. *2006ko Arte Eszenikoei, Musikalei eta Audiobisualeri buruzko SGAEren Urtekarria*.

KONTSUMOA – IKUSLEAK

ZINEMAKO IKUSLE-KOPURUA, LURRALDEAREN ARABERA 2006¹

EAE	5.953.576
Araba	994.339
Bizkaia	3.057.207
Gipuzkoa	1.902.030


ZINEMA-SARREREN KOPURUA, BIZTANLEKO, LURRALDEAREN ARABERA 2005²



ZINEMA IKUSLE-KOPURUA, FILM LUZE MOTAREN ARABERA 2006¹


Espainiako film luze	991.958
Atzerriko film luzeak	4.961.618

SALDUTAKO ZINEMA SARRERA-KOPURUA, IKUSLEKO 2005²




BILDUTAKO DIRU-KOPURUA


ZINEMAN GASTATUKO BATEZ BESTEKO DIRU-KOPURUA BIZTANLEKO, LURRALDEAREN ARABERA²



PROIEKZIO-ARETOETAN BILDUTAKO DIRU-KOPURUA, LURRALDEAREN ARABERA¹ Bildutako diru-kopuru guztia: 31.130.000€




BILDUTAKO DIRU-KOPURUA, FILM MOTAREN ARABERA 2006¹



ENPRESA-KARAKTERIZAZIOA

ARTISAUTZA-ENPRESEN BANAKETA L.H.EN ARABERA




ENPLEGUA

LANGILE-KOPURUA

L.H.	Guzt.	%
EAE	521	100
Araba	55	10,5
Bizkaia	217	41,7
Gipuzkoa	249	47,8

LANGILE-KOPURUA LURRALDEAREN ARABERA



ENPRESEN BANAKETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA

Jarduera	%
Zurezko altzairuak	14,1
Zurezko objektuak	13,7
Zeramika	13,3
Landare-zuntzak	9,9
Ehuna	8,4
Bitxigintza	7,2
Metala	6,8
Beira	6,5
Larrua	4,9
Musika-tresnak	1,1
Marmola, harria eta igeltsua	1,1
Beste zenbait	12,9

LANGILEEN BANAKETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA

Jarduera	%
Zurezko altzairuak	16,2
Zeramika	13,3
Ehuna	10,7
Landare-zuntzak	9,7
Beira	9,3
Zurezko objektuak	9,1
Metala	8,1
Bitxigintza	5,9
Larrua	3,8
Marmola, harria eta igeltsua	1,8
Musika tresnak	1,1
Beste zenbait	10,9


JARDUERA

ARTISAUTZA-ENPRESEK ERABILTZEN DITUZTEN MERKATURATZEKO BIDEAK (enpresen %)

Hauen bidez zuzenean saltzen dutenen %:	%
Lantegia	19,9
Berezko denda	15,9
Arduraduna	74,7
Merkatua	7,2
Azokak	48,0
Beste batzuk	1,8
Hauen bidez zeharka saltzen dutenen %:	%
Handizkariak	4,7
Txikizkariak	16,6
Komisiodunak	0,7
Lantegiak/harekin elkarlanean jarduten duten enpresak	5,4
Esportazio zuzena egiten dutenen %	6,9
Zeharkako esportazioa egiten dutenen %	0,7

ARTISAUAREN EDO ARTISAUTZA-ENPRESETAKO TITULARREN PROFILA


ARTISAUAK EDO ARTISAUTZA-ENPRESETAKO TITULARRAK GENEROAREN ARABERA




1. 2004 urteko informazioa. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. *Euskal Autonomia Erkidegoko Artisautza Industrien azterketa*.

ARTISAUTZA-INDUSTRIA


ARTISAUAK EDO ARTISAUTZA-ENPRESETAKO TITULARRAK ADINAREN ARABERA (Batez besteko adina)



ARTISAUAK EDO ARTISAUTZA-ENPRESETAKO TITULARRAK, ARTISAUTZA-JARDUERA NAGUSIA EDO OSAGARRIA DENAREN ARABERA




ARTISAUAK EDO ARTISAUTZA-ENPRESETAKO TITULARRAK IKASKETA-MAILAREN ARABERA



TREBAKUNTZA

BIRZIKLATZE PROFESIONALEKO IKASTAROETAN PARTE HARTZEN DUTEN ARTISAUTZA-ENPRESEN PORTZENTAJEA, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA



3.4. KOMUNIKABIDEAK

Komunikabideak (prentsa, irratia, telebista eta sareko komunikabideak) kultura-industriaren forma berezi bat dira. Sektorearen ikuspegi instituzional edo sozializatzailetik begiratuta –kultura etengabe sortu, egokitu eta berritzearekin lotutakoa– nahiz ikuspegi ekonomikotik edo merkatuko ikuspegitik begiratuta –kultura-produktuaren balioa sortzearekin lotutakoa–, gero eta garrantzi gehiago hartzen ari da kultura-sektorearen barruan.

Informazio-iturrei dagokienez, komunikabideen sektoreko iturri gehienek ekoizpenaren tamainari eta inpaktuari (hedapena eta ikus-entzuleak) jartzen diote arreta. Sektoreak berak eta zerbitzu espezializatuak ematen dituzten enpresek ezaugarri horiei segimendua eta kontrola egiteko tresna eta metodologia egonkorrak sortu dituzte (OJD; EGM; TNS, CIES...). Horien bidez, sektoreko eragileek informazioa jasotzen dute eta, horrez gain, sektorea “motorizatzen” duten publizitate-inbertsioen norabidea zehazteko adierazle gisa erabiltzen dira.

Azken urteetan sektorean gertatzen ari diren aldaketen menpe egon arren, –doako prentsaren gorakadak, aldaketa teknologikoen, tokiko komunikabideen garapenak... behaketa-sistemak eta –metodologiak berraztertu, eguneratu eta hobetzea eskatzen du– sektoreari buruzko informazioa hazten eta finkatzen ari da.

Informazio orokorra biltzen duen esparru indartsu horrek lurraldearen arabera irakurketa bereziak egitea eskatzen du. Dena den, EAEn tokiko esparru bereziago bati dagokion azterketa-eskala hobetzeko aukerak daude, eta, ondorioz, lan-ildo interesgarriak irekitzen ari dira.

Bestalde, sektorea hartzen ari den garrantzi estrategikoarekin batera, sektorearen ekonomia eta enpresa arloko informazioa ere gero eta gehiago hazten ari da. Hala, gaur egungo komunikabideei eta gertatzen diren aldaketa eta mugimenduei buruzko azterketa eta erradiografia asko egiten dira, batez ere, multimedia arloko eta ikus-entzunezkoen arloko komunikazio-talde handiei buruzkoak, estatuko burtsan

Gaur egungo komunikabideei eta gertatzen diren aldaketa eta mugimenduei buruzko azterketa eta erradiografia asko egiten dira, batez ere, multimedia arloko eta ikus-entzunezkoen arloko komunikazio-talde handiei buruzkoak

oihartzun eta eragin handia baitute. Dena den, oraindik ez dago informazio estatistiko sistematikorik hurbileko lurralde-eskalan. Beraz, behar beharrezkoa da lan-ildo hori lantzea –*Komunikabideen estatistika*– EAEko sektorearen erretratua egiteko.


Hala bada, EAERI buruzko berariazko informazioa bildu behar da sektorearen erretratu sektorial integratua egiteko. Horretarako, ekonomiaren eta enpresaren arloko informazioa eta hedapenaren eta ikusentzuleen arloko ezagutza bildu behar da, eta, espazioaren ikuspegitik, hurbileko arreta-guneak hartu behar dira kontuan, komunikabideak lurraldeko antolaketaren eta hierarkiaren arabera kokatuz, egitura erradiatuko erakunde mediatiko nagusietatik hasi, eta erkidegoko, eskualdeko eta tokiko errealitateetarako.

Hortaz, bertako komunikazio-enpresak aberasteko balioko duen informazio-bide egonkor eta erregularra sortu behar da, eta, horrez gain, erakundeetako eta sektoreko eragileek komunikabide-sistemaren erregulazio publiko-pribatuari buruzko ezagutza jasotzeko tresna bat jarri behar da martxan, sektorearen kalitatea, oreka eta kohesioa bultzatzeko.

EAERI buruzko berariazko informazioa bildu behar da sektorearen erretratu sektorial integratua egiteko

KARAKTERIZAZIO OROKORRA

KOMUNIKABIDEEN IKUS-ENTZULEAK EAEN




KOMUNIKABIDEEN IKUS-ENTZULEAK LURRALDEAREN ARABERA¹

L.H.	Prentsa	Irratia	Telebista	Internet ²
Araba	48,8	59,2	81,6	42,8
Bizkaia	45,5	56,4	84,9	43,5
Gipuzkoa	57,6	59,0	86,5	49,0

JARDUERA

EAKO EGUNKARIEN HEDAPENAREN BATEZBESTEKOA³

(ale-kopurua)



1. 2006. urteko informazioa. Iturria: CIES. 2006ko Euskadiko komunikabideen ikus-entzuleen azterketa.

2. Azken hilabeteetan sartutako aldien portzentajeak

3. 2006. urteko informazioa. Iturria: ZNB. ZNBn erregistratutako egunkariei buruzko datuak.

4. 2006. urteko informazioa. Iturria: AIMC. Komunikabideen Azterketa Orokorra. Komunikabideen esparru orokorra Espainian 2007.

IKUS-ENTZULEEN EZAUGARRIAK


IRRATIAREN ETA TELEBISTAREN EGUNEROKO KONTSUMOAREN BATEZBESTEKOA⁴

(Biztanleria osoarekiko minutuen batezbestekoa)

Irratia	113
Telebista	196


TELEBISTA-KONTSUMOAREN BILAKAERA EAEN⁴

(Biztanleria osoarekiko minutuen batezbestekoa)




EGUNKARIEN IRAKURLEAK EAEN¹

(14 urte edo gehiagoko biztanleriaren arteko irakurleak)




IRRATI-KATEEN ENTZULEAK EAEN¹

(14 urte edo gehiagoko biztanleriaren arteko entzuleak)




TELEBISTA-KATEEN IKUS-ENTZULEAK EAEN¹


(14 urte edo gehiagoko biztanleriaren arteko ikus-entzuleak)




IRAKURLEAK, IKUS-ENTZULEAK ETA ENTZULEAK GENEROAREN ARABERA¹



IRAKURLEAK, IKUS-ENTZULEAK ETA ENTZULEAK LURRALDEAREN ARABERA¹



IRAKURLEAK, IKUS-ENTZULEAK ETA ENTZULEAK ADINAREN ARABERA¹



3.5. ZEHARKAKO ELEMENTUAK

Azpisistemez gain –ondarea, arteak, kultura-industriak, komunikabideak–, hainbat zeharkako elementuk garrantzia dute, eta beharrezkoa da elementu horien hurbilketa integratzaile eta horizontala egitea, kulturari buruzko informazioaren egoera eta erronkak aztertzeke.

Dudarik gabe, **kontsumo-ohiturak eta kultura-praktikak** zeharkako ikuspegi horren erreferentziatzeko elementuak dira. Orain arte, Kultura Ministerioaren kultura-ohiturei buruzko estatistikan jaso da alor horiei buruzko informazioa. Estatistika garrantzitsua da, hamabost urtean behin egiten da, baina EAE-rako nahiko mugatua da, lurraldeko azterketak egiteko duen adierazgarritasun estatistikoa dela eta.

Hurbilketa horrekin batera, unean uneko beste ahalegin batzuk ere egiten dira: gaia lantzen duten zundaketa edo inkesta ez-sistematikoak eta gaiari zeharka heltzen dioten berariazko azterketak⁷. Hori horrela izanik, beharrezkoa da EAera mugatutako aldizkako hurbilketa sakona egitea. Hain zuzen, hori izango da Behatokiak berariaz landuko duen lehenengo erronketako bat.

Finantziario publikoa: kulturak finantziario publikoarekin menpekotasun handia du, bai kudeaketa aktiborako bai kultura zuzenean eta zeharka sustatzeko erakunde maila guztietan (Europako administrazioetik tokikora). Hala eta guztiz ere, jarduera instituzional bakoitzaren arabera erretratu zatikatuaz haratago, oraindik ez zaio aurre egin egoeraren erretratu globalaren erronkari. Alde horretatik, kulturaren finantziario publikoari buruzko informazio- eta estatistika-eragiketek garrantzia handia dute politika instituzionalei buruz hausnartzeko eta horiek perfektionatzeko tresna gisa.

Hezkuntza eta prestakuntza ez-arautua: kulturaren ikuspegitik, zeharkako alor interesgarriak dira horiek ere. Kultura Ministerioak ematen du alor horiei buruzko aldizkako informazio estatistiko bakarra. Halaber, ahaleginak egin behar, batetik, gure hezkuntza-sistemari buruzko informazioa optimizatzeke eta,

7. XXI. mende hasierako euskal identitateari eta kulturari buruzko azterketa duela gutxi argitaratu zen. Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Soziologia Azterketarako Kabineteak, Eusko Ikaskuntzak eta Euskal Kultur Erakundeak egin zuten azterketa.

Azpisistemez gain, hainbat zeharkako elementuk garrantzia dute, eta beharrezkoa da elementu horien hurbilketa integratzaile eta horizontala egitea, kulturari buruzko informazioaren egoera eta erronkak aztertzeke

bestetik, kulturaren arloko langileen etengabeko prestakuntza hobeto ezagutzeko berriazko hurbilketak diseinatzeko.

Euskarak identitate kulturalaren elementu gisa duen izaerari buruz, sektore bakoitzeko adierazle-etan duen presentzia sistematikoaz haratago, ikuspegi integratuaren beharra du.


Antzeko irakurketa egin daiteke beste hainbat eremutan. **Kultura digitalaren** kasuan ere. Bestalde, familiako aurrekontuen inkesta dela-eta **kultura-gastu pribatuari** buruz hainbat hurbilketa egiten ari dira ahalegin estatistikoetarako azpiproduktu gisa. Halaber, **kulturaren arloko enpleguei** buruzko berriazko hurbilketa egin behar da, kultura-sektoreko enpleguari buruzko ikuspegi kuantitatibo ekonomizista gainditzeko... Beraz, kulturaren arloko azpisistemekiko zeharkako izaera duten gai asko daude oraindik ere lantzeko. Epe labur, ertain eta luzean ditugun erronken panorama zabal bezain erakargarria erakusten du horrek; kulturaren behaketari buruzko ikerketa-eremu ireki bezain interesgarria.

Kulturaren arloko azpisistemekiko zeharkako izaera duten gai asko daude oraindik ere lantzeko. Epe labur, ertain eta luzean ditugun erronken panorama zabal bezain erakargarria erakusten du horrek; kulturaren behaketari buruzko ikerketa-eremu ireki bezain interesgarria

GASTU PUBLIKOA KULTURAN¹

ADMINISTRAZIO AUTONOMIKOA


KULTURAN LIKIDATUTAKO GASTUAREN BILAKAERA (milaka euro)



AUTONOMIA-ADMINISTRAZIOAK KULTURAN LIKIDATUTAKO GASTUA EAEN

Urteak	Estatuko gastua (mila eurokotan)	EAEko %, estatuko guztizkoarekiko
2001	1.038.730	6,7
2002	1.088.355	6,1
2003	1.217.894	6,2
2004	1.329.338	5,6

KULTURAN LIKIDATUTAKO GASTUA, GASTUAREN XEDEAREN ARABERA (Sektoreak)




LIKIDATUTAKO GASTUEN BANAKETA, DIZIPLINA ARTEKO SEKTOREAREN AZPISEKTOREEN ARABERA

Politika linguistikoa	66,4
Sustapena, hedapena eta kooperazio kulturala	30,6
Kulturaren zabalkunde kanpoan	0,0
Administrazioa eta zerbitzu orokorrak	0,0
Beste batzuk	0,0


LIKIDATUTAKO GASTUEN BANAKETA, ONDASUN ETA ZERBITZU KULTURALEN SEKTOREAREN AZPISEKTOREEN ARABERA

Ondare historikoa eta artistikoa	100,0
Artxiboak	0,0
Liburutegiak	0,0


KULTURAN LIKIDATUTAKO GASTUA, GASTUAREN IZAERA EKONOMIKOAREN ARABERA



GASTU KORRONTEEN BANAKETA EAEN



KAPITAL-GASTUEN BANAKETA EAEN




1. 2004ko informazioa. Iturria: Kultura Ministerioa. *Kulturaren finantziarioa eta gastu publikoaren estatistika.*

GASTU PUBLIKOA KULTURAN

TOKIKO ADMINISTRAZIOA

AUTONOMIA-ADMINISTRAZIOAK ETA TOKIKO ADMINISTRAZIOAK KULTURAN LIKIDATUTAKO GASTUEN ARTEKO KONPARAZIOA (mila eurokotan)




TOKIKO ADMINISTRAZIOAK KULTURAN LIKIDATUTAKO GASTUA, EAEN

Urteak	Estatuko gastua (mila eurokotan)	EAEko %, estatuko totalarekiko
2003	2.645.865	10,3
2004	2.674.148	10,6


KULTURAN LIKIDATUTAKO GASTUA, GASTUAREN XEDEAREN ARABERA

Arkeologia eta ondare historiko-artistikoaren babesa %12,1




KULTURAN LIKIDATUTAKO GASTUA, GASTUAREN IZAERA EKONOMIKOAREN ARABERA

Kapital gastuak %24,7




KULTURAN LIKIDATUTAKO GASTUA, ENTITATE-MOTAREN ARABERA

Aldundiak, Kontseiluak eta kabildoak %31,6



KULTURAN LIKIDATUTAKO GASTUA, UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA


<5.000 biztanle %31,1



EUSKARAREN PRESENTZIA KULTURAN


LIBURUTEGI PUBLIKOAK¹

LIBURUTEGI-FUNTSAK, HIZKUNTZAREN ARABERA



Gaztelania eta beste batzuk %75,9


LIBURUTEGIEK EROSITAKO MATERIALA, HIZKUNTZAREN ARABERA



Gaztelania eta beste batzuk %73,6


ARTE ESZENIKOAK²

SAIOAK, HIZKUNTZAREN ARABERA




Gaztelania eta beste batzuk %75,3

HAURRENTZAKO SAIOAK, HIZKUNTZAREN ARABERA



Euskera %72,0


IKUSLE-KOPURUA, HIZKUNTZAREN ARABERA



Gaztelania eta beste batzuk %79,5


KULTURA DIGITALA³

15 URTE BAINO GEHIAGO DITUZTEN INTERNET-ERABILTZAILEAK, HIZKUNTZAREN ARABERA (IV. hiruhilekoa 2006 / %)



ARGITALPEN-INDUSTRIA


EUSKARAZ ARGITARAZTEN DUTEN ARGITARATZAILEEN PROPORZIOA, AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ARABERA⁴



Beste erkidego batzuk %4,1

EAE %68,9

EAEN ARGITARAZTEN DUTEN ENPRESAK, TITULARTASUNAREN ARABERA⁴



Pribatuak %68,6

1. 2005eko informazioa. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. *Euskal Autonomia Erkidegoko Liburutegi publikoetako buruzko Azterketa*. Foru Aldundietako liburutegiei buruzko informazioa barne.

2. 2006ko informazioa. Iturria: Sarea. *Euskal Antzerkien Sarea. 2006ko Datu Estatistikoak*.

3. 2006ko informazioa. Iturria: Eustat. *Informazio Gizarteari buruzko Inkesta-IGI-familiak*.

4. 2005eko informazioa. Iturria: Euskadiko Editoreen Elkarte. *Euskarazko argitalpenen azterketa*.


EUSKARAREN PRESENTZIA KULTURAN

EUSKAL LIBURUGINTZA ⁵

Tituluen argitalpena, guztira	2.016
Berrinprimatzearen %	28,3
Lehenengo edizioaren %	71,7
Lehenengo edizioko tituluen argitalpena	1.459
Euskarazko argitalpenen %	73,5
Itzulpenen %	26,5


EUSKAL LIBURUGINTZA, GAIAREN ARABERA ⁵

(Banaketa ehunekotan, gaiaren arabera)




PRAKTIKA KULTURALAK ⁶

TELEBISTAREN; IRRATIAREN; EGUNKARIEN, ALDIZKARIEN EDO LIBURUEN ETA EUSKARAZKO DISKO EDO KASETEEN KONTSUMOA



HIZKUNTZAREN ERABILERA JARDUERA KULTURALETAN ⁷




5. 2005ko informazioa. Iturria: Jakin-158.Zenbakia. *Euskal Liburugintza 2005*.

6. 2006ko informazioa. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea Eusko Ikaskuntza eta Euskal Kultur Erakundea. *Euskal identitatea eta kultura XXI. Mendearen hasieran*.


7. Hizkuntzarik erabiltzen ez duten jardueretan (dantza; monumentuetara eginiko bisitaldiak, ahozko azalpenik gabekoak; eta abar), aurkezpena egiteko erabilitako hizkuntza eta seinaletika hartu dira kontuan.

IKT EKIPAMENDUA


ETXEAN IKT EKIPAMENDUA 15 URTEZ BAINO GEHIAGOZ ERABILI DUTEN EAKO BIZTANLEAK (IV. hiru hilekoa 2006 / %)




IKT EKIPAMENDUA 15 URTEZ BAINO GEHIAGOZ ERABILI DUTEN BIZTANLEAK, LURRALDEAREN ARABERA (urteko batezbestekoa / %)



IKT EKIPAMENDUA 15 URTEZ BAINO GEHIAGOZ ERABILI DUTEN BIZTANLEAK, GENEROAREN ARABERA (urteko batezbestekoa / %)




IKT EKIPAMENDUA 15 URTEZ BAINO GEHIAGOZ ERABILI DUTEN BIZTANLEAK, ADINAREN ARABERA (urteko batezbestekoa / %)




INTERNETEKO ERABILTZAILAREN PROFILA

15 URTE BAINO GEHIAGO DITUZTEN INTERNET-ERABILTZAILAK, LURRALDEAREN ARABERA (IV. hiru hilekoa 2006 / %)




15 URTE BAINO GEHIAGO DITUZTEN INTERNET-ERABILTZAILAK, ADINAREN ARABERA (IV. hiru hilekoa 2006 / %)




1. 2006ko informazioa. Iturria: Eustat. Informazio gizarteari buruzko Inkesta-IGI-Familiak.


15 URTE BAINO GEHIAGO DITUZTEN INTERNET-ERABILTZAILAK, GENEROAREN ARABERA (IV. hiruhilekoa 2006 / %)




15 URTE BAINO GEHIAGO DITUZTEN INTERNET-ERABILTZAILAK, JARDUERAREN ARABERA (IV. hiruhilekoa 2006 / %)




15 URTE BAINO GEHIAGO DITUZTEN INTERNET-ERABILTZAILAK, SARLEKUAREN ARABERA (IV. hiruhilekoa 2006 / %)




15 URTE BAINO GEHIAGO DITUZTEN INTERNET-ERABILTZAILAK, EGINDAKO SALEROSKETA-MOTAREN ARABERA (urteko batezbestekoa / milakotan)



15 URTE BAINO GEHIAGO DITUZTEN INTERNET-ERABILTZAILAK, ERABILTAKO ZERBITZUAREN ARABERA (IV. hiruhilekoa 2006 / %)




15 URTE BAINO GEHIAGO DITUZTEN INTERNET-ERABILTZAILAK, BISITATUTAKO WEB ORRIAREN ARABERA (urteko batezbestekoa / milakotan)



ONDASUN ETA ZERBITZU KULTURALETAN GASTATUTAKOA¹


ONDASUNETAN ETA ZERBITZU KULTURALETAN EGINDAKO GASTU OSOAREN BILAKAERA EAEN (milioi €)




Oinarritzko adierazleak (2004)	
Ondasunetan eta zerbitzu kulturetan egindako gastua, ondasunetan eta zerbitzuetan egindako gastu osoarekiko (%)	3,3
EAEn ondasun eta zerbitzu kulturetan egindako gastua, estatuko gastu osoarekiko (%)	5,4
Ondasun eta zerbitzu kulturetan egindako gastuaren urteko batez bestekoa, etxeko (€)	848,3
Ondasun eta zerbitzu kulturetan egindako gastuaren urteko batez bestekoa, pertsonako (€)	283,4

JARDUERA KULTURALETAN IZANDAKO PARTE-HARTZEA²


JARDUERA KULTURALETAKO PARTE-HARTZEAREN KOPURUA
(Azken hiru hilabeteetan gutxienez behin joan direnen %)



JARDUERA KULTURALETAKO PARTE-HARTZEAREN KOPURUA, LURRALDEAREN ARABERA (Azken hiru hilabeteetan gutxienez behin joan direnen %)



JARDUERA KULTURALETAKO PARTE-HARTZEAREN KOPURUA, ADINAREN ARABERA (Azken hiru hilabeteetan noizbait joan direnen %)



1. 2004ko informazioa. Iturria: INE. Arrekontuei buruzko inkesta jarraitua.


2. 2006ko informazioa. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariatzako Prospekzio Soziologikoen Kabineta, Eusko Ikaskuntza eta Euskal Kultur Erakundea. *Euskal identitatea eta kultura XXI. Mendearen hasieran.*

3. Aurkeztutako informazioak adierazten du jarduera bat zer portzentajetan egin den euskaraz, herritar guztien artean ekitntza hori gauzatu den kopuruarekin alderatuta. Ez da bertso-saioei, pastoralei eta maskaradei buruzko informazioirik biltzen, beti euskaraz idatzita baitaude. Ez da dantza garaikideari edo klasikoari buruzko informazioirik biltzen, erabilitako iturrian adierazten baita kasu gutxi daudela eta ezin dela dauen fidagarritasuna bermatu.


KULTURA-GASTUA ETA -PRAKTIKAK

KONTSUMOA EUSKARAZ²


TELEBISTAREN KONTSUMOA EUSKARAZ, LURRALDEAREN ARABERA




IRRATIAREN KONTSUMOA EUSKARAZ, LURRALDEAREN ARABERA




EGUNKARIEN, ALDIZKARIEN ETA LIBURUEN KONTSUMOA EUSKARAZ, LURRALDEAREN ARABERA




EUSKAL MUSIKA-DISKOEN EDO –KASETEEN KONTSUMOA EUSKARAZ, LURRALDEAREN ARABERA




TELEBISTAREN KONTSUMOA EUSKARAZ, EUSKARAREN EZAGUTZAREN ARABERA




IRRATIAREN KONTSUMOA EUSKARAZ, EUSKARAREN EZAGUTZAREN ARABERA



EGUNKARIEN, ALDIZKARIEN ETA LIBURUEN KONTSUMOA EUSKARAZ, EUSKARAREN EZAGUTZAREN ARABERA




EUSKAL MUSIKA-DISKOEN EDO –KASETEEN KONTSUMOA EUSKARAZ, EUSKARAREN EZAGUTZAREN ARABERA



4. EUSKAL KULTURAREN ESPARRU ESTADISTIKORANTZ

Behatokiaren lehen egitura-lana Esparru Estatistikoa lortzea izan da, behaketa-eremua mugatzeko, eremu horietan kudeatu beharreko oinarrizko adierazleak eta horien euskarri izango diren informazio-iturriak kokatzeko eta informazio-sistemaren kudeaketa teknologikoaren ildo nagusietan aurrera egiteko. Hori guztia bi helburutara bideratuta dago: sortutako ezagutzaren hedapena/sozializazioa eta informazioa jasotzeko mekanismoak.

Behatokiak lehen ekitaldian izan duen jardueraren zati handi bat hiru lan gauzatzera bideratu da. Sorrrer-lanek bere gain izaten duten zailtasuna eta aldi bereko erakargarritasuna izan da lan horren ezaugarri bereizgarria.



Kultura behatzeko eremuaren muga “behatzailearen perspektibak” finkatzen du, hau da, perspektibak ematen dio karga kontzeptual handia, horri buruzko printzipioen adierazpena baita

4.1. BEHAKETA-EREMUA: IKUSPEGIAK ETA PERSPEKTIBAK

Kultura behatzeko eremuaren muga “behatzailearen perspektibak” finkatzen du, hau da, perspektibak ematen dio karga kontzeptual handia, horri buruzko printzipioen adierazpena baita.

politika kulturalak diseinatzen eta kudeatzen lagunduko duten irtenbideak eta planteamenduak bilatzen eta sartzan direla –hots, sektorearen espezifikotasunari moldatutako gailu eta metodologia estatistikoak sartzan dira.

EBren kasuan, Unescoren definizio kulturalerako lanetatik abiatuta 1990. hamarkadaren hasieratik garatutako hurbilketak ez dira kontzeptualak izan; nagusiki, estatistiko-metodologikoak izan dira. Bateratzeko helburuak markatu ditu: guztiek partekatzen dituzten tresnak sortu ditu, herrialde kideen ikuspegi metatuak eskaintzeko edo kideen arteko ikuspegiak alderatzeko aproposak. Hau da, Europa mailako hausnarketari edukia ematea da helburua.

1990. hamarkadaren erdialdetik aurrera LEGaren (Leadership Group) bidez, eta 2000. urtetik Eurostatetik sortutako Estatistika Kulturaletarako Lan-taldearen bidez, Europan aktibo dago estatistika kulturalak bateratzeko hausnarketa eta lana.

Azken urteetan, eremu kulturala eta hori osatzen duten jarduera kulturalak mugatzen jardun da, Europako politikaren ikuspegitik zeharkako hiru eremu garrantzitsutan estatistika bateratuak lortzeko helburuarekin: lan kulturala, ohitura/jarduera kulturalak eta kulturaren finantziario publikoa.

Ahalegin horiei esker, ikuspegi interesgarria eta metodologikoki zehatza lortzen ari da, termino estatistikoei dagokienez. Herrialde kideek estatistika kulturean egindako ahaleginen ibilbidea markatzen du horrek, eta ez gara hortik aldenduko, ezta komeni ere.

Lanean aurrerapauso handiak egin dira, baina pauso horiek talka egiten dute maiz herrialdeen aniztasun kontzeptualekin eta metodologikoekin eta etengabe integratzeko dinamikatik eratortzen diren inertziekin. Testuinguru horretan, partekatutako gutxiengoaren informazioaren lehentasuna ez da bateratzen kudeatzaile kulturek kulturaren sektorearen egoera eta funtzionamendua ezagutzeko beharrei moldatutako informazioaren xehetasunarekin eta aberastasunarekin.

**EBren kasuan,
Unescoren definizio
kulturalerako lanetatik
abiatuta 1990.
hamarkadaren
hasieratik garatutako
hurbilketak ez dira
kontzeptualak izan;
nagusiki, estatistiko-
metodologikoak izan
dira**

Ikuspegi estatistiko eta kulturaletik zer neurtu/aztertu daitekeen definitu behar da, eta, aldi berean, erabiltzen diren eremu estatistikoen koherentziarekin eta operagarritasunarekin bateratu behar da ikuspuntu hori (eremu estatistikoen kontzeptuekin, definizioekin, taxonomiekin eta normalizatutako azterketa/sailkapen kategoria ezagunekin, hain zuzen ere).

Lan horrek erantzuteko bide ugari irekitzen ditu. Behatokiaren lehen ekitaldian garatutako lanen bidez, gai hori landu duten herrialdeetako esperientziak berrikusi dira. Azterketa horri esker aurkitu dira Quebec-eko eredu kontzeptuala eta EBk –Eurostat– termino estatistiko-terminologikoei dagokienez egiten duen bateratze-lan dinamikoa.

Quebec-en kasuak lotura du Kulturaren Euskal Behatokiarekin; izan ere, jarduera kulturalari eta hori garatzen duen enpresa-sareari erreparatzen dio, alde batetik, eta, bestetik, hobekuntza-funtzioa ematen dio behaketa-jarduerari. Ikuspegi horrek, ezaugarri bat gehiago izan beharrean, ereduaren, horren apustuen eta lehentasunen identitate-erreferentzia eskaintzen du.

Jarduera kulturala sormen-lana eta horren komunikazioa dela ulertzetik abiatuz –neurri baterainoko autonomiak eta lanetan sormen-zeinuak agertzeak definitzen du jabetza intelektuala sor dezakeen sormen-lana–, Quebec-eko ereduak lan hori garatzen duen ekoizpen-sare kulturalerantz begiratzen du baliola sortzen duten katebegietatik (sormena, ekoizpena, hedapena/erakusketa). Eta muin horretatik merkatura zabaltzen da produktu kulturalaren (kontsumo eta ohitura kulturalen erreferentzia) eta horren ondorio sozialen bitartez.

Erreferentzia moduan produktu kulturala hartu eta sektorea sistema estatistiko orokorrera bideratzen duten beste eredu hotzagoen aldean (Kanada), edo sormena zeharkako lotura gisa hartuta kulturalak ez diren beste sektore batzuetara irekitako cluster zabalaren kontzeptuari lehentasuna ematen dion ikusmolde ekonomizistaren aurrean (Krea Txostena), Quebec-eko begirada sektorean bertan kokatzen da. Horrek esan nahi du, behaketari dagokionez, ez dela aplikatzen sistema estatistiko orokorra, baizik eta

Ikuspegi estatistiko eta kulturaletik zer neurtu/aztertu daitekeen definitu behar da, eta, aldi berean, erabiltzen diren eremu estatistikoen koherentziarekin eta operagarritasunarekin bateratu behar da ikuspuntu hori

Praktikan, beraz, nahitaezkoa da bakoitzak aurrera egitea –eta batzutan lehenak izatea–, EBtik herrialde kideetako estatistika-erakundeetara datozen lerro eta urrats metodologikoak errespetatuz eta horiekin koherentzia izanez, eta prozesua etengabeko eraikuntza autonomoa, eta, aldi berean, partekatua izatea.

4.1.1. Eredu propioa: kontzeptuak eta definizioak

Jarduera kulturala eta EBn estatistika kulturalak eraikitzen joateko Quebec-eko ikuspuntua eta Eurostateg ezarritako urrats metodologikoak bateratuz, Kulturaren Euskal Behatokiak sektore kulturala mugatu nahi du helburu hau betetzen duen sektore gisa: *Jarduera edo proiektu estetikoetan eta komunikatiboetan egindako sormen-lanaren bidez sortutako ekoizpen sinbolikoa, ordezkatu ezin diren produktuak edo zerbitzuak sortzen dituenen –eta eskubideak sor ditzakeena– eta edukiak eta interpretazioak etengabe berritzen dituenen.*

Helburu sektorial horretan sartzen dira **ekoizpen-eremu** hauek, azpisektoretan eta jarduera-adarretan banatuta:

a) Ondarea. Hauek sartzen dira:

- Museoak, artxiboak, liburutegiak eta mediatekak, eta ondare-ondasunak

b) Adierazpen artistikoa. Hauek sartzen dira:

- Arte eszenikoak eta musika: antzerkia, musika, dantza eta ahozko tradizioa
- Ikusizko arteak

c) Industria kulturalak. Hauek ditu barnean:

- Ikus-entzunezkoen sektorea (zinema eta bideoa) eta multimedia
- Argitalpen-industria (liburuak)

Lanean aurrerapauso handiak egin dira, baina pauso horiek talka egiten dute maiz herrialdeen aniztasun kontzeptualekin eta metodologikoekin eta etengabe integratzeko dinamikatik eratortzen diren inertziekin

- Industria fonografikoa

- Artisautza

d) Komunikabideak:

- Irratia eta telebista.

- Adizkako argitalpenak

e) Beste zenbait jarduera: Orain arte deskribatutako ekoizpen-eremuen aldean, sektore kulturalaren helburuari zorrotz lotutakoak denak, epigrafe honetan sektoreko helburu horren inguruan edo mugan dauden eta/edo osagarriak diren jarduera ekonomikoak sartzen dira. Hainbat arrazoi-erengatik –sormenarengatik edo nazioarteko estatistikarekin alderatzeko ahalmenagatik– eta intentsitate-maila desberdinarekin, interes estatistiko kulturala duten jarduera gisa agertzen dira. Hauek sartzen dira:

- Bestelako sormen-jarduerak

- ♦ Arkitektura

- ♦ Diseinua

- ♦ Publizitatea

- Jarduera eta produktu osagarriak

- ♦ Arte grafikoak eta horiekin loturiko zerbitzuetako jarduerak

- ♦ Musika-tresnak egitea

- ♦ Soinua eta irudia jaso, grabatu eta birsortzeko aparatuak eta euskarriak egitea

- Turismo kulturala

Praktikan, beraz, nahitaezkoa da bakoitzak aurrera egitea, EBtik herrialde kideetako estatistika-erakundeetara datozen lerro eta urrats metodologikoak errespetatuz eta horiekin koherentzia izanez, eta prozesua etengabeko eraikuntza autonomoa, eta, aldi berean, partekatua izatea

Lehen kasuan –Bestelako sormen jarduerak–, atalak duen “muga” izaera eta, sailkapenari dagokionez, nazioarte mailan dagoen eztabaida dela eta; ez da horren sormen-izaera eztabaidatzen, baizik eta sortzen diren produktuak kontsumo kulturalerako produktuak izan beharrean beste sektore ekoizle ez-kulturalen ekarpenak izatea.

Jarduera eta produktu osagarriak, bestalde, ondasun eta zerbitzu-mota desberdinak sortzeari egiten dio erreferentzia. Guztiak ezinbestekoak dira sormen kulturalerako (esaterako, musika-instrumentuak egitea), kultura ekoizteko (arte grafikoak, adibidez) eta kultura kontsumitzeko (esaterako kontsumo-elektronika, CDak...). Horri buruz esan beharra dago, Eurostatek behaketa-alorrean sartzeaz gainera, beharrezkoa dela horiek kontutan hartzea beste herrialde batzuekin alderatu ahal izateko.

Azkenik, Turismo kulturala terminoa hedatua eta ezarria dago jada, eta lurraldearen baliabide turistikoaren kontzeptuari lotzen zaio (Baliabide Kulturalak⁸). Estatistikoki, hala ere, sortzen duen informazio kuantitatiboa nahiko mugatua da. Izan ere, arrazoi turistikoaren arabera sailkapen-esparru zabal eta konplexuan, nahiko kategoriatuak dira kontsumo kulturalari dagokionez. Kategoriatuak “garbiagoa” bihurtzeko bereizketa espezifikoak eta horren ondorioz sor daitezkeen lan-aukerak erronka interesgarriak dira, kulturak sortzen duen trakzio-funtzioa eta erakartze-funtzioa ikusteko. Ez soilik baliabide kultural tradizionaletatik, baita kultura-ekitaldiei lotutako jarduerak kulturaletatik ere (musika-ekitaldiak, zinema eta abar).

Aipatutako ekoizpen-eremu horiek honela egituratzen dira eskaintza –produktua– eskaria/erabil-tzailea eskeman:

1. Eskaintza kulturalak edo kultura igortzen duen sistema jarduera kulturalari lotutako balio-kateko katebegiak osatzen dituzten enpresek eta langileek osatzen dute (Quebec): sorkuntza, ekoizpena eta banaketa/erakusketa.

8. Produktu turistikoak baliabide hauetan egiten dira: nekazaritza eta natura; eguzkia eta hondartza, aisialdia, kultura, azokak, kongresuak eta negoziak.

**Turismo kulturala
kategoria “garbiagoa”
bihurtzeko bereizketa
espezifikoak eta horren
ondorioz sor
daitezkeen lan-aukerak
erronka interesgarriak
dira, kulturak sortzen
duen trakzio-funtzioa
eta erakartze-funtzioa
ikusteko**

Estatistikoki, aipatutako enpresak eta horiek garatutako jarduerak behatzearekin eta horien segimendua egitearekin erlazionatzen da horien estaldura, bi ikuspuntutatik:

- Fisikoa: egun dauden establezimenduak eta lanpostuak. Horien kuantifikazioa eta karakterizazioa hainbat irizpideren arabera (jarduera, tamaina, irizpide soziodemografikoak, lurraldekoak, kontratukoak eta abar).
- Ekonomikoa: sortutako jarduera kuantifikatzea eta karakterizatzea (diru-sarrerak, gastuak, erabilitako eta sortutako baliabideak eta abar).

Eskaintza Kulturalen edo kulturaren igorpen-sisteman ere sartzan dira, beraz, jarduera kulturalaren euskarri diren azpiegitura kulturalak.

2. Jarduera kulturalaren emaitza da produktua edo mezua. Hori ere behatu egingo da eta segimendua egingo zaio, bi ikuspuntutatik:

- Fisikoa: sortutako produktuak kuantifikatzea eta karakterizatzea jardueraren eremu bakoitzean irizpide jakinetan arreta jarrita.
- Ekonomikoa: produktu horiei lotutako salmentak eta horien karakterizazioa, hainbat irizpidetan (barne-merkatua, esportazioak, inportazioak...) eta bestelako elementu osagarrietan (prezioak eta abar) arreta jarrita.

3. Eskaerak edo mezu kulturalaren sistema hartzaileak kontsumitzailearen edo produktu kulturalaren erabiltzailearen eta jarduera kultural aktiboen agenteen ikuspuntua jasotzen du. Hori ere estatistikoki behatuko da eta segimendua egingo zaio, aipatutako bi ikuspuntutatik:

- Fisikoa: produktu kulturalen kontsumo-ohituren kuantifikazioa eta karakterizazioa (zaletasunak, maiztasunak, produktua eskuratzeko moduak, erabileraren intentsitatea eta abar); jarduera

Eskaintza kulturalak edo kultura igortzen duen sistema jarduera kulturalari lotutako balio-kateko katebegiak osatzen dituzten enpresek eta langileek osatzen dute

kultural aktiboen kuantifikazioa eta karakterizazioa; horien kontsumoari eta horiek erabiltzeari lotutako ekipamenduei buruzko informazioa.

- Ekonomikoa: kontsumitzaileen gastu kulturala. Kultura kontsumitzeko familien aurrekontutik erabiltzen den zatia, eta aukeratzen diren produktu kulturalak, kanala eta abar.

Deskribatu den helburu kulturalaren barruan, hala ere, ez dira goian adierazitako ekoizpen-eremuak bakarrik agertzen, **eremu erregulatzaileak** ere agertzen dira. Helburu kultural horren zerbitzura jokatzeko duten jarduera-eremuak dira, balio-kateko beste katebegi batzuk osatzen dituzte eta ekoizpen-eremuetako jarduera garatzeko baldintzak sortzen dituzte. Horiek gabe sektorearen beraren izateko arrazoa eta kulturaren ekonomia kontzeptua bera ezin dira ulertu.

Operatiboki, hiru azpisektore bereizitan egituratu daitezke eremu erregulatzaileak:

- a) Trebakuntza eta ikerketa: jarduera kulturalaren ezaugarri propioak, horren sormen-izaera eta edukien eta interpretazioen etengabeko berrikuntza kontuan hartuta (berarekin dakarren balio intelektualarekin batera), jarduera horren elementu propioak dira trebakuntza eta ikerketa. Izan ere, KEPen ikuspegitik, kulturaren balio-kateko lehen katebegi gisa sartu zen eremu hori.

Bere horretan azterketarako eremu interesgarria bada ere, behaketa estatistikoari dagokionez, egun dagoen trebakuntza-eskaintza kuantifikatzeko eta karakterizatzeko da interesgarria, batez ere, irakaskuntza-adarretan sortzen dituen pertsona trebatuen kopurua kuantifikatzeko.

- b) Antolamendu publikoa: izen horren barruan jaso nahi da administrazio publikoak sektore kulturalaren izaeran duen agerpena eta izaera estrategikoa. Hainbat funtziotan gauzatzen da hori: Estatu jabea, finantzatzen duena, sustatzailea eta giltzarria, arbitroa, bertakotzen duena eta konpentsatzailea, erregulatzailea, bezeroa, kudeatzailea, ikuskatzailea, bitartekaria (R. Zallo). Funtzio horiek kulturaren izaeran, funtzionalitatean eta gizartean duen eraginkortasunean dute izateko arrazoa –izaera ekonomikotik haratago–, eta ondasunen izaera publikoan eta horien inpaktu sozialean ikusten da.

Deskribatu den helburu kulturalaren barruan, ez dira goian adierazitako ekoizpen-eremuak bakarrik agertzen, eremu erregulatzaileak ere agertzen dira. Helburu kultural horren zerbitzura jokatzeko duten jarduera-eremuak dira, balio-kateko beste katebegi batzuk osatzen dituzte eta ekoizpen-eremuetako jarduera garatzeko baldintzak sortzen dituzte

Kulturari dagozkion politika publikoen diseinuak, kudeaketak eta inpaktuak analisirako eremu interesgarria osatzen dute, maila instituzional guztietan –Europatik bertakora. Behaketa estatistikoaren ikuspuntutik, hala ere, arreta eta esfortzuak bideratzen dituen elementua dago: kulturaren gastu publikoa.

- c) Antolamendu pribatua: izen horren barruan sartzen dira elkarteen jardueren multzoa. Horiek sektorearen egitura eta dinamizazioa beste ikuspegi batetik garatzen dute: kideei zerbitzuak eskaintzea, instituzioen aurrean ordezkari eta bitartekari gisa jokatzea, sormena sustatzeko jarduerak bultzatzea, berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzea, informatzea, hezkuntza ez arautua eta abar... Espezifikoki multzokatzen dira produktu kulturalen eskubideak eta horiek sortzen dituzten baliabideak kudeatzeak duen garrantziagatik.

Operatiboki, kulturaren eredu estatistikoan agertzean ez du behatutako erakundeen funtzio pasiboa betetzen, baizik eta ordezkatzeko dituzten ekoizpen-eremuen artean garatzen diren behaketa eta segimendu estatistikoaren prozesuak dinamizatzeko, sustatzeko eta errazteko funtzio aktiboa.

Ekoizpen-eremuetako (sormena, ekoizpena eta hedapena; jarduera produktu bihurtzea eta horiek kontsumitzea eta/edo horien jarduera aktiboa) eta eremu erregulatzailerako (trebakuntza eta ikerketa, antolamendu publikoa eta pribatua) jarduera kulturala gaztelaniaz eta/edo euskaraz egiten da, eta gero eta gehiago erabiltzen dira elementu teknologiko berriak –materialak, teknikoak eta lan egiteko modu digitalak.

Ekoizpen-eremuetako eta eremu erregulatzailerako jarduera kulturalaren hizkuntza eta teknologia edozein dela ere, bereziki interesgarria da behaketa zatikatua gainditu eta behaketa bateratua egitea, hauen balorazio globala izateko:

- Zeharkako hizkuntza-perspektiba –euskara–: Jarduera kulturalean euskara/gaztelania agertzea.

**Behaketa
estatistikoaren
ikuspuntutik, hala ere,
arreta eta esfortzuak
bideratzen dituen
elementua dago:
kulturaren gastu
publikoa**

- Zeharkako teknologia-perspektiba –kultura digitala–: Jarduera kulturaletan IKTei lotutako materialak eta produktu digitalak, teknikak eta lan-prozedurak, erlazionatzeko, parte hartzeko, sartzeko moduak... agertzea eta mailaka sartzea.

Azkenik, ekoizpen-eremuen eta eremu erregulatzailen behaketa lurraldean egiten denez, behaketaren lurralde-eremuak agertzen dira.

Teorian, behaketa ideiala behetik gora planteatu den errolda- eta lurralde-jarduera bat den arren; praktikan, kudeaketa estatistikoa laginketa-lanean, inferentzia estatistikoan eta zenbatespenean oinarritzen da kasu gehienetan, hori garatzeak dakartzan zailtasun operatiboak eta aurrekontu-zailtasunak direla eta.

Erroldako informazioa udalerrira kudeatzeak duen interesetik abiatuta, badirudi beharrezkoa dela Herrialde historikoa behaketa sistematikorako lurralde-unitate gisa hartzea, Autonomia Erkidegoarekin batera.

Aurretik definitutako helburu kulturalari lotutako ekoizpen-eremuak, eremu erregulatzailak eta lurralde-eremuak bateratuta, behaketa estatistikoko esparru bat osatzen da, eta hurrengo orrialdean agertzen den eskemaren arabera adieraz daiteke.

Aurretik definitutako helburu kulturalari lotutako ekoizpen-eremuak, eremu erregulatzailak eta lurralde-eremuak bateratuta, behaketa estatistikoko esparru bat osatzen da

BEHAKETA KULTURALEKO EREMUA

EREMU ERREGULATZAILEA			EKOIZPEN-EREMUA						
Trebakuntza Ikerketa	Antolamendu Publikoa	Antolamendu Pribatua	SEKTOREAK ETA AZPISEKTOREAK		ESKAINTZA			PRODUKTUA	ESKAERA/ ERABILTAILEA
					Sorkuntza	Ekoizp.	Heda-pena/erak.		
Trebakuntza- eskaintza (kuantifi- kazioa eta karakte- rizazioa) Trebatuak	Gastu publikoa Diseinua, kudeaketa eta politika publi- koen inaktuak	Egun dauden egitu- rak: kop., kideak Baliabide metatuak	Ondarea	Museoak Artxiboak Liburutegiak Ondare-ondasunak					
			Adierazpen artistikoa	Arte eszenikoak eta musikalak Antzerkia Musika Dantza Ahozko tradizioa Ikusizko artea					
			Industria kulturala	Ikus-entzunezkoen sek- torea (zinema eta bideoa) eta Multimedia Argitalpen-industria (li- buruak) Ind. fonografikoa Artisautza-industria					
			Komunikabideak	Irratia eta telebista Aldizkako argitalpenak					
			Beste zenbait jarduera	Bestelako sormen-jar- duerak Arkitektura Diseinua Publizitatea Jarduera eta produktu osagarriak Arte grafikoak Musika-instrumentuak Soinu eta irudirako eus- karriak eta gailuak Turismo kulturala					
Hezkuntza arautua Hezkuntza ez arautua Ikerketa ...	Administrazioa: Europa Estatua Autonomia-erkidegokoa Forala Herrikoa	Elkarte sektorialak Eskubideen kude- aketa			Fisikoa Enpresak Establezimenduak Langileak Azpiegiturak		Fisikoa Kuantifikazioa Ezaugarriak	Fisikoa Ohitura kulturalak Ekipamendua Jarduera kulturalak	
					Ekonomikoa Garatutako jarduera Baliabide metatuak		Ekonomikoa Salmentak	Ekonomikoa Gastu kulturala	

Euskara – Kultura digitala: hizkuntzaren eta teknologiares zeharkako perspektiba

LURRALDE EREMUA

4.2. ADIERAZLEAK ETA INFORMAZIO-ITURRIAK: LAN-PROZESU IREKIA

Aurretik mugatutako behaketa-eremuaren eta deskribatutako eredu kontzeptualaren gainean, lanerako bigarren bide bat ireki du Esparru Estatistikoa eraikitzeak: aurreikusiriko sektore/azpisektoreen lanerako helburu izango diren adierazleen eta elikatu beharko diren informazio-iturrien identifikazioa.

Bi elementuak batzeak Esparru Estatistikoaren Matrizea deritzona osatzen du sektore bakoitzarentzat. Ekoizpen-eremu bakoitzarentzako, behaketarako oinarritzko adierazleak nahiz horiei buruzko informazioa lortzeko iturriak –zuzenak edo inkestakoak, bai eta zeharkakoak edo administratiboak ere– barnean hartzen dituen bi sarrerako koadroa da.

Hori garatzeko, behaketa-eremu bakoitzari lotutako sektorekako ezagutzak eta ezagutza estatistikoak batu behar dira; eta, aldi berean, erakundeen eta sektorearen arteko kolaborazio eta adostasun-lana behar da.

Gertaera horri erantzunez, hori estaltzeko lanen prozesua hiru fase sekuentzialetan antolatu da:

- Lehenengo fasean, barnekoan (behatokiko teknikari-taldeak garatutakoa), sektore/azpisektore bakoitzarentzako oinarritzko produktua edo hasierako matrizea sortzen da (15 azpisektore hartzen dira kontuan).

Hori garatzeko, nazioarteko (Frantzia, Québec, Unesco, Espainia, Katalunia) kultura-estatistiken bidez lortutako Adierazleak aztertu behar izan dira, bai eta EAeko estatistiken tratamendua eta sistematizazioa egin ere.

- Bigarren fasean, parte-hartzaileenean, sektoreko aditu-talde batek bere iritzia ematen du Oinarritzko Produktu horri buruz, hori perfektionatzen laguntzeko. Guztira, 32 izan dira beren iritzia eman ez hasieran landutako materialei ekarpena egin dietenak.

Lanerako bigarren bide bat ireki du Esparru Estatistikoa eraikitzeak: aurreikusiriko sektore/azpisektoreen lanerako helburu izango diren adierazleen eta elikatu beharko diren informazio-iturrien identifikazioa


- Hirugarren fasean, adituen ekarpenen ondorioz aldatutako eta aberastutako oinarrizko produktua Esparru Estatistikoaren proposamen mailarekin aurkezten da, horri dagokion sektorekako foro bakoitzean behin betiko onartzeko

Lan-prozesuaren emaitza produktu bikoitz batek osatzen du:

- **Esparru Estatistikoa:** EAEko kultura sektoreko inkestak eta neurketak garatzeko oinarriztat balio duten kontzeptuen eta definizioen multzo gisa ezagutzen da.
- **Programa Estatistikoa:** kulturaren behaketa-eremua betetzeko informazio guztiaren zikloaren inguruan garatu beharreko estatistikak, horien maiztasuna eta artikulazioa identifikatzen dituen hainbat urtetako plana da.

Esparru Estatistikoa garatzeko, behaketa-eremu bakoitzari lotutako sektorekako ezagutzak eta ezagutza estatistikoak batu behar dira; eta, aldi berean, erakundeen eta sektorearen arteko kolaborazio eta adostasun-lana behar da

ESTADISTIKA-ESPARRUAREN GARAPENEA PARTE HARTZEKO PROZESUA



4.3. SISTEMAREN KUDEAKETA TEKNOLOGIKOA

Informazioa da Behatokiaren lehengaia, eta horren kudeaketatik ezagutza sortzea du helbururik handiena. Horretarako beharrezkoa da informazioaren kudeaketarako teknologia egokia izatea; zeregin instrumentala da, baina nahitaezkoa Behatokiaren egituraren ikuspuntutik.

Hori dela eta, Behatokiaren lehenengo urtean ahalegin berezia egin da informazioaren kudeaketarako lerro nagusiak ezartzen eta lana bi norabide hauetara zuzentzen:

- Informazioaren barreiadura eta sozializazioaren konponbideak, bilaketa ahalbidetzen duten funtzionaltasunen bidezko datuen aurkezpena, taula pertsonalizatuak, dimentsioen eta klasifikazioen hautaketak, irudikapen grafikoak eta mapak...
- Informazioa behetik gora batzea eta ekoizpen-sare kulturalako datuak biltzea eta kudeatzea ahalbidetzen duten tresnak sortzea. Eragile kulturalen komunitateko direktorioak eta informazio estatistikoari dagokion informazio-kopuru jakin bat denbora errealean kudeatzea ahalbidetzen duen sistema.

Hautatutako aukerek eta lan-irizpide irekiek lehenetsi egin dituzte potentzia eta malgutasun informatikoa, datuen bateragarritasunaren bermea eta transferentzia, metodologiak eta tratamendu-prozesuak, hurbileko ingurunearekiko ikuspegi koherente batetik –Eustat, INE– EBko sare estatistikora irekita.

Horregatik, zaharkitzapenaren kontrako jasagarritasunaren eta kudeaketa ebolutiboaren bermearekin, informazioa biltzeko, gordetzeko, kudeatzeko eta hedatzeko konponbide informatiko aurreratuak integratzen ahalegindu dira; betiere, sortzen diren kudeaketa koordinatuaren eta kooperatiboaren baldintza berriak, arazoen eta kasuen konponbidea, eta, esparruko erabiltzaile instituzional adituek banatutako sarearen testuinguruan, teknika aurreratuak eranstea ahalbidetzen dituztenak lehenetsiz.

Hautatutako aukerek eta lan-irizpide irekiek lehenetsi egin dituzte potentzia eta malgutasun informatikoa, datuen bateragarritasunaren bermea eta transferentzia, metodologiak eta tratamendu-prozesuak

5. ETORKIZUNA BEHATOKITIK: PROGRAMA ESTADISTIKO BATEN DINAMIZAZIOA

Behaketa-jardueraren lehen ekitaldian garatutako lana oinarritzat hartuta, etorkizun hurbilean anbizio handiko Programa Estatistiko baten inguruko behaketa-jarduera zehatza abian jarriko da. Programa horrek behaketa aske eta progresiboen hiru ziklo hartzen ditu barnean:

a) Esparru produktiboa: eskaintza. Sektoreetatik eta azpisektoreetatik lortu beharreko informazioarekin erlazionatua: hori osatzen duten enpresak; langileak; oinarritzat hartzen dituzten kultura ekoizpenaren azpiegiturak; garatzen duten jarduera; mobilizatzen dituzten baliabideak; haien ekoizpenaren kuantifikazioa, ezaugarri fisikoak eta ekonomia...

Behaketa-eremu zabalena eta anitza da, azpisektore bakoitza eta horien jarduera dimentsionatzen eta karakterizatzen baitu. Hala, beste sektore ekonomiko-produktiboekin estatistikoki homologatzeko aukera irekitzen da.

Behatokiak sektore/azpisektore bakoitzarentzako jarduera-eredu orokorra ezartzen du –Sektorearen estatistika, honako helburu honekin–:

- Sektore/azpisektore bakoitzaren jardueraren urteroko segimendua bermatzea –denbora errealean–: Urteko aurrerapena.
- Kulturako sektore/azpisektore bakoitzarentzako erretratu zehatza egitea bi edo hiru urtetik behin: Kontu sektorialak.
- Bi edo hiru urtetik behin, urteko kontuak gehituz, euskal produkzio-sarean “kultura” osotasunean “neurtzea”: Kulturaren kontu sateliteak.

Horrez gain, sektore/azpisektore bakoitzaren hasierako egoerari eta berezitasunari egokitu behar harko zaio, eta, ondorioz, hainbat Estatistika Sektorial sortuko dira:

**Etorkizun hurbilean
anbizio handiko
Programa Estatistiko
baten inguruko
behaketa-jarduera
zehatza abian jarriko
da**

- *Liburutegien* (dagoeneko badago) eta artxiboen estatistika
- *Museoen estatistika* (dagoeneko badago)
- *Arte eszenikoen eta musikalen estatistika*: antzerkia, musika, dantza eta ikusizko arteei buruzko moduluak barne
- *Kultura-industriaren estatistika*: argitalpen-, argazki-, artisautza-industria eta ikus-entzunezko industriaren modulua barne
- *Komunikabideen estatistika*: irrati, telebista eta aldizkako argitalpenen moduluak barne.

lido nagusi hori osatuz, bi lan-kanal irekitzen dira:

- Jarduera-sektore ez-profesional batzuen kultura-jardueran oinarritzen da *Herri kulturaren estatistika* (adibidez: dantza tradizionala, musika korala, bertsolaritza). Horren barnean, jarduera ez-profesionalen behaketa-eremua kanporatzeak sektorearen murrizketa drastikoa eragiten du.
- Produktuaren kontrol-administratiboaren erregistroa eta jarduera kulturala behin eta berriz hobetzea: *Erregistro administratiboak ustiatzeko plana*.

Lan-irizpide horrek hurbiltasun eta garrantzi berezia hartzen du Kultura Ondasun Kalifikatuen Erregistroan eta Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorren inguruan, Eusko Jaurlaritzaren eskumen-esparru eksklusiboa baita.

Beste distantzia batetik eta lanerako aukera eraginkorretatik behatuta, erregistro-informazioa hobetzeko antolamendua progresiboki heda daiteke euskal administraziotik kanpoko beste erregistro batzuetara –SGAE, ISBN; ISMN... Horiek hobetzeko dituzten aukerak direla eta, garrantzi handiko informazio-iturri dira horiek ere.

Behaketa-eremu zabalena eta anitzena da, azpisektore bakoitza eta horien jarduera dimentsionatzen eta karakterizatzen baitu

b) Esparru produktiboa: eskaria. Herritarrek kulturarekiko duten jokaerari buruzko informazioari lotuta dago, hau da, kultura kontsumitzeko ohiturak eta kultura-jarduerak: zer, zenbat, noiz, nola... kontsumitu edo/eta praktikatu kultura alor guztietan: musika, antzerkia, dantza, literatura, zinema, artisautza, arte plastikoak, museoak eta abar.

Garatutako lanaren prozesuan estatistika-operazio nagusi bat azaltzen da: *Kontsumo kulturalaren ohituren eta praktika kulturalen estatistika*. Ziklo luzeko aldizkako estatistika-eragiketa da –3 eta 5 urte bitartekoa-, eta bateragarria da deskribatutako ikuspegia osatzen duten urteroko edo bi urtez behingo “mikropanel” segimendu-eragiketarekin.

c) Esparru erregulatzaila: Hauei lotuta dago: erakunde maila desberdinetako kultura-antolamendu publikoa (politika publikoen diseinua eta kudeaketa, balioztatze soziala, sostengua eta finantziaketa...), elkarte/korporazio egituraren araberako sektore-antolaketa pribatua (egituraketa eta ordezkartza kolektiboa, pizgarri lehiakor eta dinamizatzailea, eskubideen kudeaketa...) eta trebakuntzari eta ikerketari buruzko informazioa.

Gaur egun aurrerapen maila desberdinetan dauden etorkizuneko lan-esparruek hainbat aldaeretara jotzen dute (kulturaren finantziaketa publikoa; gastu pribatu kulturala; heziketa eta ikerketa; hezkuntza ez-arautua; kulturako lanbideak; kultura identitarioa: euskara eta kultura); eta, estatistika-eragiketen, erregistro administratiboen ustiapenen edo bi hurbilketen arteko konbinazioaren bitartez gauzatu ahalko lirateke, eremu bakoitzaren denbora-dinamika anitzen eta propioen inguruan.

Garatutako lanaren prozesuan estatistika-operazio nagusi bat azaltzen da: *Kontsumo kulturalaren ohituren eta praktika kulturalen estatistika*

ERANSKINAK

- 1. ERANSKINA: KULTURA-BEHATOKIEN KATALOGOA**
- 2. ERANSKINA: SEKTORE-HURBILKETEN KATALOGOA**

1. ERANSKINA: KULTURA-BEHATOKIEN KATALOGOA

A. IKERKETA ZENTROAK / NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK

CIRCLE (Cultural Information and Research Centres Liaison in Europe)	
Tipologia	Ikerketa-zentroak / nazioarteko erakundeak
WEB	www.circle-network.jaaz.pl/
Egoitza nagusia	Varsovia, Polonia
Eratze-urtea	1984
Eremu geografikoa	Europa
Deskribapena	CIRCLE think-tank independentea da, eta Europarako kultura-politika ereduak garatzeaz arduratzen da. Kultura-politikako sektoreko profesionalen osatutako sare bidez lan egiten du eta on line dagoen CPRO (Cultural Policy Research Online - Investigación en Políticas Culturales on line) deituriko datu-basea du.

ERICarts (European Institut for Comparative Cultural Research)	
Tipologia	Ikerketa-zentroa / nazioarteko erakundea
WEB	www.ericarts.org/web/index.php
Egoitza nagusia	Bonn, Alemania
Eratze-urtea	1993
Eremu geografikoa	Europa
Deskribapena	ERICarts ikerketarako institutu independentea da. Ikertzaile-talde batek eratu zuen, gehienak CIRCLEeko kideak, eta Europako 40 herrialde baino gehiagokoak dira. Batez ere, kultura-politikaz, komunikabideen garapenez, kultura-hezkuntzaz eta jardunbide artistiko eta mediatikoez arduratzen da.

Compendium. Cultural Policies and trends in Europe	
Tipologia	Ikerketa-zentroa / nazioarteko erakundeak
WEB	www.culturalpolicies.net/web/index.php
Egoitza nagusia	Bat baino gehiago
Eratze-urtea	–
Eremu geografikoa	Europa
Deskribapena	Compendium, informazioaren eta kulturari buruzko politiken, tresnen eta neurrien jarraipena egiteko Europa osorako sistema da. Gainera, eztabaidarako eta kultura-joeren dibulgaziorako lekua ere bada. Europako Batzordeak eta Ericartsek batera sortu zuten, eta kultura-politiken ikertzaile independentez, GKEz eta estatu-gobernuez osatutako taldeak kudeatzen du.

INTERARTS	
Tipologia	Ikerketa-zentroa / nazioarteko erakundeak
WEB	www.interarts.net
Egoitza nagusia	Bartzelona, Espainia
Eratze-urtea	1995
Eremu geografikoa	Europa, Mediterraneo, Hego Amerika
Deskribapena	Egoitza Bartzelonan duen nazioarteko kultura-kooperaziorako agentzia da INTERARTS. Horren helburua da kultura-proiektuak egitea eta Europa eta munduko gainerako herrialdeen arteko kultura-harremanak garatzen laguntzea. Horren ikerketa aplikatuko programa iraunkorren eta kultura-adierazleen artean daude FACTUS programa, Europako eskualdeetako kultura-politikei buruzko datu-basea eta kultura-klimaren, eraginaren eta eskubideen adierazleen sistema.

A. IKERKETA ZENTROAK / NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK

Budapesteko behatokia	
Tipologia	Ikerketa-zentroa / nazioarteko erakundea
WEB	www.budobs.org/
Egoitza nagusia	Budapest, Hungaria
Eratze-urtea	1999
Eremu geografikoa	Erdialdeko eta Ekialdeko Europa
Deskribapena	Budapesteko Behatokia (BO) Erdialdeko eta Ekialdeko Europako kultura-politiken finantzazioari buruzko eskualde mailako behatokia da. BOK kultura-finantzazioan, tasazioan eta babesletzan bereziki erabilgarria den informazioa du eskura. Horren web-gunean Europa osoko informazioa eta kultura-azterketa estatistikoak ere aurki daitezke.

Österreichische Kulturdocumentation	
Tipologia	Ikerketa-zentroa / nazioarteko erakundeak
WEB	www.kulturdocumentation.org
Egoitza nagusia	Viena, Austria
Eratze-urtea	1991
Eremu geografikoa	Europa eta nazioartea
Deskribapena	Österreichische Kulturdocumentation kultura-ikerketa aplikatuko institutua da, eta egoitza Vienan du. Horren ikerketa Austriako, Europako eta munduko kultura-garapenerako gai nagusienetan oinarritzen du, eta ikerketak dossierretan eta institutuko liburuetan argitaratzen ditu. Europa mailan, ikerketarako gai nagusia hauek ditu: medioen politikak; kultura eta enplegua; sorkuntza-industriak; kultura-aniztasuna eta hirietako kultura-politikak.

Finnish Foundation for Cultural Policy Research (CUPORE)	
Tipologia	Ikerketa-zentroa / nazioarteko erakundeak
WEB	www.cupore.fi/index_en.php
Egoitza nagusia	Helsinki, Finlandia
Eratze-urtea	2002
Eremu geografikoa	Finlandia eta nazioartea
Deskribapena	Fundazioaren helburua da Finlandiako kultura-politikaren garapena zuzentzea, baita nazioarte mailan jarraipena egitea eta arlo horretan ikerketa sustatzea ere. Fundazioak Ikerketa-zentroa du, eta horren egitekoa da politikoki adierazgarriak diren ikerketak sustatzea eta kultura-ikerketa egonkortzen eta hazten laguntzea. CUPORE Jyväskyläko Unibertsitateak Finnish Cultural Foundation-ekin batera garatutako proiektua da. Hezkuntza eta Kultura Ministerioa ere proiektuaren sustatzaileetako bat izan zen, eta hori arduratu zen fundazioaren ekimenak finantzatzeaz.

Center for Cultural Research (ZfKf - Zentrum f. Kulturforschung)	
Tipologia	Ikerketa-zentroa / nazioarteko erakundeak
WEB	www.kulturforschung.de/
Egoitza nagusia	Bonn, Alemania
Eratze-urtea	1969
Eremu geografikoa	Alemania
Deskribapena	Center for Cultural Research kulturaren eremuan, arteetan eta medioetan ikertzeko talde independente eta diziplina artekoa da. ZfKf-ek arteetako profesionalen artean inkestak egiten ditu eta, politika artistikoen, hezkuntzaren eta formazioaren arteko alderaketa-ikerketak egiten ditu. Ohiturei eta kultura-praktikei buruzko galdeketa ere egiten ditu, baita antropologia aplikatuko ikerketak ere.

A. IKERKETA ZENTROAK / NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK

CULTURELINK Network	
Tipologia	Ikerketa-zentroa / nazioarteko erakundeak
WEB	www.culturelink.hr
Egoitza nagusia	Zagreb, Kroazia
Eratze-urtea	1989
Eremu geografikoa	Europa
Deskribapena	Culturelink, Kulturaren Garapenerako Ikerketarako eta Koope-raziorako Sareen Sarea, Unescok eta Europako Batzordeak sortu zuten, eta Nazioarteko Harremanen Institutuan (IRMO) du egoitza, Zagreben. Ikerketaz gain, bere jardueren artean daude datu-base bat promozionatzea, garatzea, sortzea eta zabaltzea eta Culturelink aldizkaria argitaratzea.

Fitzcarraldo Fondazione	
Tipologia	Ikerketa-zentroa / nazioarteko erakundeak
WEB	www.fitzcarraldo.it/
Egoitza nagusia	Torino, Italia
Eratze-urtea	2000
Eremu geografikoa	Lombardia, Italia
Deskribapena	Fitzcarraldo Foundation kulturaren, artearen eta medioen planifikaziorako, ikerketarako, trebakuntzarako eta dokumentaziorako zentro independentea da. Fitzcarraldo Foundation Piemonteko Kultura Behatokiaren ikerketen arduraduna da. Ar-teak, ondarea, museoak eta sorkuntza-industria bezalako ar-loak hurbiletik jarraitzen ditu aldagai nagusien hileroko txostenak eskaintzeko, eta epe laburreko joerak atzemateko. Bestalde, urteko txostena ere argitaratzen du kultura-jardueri eta eskualdean izan duten eraginari begirada bat emanez. Fun-dazioak diziplina arteko hurbiletak ere sustatu nahi ditu.

International Network of Observatoires in Cultural Policies Unesco	
Tipologia	Ikerketa-zentroa / nazioarteko erakundeak
WEB	http://www.unesco.org/culture/development/observatoires/html_eng/members.shtml
Egoitza nagusia	Unesco
Eratze-urtea	1998
Eremu geografikoa	Mundu maila
Deskribapena	Mundu osoko behatokiaren artean jakintza-trukea sustatzea, eta sektorearentzat adierazgarriak diren datuak eta informazioa dibulгатzea helburu duen nazioarteko sarea da. Sare horren kide dira ez soilik kultura-behataileak, baita behatokiaren funtzio propioetako bat burutzen duten nazioarteko erakundeak eta fundazioak ere.

Red Internacional de Políticas Culturales, (RIPC)	
Tipologia	Ikerketa-zentroa / nazioarteko erakundeak
WEB	www.incp-ripc.org
Egoitza nagusia	Quebec, Kanada
Eratze-urtea	—
Eremu geografikoa	Mundu maila
Deskribapena	Herrialde desberdinetako kultura-ministroak batzea sustatzen duen nazioarteko espazioa da. Bertan, gero eta testu-inguru globalizatuagoan, kultura-politikaren eta kultura-aniztasunaren promoziorako gai eta eztabaida nagusiak aztertzen dira. RIPC ezaugarri informaleko gune bat eratzeke ideiatik sortu zen, bertan kide diren herrialdeek kultura-politikako hainbat gairi buruzko iritziak trukatu ahal izateko. Gaur egungo lan-le-erroen artean Kultura Aniztasuna eta Globalizazioa, Mundu mailako irratia eta Kultura Ondarea daude.

A. IKERKETA ZENTROAK / NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK

Observatory of Cultural Policies in Africa (OCPA)	
Tipologia	Ikerketa-zentroa / nazioarteko erakundeak
WEB	www.ocpa.irmo.hr/index-en.html
Egoitza nagusia	Maputo, Mozambique
Eratze-urtea	2002
Eramu geografikoa	Afrika
Deskribapena	Behatokia African Union-en, Unescoren eta Kultura Enpresarako Institutuaren laguntzarekin eratu zen. Azken hori Ford Fundazioak finantzatzen duen New Yorkeko Foundation for the Arts-en programa bat da. OCPA profesional independentez osatutako erakunde bat da, Afrikaz kanpoko bokazioa du, eta eskualdean nazio mailako kultura-politikak garatzen laguntzeko eta eskualdean eta nazioartean integratzen laguntzeko sortu zen.

B. ESKUALDE ETA NAZIO MAILAKO BEHATOKIAK

Osservatorio culturale de Lombardia. Direzione Generale culture, identità e autonomie Regione Lombardia	
Tipologia	Eskualde eta nazio mailako behatokiak
WEB	www.lombardiacultura.it/osservatorio
Egoitza nagusia	Milan, Italia
Eratze-urtea	1989
Eramu geografikoa	Lonbardia, Italia, Europa
Deskribapena	Europako Batzordearen Kultura eta Eskualdeak Proiektuaren baitan sortua, Lonbardiako Behatokiaren helburu nagusia da eskualde horretan bereziki, eta Europa osoan ondoren, kultura-politiken definizioan eta berrikuntzan laguntzea. Behatokiaren helburu nagusiak, aipatutako bi horiez gain, informazioa eta dokumentazioa on line eskaintzea eta formazioa sustatzea dira, bai eta eskualdea osatzen duten 11 udalerrietan kultura-gaietan ikerketa koordinatzea, kultura-eskaera eta kontsumoa, kultura-sektorearen enplegua eta kultura-ikerketa aztertzea ere.

Osservatorio Culturale del Piemonte	
Tipologia	Eskualde eta nazio mailako behatokiak
WEB	www.ocp.piemonte.it
Egoitza nagusia	Torino, Italia
Eratze-urtea	1998
Eramu geografikoa	Piemonte
Deskribapena	Piemonteko Kultura Behatokiaren egoitza Torinoko Fitzcarraldo Fundazioa da (ikus ikerketa-zentroak). Bere helburu nagusia da eskualdeko kultura-sektoreko datuen eta ikerketen zentro gisa funtzionatzea. OCPk kultura-sektoreko aldagai nagusienekin esparru sistematikoa eskaintzen du, horretan oinarrituta Piemonteko kultura-gaietan lehenasuneko ekintza-lerroak definitzeko. Behatokiak newsletter bat du bere web-gunean. Newsletter-a komunikazio digitalerako tresna izateaz gain, OCPk horren bidez jakinarazten ditu Piemonten burutzen dituen ikerketen emaitzak eta nazio zein Europa mailako beste proiektuetako bere jarduerak.

B. ESKUALDE ETA NAZIO MAILAKO BEHATOKIAK

Observatoire de la Culture et des communications du Québec	
Tipologia	Eskualde eta nazio mailako behatokiak
WEB	http://www.stat.gouv.qc.ca/observatoire/
Egoitza nagusia	Quebec, Kanada
Eratze-urtea	–
Eramu geografikoa	Kanada
Deskribapena	Behatokia Quebeceko Estatistika Institutuko administrazio-unitatea da (zuzendaritza). Observatoire de la Culture et des Communications du Québec (OCCQ) behatokiaren helburua da kulturaren eta komunikazioaren sektorean jarduten duten agenteen behar errealei eta konkretuei erantzuna ematea, baita hiriko bizitzari buruzko azterketa estatistikotetan eta ikerketetan kultura sartzan dutenei aholkularitza eskaintzea ere.

Culturescope. Canadian Cultural Observatory	
Tipologia	Eskualde eta nazio mailako behatokiak
WEB	www.culturescope.ca
Egoitza nagusia	Quebec, Kanada
Eratze-urtea	2003
Eramu geografikoa	Kanada
Deskribapena	Behatokia, neurri batean, Canadian Culture Online Strategy eta Kanadako Ondare-Sailak (Canadian Heritage Department) elkarlanean eratu zuten. Behatokiaren helburua da herrialdeko kultura-garapena informatzea eta indartzea. Horretarako ikerketa sustatzen du, arduradun politikoan eta teknikoan, ikertzaileen eta sektoreko beste profesionalen arteko sarea konektatuz eta sortuz. Horren da helburua jakintza-trukatzea, eta kultura-politikaren beharrei eta lehentasunei buruz eztabaidatzea.

Strategic Policy and Research Branch	
Tipologia	Eskualde eta nazio mailako behatokiak
WEB	http://www.pch.gc.ca/pc-ch/org/dg-branches/pol_e.cfm
Egoitza nagusia	Kanada
Eratze-urtea	–
Eramu geografikoa	Kanada
Deskribapena	Strategic Policy and Research Branch arduratzen da Canadian Heritage Department-en ikerketa-agendan lehentasunak jartzeaz, Sailaren zuzendaritzak erabakitako helburuak betetzen saiatuz.

Département des études, de la prospective et des statistiques (DEPS)	
Tipologia	Eskualde eta nazio mailako behatokiak
WEB	www2.culture.gouv.fr/deps/
Egoitza nagusia	Paris, Frantzia
Eratze-urtea	1963
Eramu geografikoa	Frantzia
Deskribapena	60ko urteetan sortu zen Service d'Études et Recherche (SER) izenarekin. Kulturaren eta Komunikazioaren Ministerioaren ikerketarako zerbitzu nagusia da. Batez ere, kulturaren arloan egiten diren ikerketa sozio-ekonomikoez arduratzen da. DEPSek garatu behar duen ikerketa-programa Ministro Batzordean definitzen da, eta DEPSek idazkaritza orokorra du. Batzordeak Kulturaren eta Komunikazioaren Ministerioaren zuzendaritzek burututako ikerketa-multzoa ere aztertzen du. DEPS nazioko eta Europako estatistika-sistema publikoko parte da, eta Kultura Ministerioaren estatistika-zerbitzua (SSM) da.

B. ESKUALDE ETA NAZIO MAILAKO BEHATOKIAK

Observatório das Actividades Culturais. Lisboa	
Tipologia	Eskualde eta nazio mailako behatokiak
WEB	www.oac.pt
Egoitza nagusia	Lisboa, Portugal
Eratze-urtea	1996
Eremu geografikoa	Portugal
Deskribapena	Erakunde hori Portugalgo Kultura Ministerioak, Lisboako Unibertsitate Berriko Giza Zientzietarako Institutuak (Universidade Nova de Lisboa) eta Estatistika Nazionalerako Institutuak eratu zuten. Behatokiak produkzio erregularra eta sistematikoa du, eta kultura-jarduerei eragiten dien eboluzioei buruz jasotako informazioa zabaltzen du. Bere lanak kultura-jardueren domeinuko aldatetak sistematikoki eta erregularri erregistratzea ahalbidetzen du.

Observatorio de las industrias culturales de Buenos Aires	
Tipologia	Eskualde eta nazio mailako behatokiak
WEB	www.buenosaires.gov.ar/observatorio
Egoitza nagusia	Buenos Aires, Argentina
Eratze-urtea	–
Eremu geografikoa	Buenos Aires
Deskribapena	OIC behatokia Hiriko Gobernuo Produkzio Ministeriotzako Kultura Industrien Azpiidazkaritzako parte da. Diziplina arteko talde batez osatutako ikerketa-unitatea da, eta zehazki Kultura Industrirei buruzko eta, oro har, kultura-jarduerei buruzko, informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa jasotzera, prozesatzera eta sortzera zuzenduta dago. Bere helburu nagusia da jakintza sortzea eta kultura-industrien sektorea garatzen laguntzea.

Northwest Culture Observatory. NW Region of England	
Tipologia	Eskualde eta nazio mailako behatokiak
WEB	www.northwestcultureobservatory.co.uk/
Egoitza nagusia	Manchester
Eratze-urtea	2007
Eremu geografikoa	Ingalaterrako ipar-mendebaldeko eremua
Deskribapena	Ingalaterrako ipar-mendebaldeko eskualdeko kultura-sektorearentzat ikerketarako sare estrategikoa da. Kulturako eskualdeko agentziek sortu zuten eta horren baliabide nagusia on-line aurki daitezke 2007ko uztailaz geroztik, Culture Observatory Gateway-en (COG). Horri esker eskura daitezke estatistikak, eta horretan oinarritzen da eskualdeko ikerketa.

National Centre for Culture and Recreation Statistics (NCCRS) - Australia Bureau of Statistics (ABS)	
Tipologia	Eskualde eta nazio mailako behatokiak
WEB	www.abs.gov.au
Egoitza nagusia	Canberra, Australia
Eratze-urtea	–
Eremu geografikoa	Australia
Deskribapena	NCCRS kulturari eta aisiari buruzko datu estatistikoak biltzeaz eta tratatzeaz arduratzen den ABSko unitatea da, eta, ondorioz, kulturari buruzko datuen tratamenduan erreferente nazionala da. Bere funtzioen artean, hauetan nabarmentzen dira: kulturari eta aisialdiari buruzko estatistika nazionalen garapena koordinatzea; ABSk kulturari buruzko datu estatistikoak zein irizpideren arabera jaso behar dituen zehaztea; gobernuaren maila desberdinei kulturari buruzko emaitzen berri ematea, eta hori guztia gizarte osoan zabaltzea; ABSri eta beste agente batzuei kulturari eta aisialdiari buruzko datuen azterketen interpretazioan aholkatzea.

B. ESKUALDE ETA NAZIO MAILAKO BEHATOKIAK

Observatorio interamericano de políticas culturales (OIPC)	
Tipologia	Eskualde eta nazio mailako behatokiak
WEB	www.oas.org/oipc/
Egoitza nagusia	Washington, EUA
Eratze-urtea	2004
Eremu geografikoa	Amerika
Deskribapena	<p>ECartagenako Ekintza Planak, Ameriketako Kultura Ministroek eta Autoritate Gorenek Lehen Bileran onartua, Kulturako Batzorde Interamerikarraren esparruaren baitan, Kultura Politiken Behatoki Interamerikarra sortzea egingarri zen ala ez ikertzeko agindu zuen.</p> <p>Hauek dira behatokiak bete beharko lituzkeen funtzioak: Estatu kideetan, kultura-politikei eta kultura-aniztasunari buruzko informazioa trukatzea erraztu; kultura-sektoreari buruzko informazioa bildu eta zabaldu; Estatu kideetan kultura-politikei buruzko ikerketa eta datu-bilketa sustatu; Kultura-sektoreko politikei eragiten dieten adierazleak zein, besteak beste, kultura-legediari eta kultura-eskubideei buruzko adierazleak sortzen lagundu; kultura-informazioa zabalitzen laguntzeko Estatu kideetako zein mundu mailako fundazioekin, instituzio akademikoekin eta ikerketa-instituzioekin eta beste kultura-behatokiekin aliantzak eraiki; Estatu kideetan kultura-aniztasuna gordetzen eta sustatzen lagunduko duten neurriak identifikatu.</p>

C. UNIBERTSITATE-ZENTROAK

Observatoire des Politiques Culturelles. Université Pierre Mendès France de Grenoble	
Tipologia	Unibertsitate-zentroak
WEB	www.observatoire-culture.net
Egoitza nagusia	Grenoble, Frantzia
Eratze-urtea	1989
Eremu geografikoa	Frantzia
Deskribapena	Behatokia erakunde desberdinen arteko hitzarmenari esker sortu zen: Kultura Ministerioa, Pierre Mendès Franca Unibertsitatea, Grenobleko IEP, CNRS eta CERAT: Nazio mailako erakundea da eta Frantziako kultura-politiken deszentralizazioan eta hedakuntzan eragin nahi du, horretarako ikerketak eta informazioa sortuz.

Centre for Cultural Policy Research	
Tipologia	Unibertsitate-zentroak
WEB	www.culturalpolicy.arts.gla.ac.uk
Egoitza nagusia	Universidad de Glasgow, UK
Eratze-urtea	2001
Eremu geografikoa	Eskozia eta nazioartea
Deskribapena	Glasgoweko Unibertsitateko Kultura Politiken Ikerketarako zentroak, Eskozian eta nazioartean, kultura-politikei eta hornidurei buruzko ikerketak garatzen ditu. Gainera, gobernuarentzat eta kultura-sektorearentzat aholkularitza-agentzia gisa ere jarduten du. Zentroak arreta berezia jartzen dio kulturaren eta hiriarren gaiari.

C. UNIBERTSITATE-ZENTROAK

Observatorio Cultural de la Universidad de Buenos Aires	
Tipologia	Unibertsitate-zentroak
WEB	www.econ.uba.ar/www/institutos/oc2004/oc.htm
Egoitza nagusia	Buenos Aires, Argentina
Eratze-urtea	–
Eremu geografikoa	–
Deskribapena	Buenos Aireseko Unibertsitateko Ekonomia Fakultateak sortutako behatoki horrek kultura-politiken eragina ikertzen du, nazio eta eskualde mailan. Ikerketak eta txosten espezializatuak argitaratuz, munduan dauden antzeko instituzioekin harremanari eusten ahalgintzen da kulturari buruzko informazioa trukatzeko. Ikerketa behatokiaren lan-jardunetako bat besterik ez da, trebakuntzan, asistentzia teknikoan, zabalkundearen, aholkularitzan eta ekitaldien antolokuntzan ere jarduten baitu.

Center for Art and Culture, George Mason University, Washington DC	
Tipologia	Unibertsitate-zentroak
WEB	www.culturalpolicy.org
Egoitza nagusia	Washington DC, USA
Eratze-urtea	1994
Eremu geografikoa	Estados Unidos
Deskribapena	Deskribapena Erakunde horrek kulturarekin eta kultura-politiken garapenarekin lotura duten eremu guztiei buruzko baliabideen eta informazioaren zentroa bailitzan funtzionatzen du. Zentroaren helburua informatuta atxikitzea eta kulturaren munduari dagozkien erabaki politikoak hobetzea da. Zentroak arteari eta kulturari buruzko ikerketak, konferentziak eta argitalpenak egiten ditu. Zentrou irabazi asmorik gabeko erakunde independentea da, eta fundazioen eta banakoen laguntza jasotzen du. Zentroa zuzendaritza-batzorde batek eta ikerketarako aholkularitza-batzorde batek zuzentzen dute.

University of Nottingham-on-Trent, Cultural Policy and Planning Research Unit	
Tipologia	Unibertsitate-zentroak
WEB	Ez du web-gunerik
Egoitza nagusia	Nottingham Trent
Eratze-urtea	–
Eremu geografikoa	–
Deskribapena	Nottingham Trent-eko Unibertsitateko Kultura Politika eta Planifikazioa Ikertzeko Unitate sortu berriaren zuzendaria Colin Mercer da, Erresuma Batuko Kultura Politikako lehen Irakaslea. Zentroak jakintza- eta ikerketa-oinarri sendoa eskainiko die kultura-planifikazioan eta politiketan jarduten dutenei, diruz lagundutako sektorean zein komertzialean, beren estrategiak formulatzerakoan begirada osoagoa edukitzean lagunduz. Politika ekonomikoaren eta kultura-politikaren, giza politikaren eta ingurumen-politikaren, eta kultura-garapen jasangarriaren eta bizi kalitatearen arteko harremana ere ikertzen du, komunitateetan, hirietan, eskualdeetan eta nazioetan.

Australian Key Centre for Cultural and Media Policy (Griffith University)	
Tipologia	Unibertsitate-zentroak
WEB	www.gu.edu.au/centre/cmp
Egoitza nagusia	Queensland, Australia
Eratze-urtea	–
Eremu geografikoa	–
Deskribapena	Australian Key Centre for Cultural and Media Policy-ren helburua da kultura-politikak eta prozedurak eta komunikabideenak hobeto ulertzea, baita Australiako kultura-sektorearen eta komunikabideen beharrei erantzutea ere. Zentroan Ikerketarako Sare Nazionala sortu da, eta Culture and Policy izeneko aldizkaria argitaratzen du.

2. ERANSKINA: SEKTORE-HURBILKETEN KATALOGOA

Izenburua: *EAEko arte plastikoei eta ikusizko arteei buruzko azterketa. EAEko arte plastikoen eta ikusizko arteen sektorearen jardueraren eta euskal erakundeen parte-hartzearen bilakaera*

Egilea/Erakundea: Deustuko unibertsitateko aisiazko ikaskuntzen institutua

Orrialde-kop.: 303

Egite-eguna: 2005

Ikerketa honekin lortu nahi da sormenaren ekoizpenerako garatutako jarduerak, arte plastikoen eta ikusizko arteei buruzko difusioa eta horren sortzaileak ezagutzea, bai eta horretarako zenbat diru duten jakitea ere, panoramika deskriptibo baten bidez. Alde batetik, 2002, 2003 eta 2004. urteetan EAEko hiru hiri-buruetako sorkuntza artistikoa eta arte modernoko obrak erakusteko erabilitako gunen espezializatuen jarduera (museoak, galeriak, erakusketa-aretoak eta sormenerako eta produkziarako eremuak) aztertzen da. Bestetik, arte plastiko eta ikusizko arteen inguruan EAEko erakundeek izandako parte-hartzearen garapena aztertzen da 1984-2004 bitartean, betiere, Eusko Jaurlaritzak eta EAEko hiru Foru Aldundiek emandako diru-kopuruetan arreta jarritz. Azterketa gai kritikoen diagnostiko batekin osatzen da, eta, horien bidez, etorkizunerako hainbat jardute-lerro diseinatzeko aukera dago.

Izenburua: *EAEko sektore fonografikoaren egoerari buruzko azterlana*

Egilea/Erakundea: Deustuko unibertsitateko aisiazko ikaskuntzen institutua

Orrialde-kop.: 235

Egite-eguna: 2005

Ikerketa honek Euskadiko sektore fonografikoaren egoera eta garapena (2000-2004) gutxi gorabehera nolakoa izan daitekeen adierazten du, betiere, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldea erreferentzia geografiko gisa hartuz. Horren analisiak grabatutako musikaren produkzio-, banaketa- eta salmenta-prozesuetan jartzen du arreta da, bai eta fase hauetako agente arduradunen parte-hartzean ere:

enpresa diskografikoak, grabaketa-estudioak, banaketa-enpresak eta saltokiak. Puntu horretatik gai kritikoei buruzko diagnostiko bat sortzen da. Horren eraginez, merkatuan aldatzen ari diren egoerak –une horretakoak eta etorkizunekoak– sektoreari egokitzeko bideratutako hainbat helburu eta jardute-lerro mugatzen dituen hausnarketa estrategikoa sortu da.

Izenburua: *Euskal etnografia-ondarearen inbentarioaren hastapenak*

Egilea/Erakundea: Luberri communic.action S.L.

Orrialde-kop.: 89

Egite-eguna: 2005

Ikerketak Euskal etnografia-ondarearen egoerari buruzko analisia egiten du, eta horren helburua da horri buruzko inbentario bat prestatzeko pausoetan laguntzen duten erreferenteak eskaintzea. Has-teko, etnografia-ondarearen panorama azaltzen da, eta egindako ikerketak eta inbentarioak aztertzen ditu. Horren jarraian, esparru juridikoa aztertzen da, ondare horri dagokion erantzukizun eta babes-mailarekin erlazionatuta. Ondoren, erreferente diren hainbat ereduren azterketa sakona gauzatzen da –besteak beste, Katalunia, Valentzia, Asturias, Errioxa eta Kantabria. Azkenik, Euskadiko kasuan, inbentarioaren sorrera bi-deratzeko ondorioak eta proposamenak aurkezten dira.

Izenburua: *Euskal liburugintzari buruzko azterketa*

Egilea/Erakundea: Elhuyar Aholkularitza

Orrialde-kop.: 87

Egite-eguna: 2006

Ikerketa hau Administrazioak, sektoreetako eragileek (argitaratzaileek, idazleek, itzultzaileek eta abar) eta Elhuyar Aholkularitzako teknikariek eraturako lan-taldeak egindako elkarlanaren emaitza da. El-karlan horren ondorioz, euskal liburugintzari buruzko gaur egungo arazo eta beharrak antzeman dira, ar-gitaratzaileei zuzendutako gai horri buruzko inkesta diseinatu da eta etorkizuneko euskal liburugintzaren

egoerari buruzko segimendua burutzeko beharrezkoak diren adierazleak definitu dituzte; horrez gain, euskaraz irakurtzeko zaletasunari buruzko inkesta egitea proposatu da.

Izenburua: *Euskal autonomia erkidegoko artisautza-industrien azterketa*

Egilea/Erakundea: IKERTALDE Grupo Consultor, S.A.

Orrialde-kop.: 119

Egite-eguna: 2005

Ikerketa horrek, artisautza-jardueraren ikuspegi orokorra azaltzen du, lehendabizi, artisautzaren kontzeptua –industria kulturala edo jarduera ekonomiko gisa– eztabaidagarri jartzen duten iturri dokumental sekundarioak berrikustearen bidez; sektoreko kopuruen berri ematen du; eta hainbat adierazleren bitartez enpresak eta lanpostuak karakterizatzen ditu. Ondoren, artisautza-jardueraren lege-esparrurako hurbilketa bat egiten du, estatuko, erkidegoetako eta lurraldeetako arau-erreferentzien analisiaren bidez, eta sektorean arau-dibertsitate handia dagoela nabarmentzen du. Bigarrenik, enpresa-profila aztertzen du, artisautza-enpresen lagin adierazgarri batek emandako datuen azterketaren bidez. Azterketa horrek sektoreko zifrak eta lehiakortasunaren oinarriko ezaugarriak ezartzen lagundu du. Artisautza-sektoreko ezaugarri nagusiak labur irudikatzen dituzten ezaugarriak identifikatzeko AMIA diagnostikoa lantzea izan da ikerketaren azken emaitza. Azterketa horren bidez, hausnarketa estrategiko bat egin da, eta jarduera-plan transformatzaile bat egiteko oinarriak ezarri ditu. Jarduera-plan horren helburua da merkatuaren dinamikak sektoreari ahalik eta ondoen egokitzea.

Izenburua: *EAEko Irakurketa Mapa*

Egilea/Erakundea: AIC, Gestión de Capital Intelectual, S.A.

Orrialde-kop.: 113

Egite-eguna: 2006

Euskadiko liburutegietako zerbitzuak estandarizatzea ahalbidetzen duen mapa bat diseinatzea da azterketaren helburu nagusia, liburutegi publikoen egoera diagnostikatzeko tresna gisa balio dezan eta

Euskadiko liburutegien sarea finkatzeko eta homogeneizatzeko aukera eskaini dezan. Ikerketa hiru dokumentu osatzen dute: lehenak, EAEn ezarri beharreko estrategia definitzea ahalbidetzen duten hurbileko lurraldeen inguruan ezarritako parametroen panoramika eskaintzen du; bigarrenak, EAeko liburutegien zerbitzuak estandarizatzeko parametroak proposatzen ditu; eta hirugarrenak, EAeko liburutegi publikoetako arduradun hautatuek osatutako lan-taldearen ondorioak biltzen ditu. Azken dokumentu hori sortu zen aurreko dokumentuak balioztatzeke helburuarekin, eta horren bidez lortu da irakurketa publikoaren mapa eta aipatutako parametroak ere zehaztasun handiagoz definitzea.

Izenburua: *Euskal kultura-ondarea digitalizatzeko, babesteko eta hedatzeko gida-plana*

Egilea/Erakundea: Ibermática

Orrialde-kop.: 83

Egite-eguna: 2005

Kultura-ondare digitala garatzea, horren segurtasuna ziurtatzea eta hedapena erraztea du helburu. Hiru helburu horietan kontuan hartzen dira parte hartzen duen unibertso digitalaren eskariak, Kulturaren Euskal Planaren proposamenak, baita egungo egoeraren berrikuspena eta beste herrialde batzuetan gauzatzen ari diren jarrerak eta jarduerak ere. Hala, zortzi jardute-lerro zehaztu dira, hainbat proiektu eta programetan gauzatuko direnak. Ikerketaren izaera berritzailea da, oso gutxi baitira kultura ondarea bezalako gai zabal eta zaila, sektore publikotik, argi eta txukun eta bere osotasunean landu duten munduko herrialdeak.

Izenburua: *Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-azpiegituren mapak. Egoeraren analisia eta diagnostikoa.*

Egilea/Erakundea: Deustuko unibertsitateko aisiazko ikaskuntzen institutua

Orrialde-kop.: 133

Egite-eguna: 2007

Euskadiko kulturaren azpiegitura-sektorearenganako lehenengo hurbilketa bat egitea da azpiegitura-maparen helburua; hori dela eta, ikerketak zeharkako izaera du. Helburu horregatik, kultura-azpiegituren parkearen bi irudi egiten dituzte: lehenengoan, ikerketaren zati diren azpiegiturak eta mapa-multzo

bat adierazi dira, horien gaur egungo egoeraren ikuspegi kuantitatiboa lortzeko helburuarekin; bigarrenak izaera deskriptiboa du, eta bere helburua da azpiegiturek gaur egun duten egoera aztertzeko eta diagnostikatzeko gaitasuna ematen duten elementuak irudikatzea, betiere, kudeaketa, euskarria eta edukiaren arabera eta 2004. urtea erreferentziatzat hartuta. Atariko dokumentu bilakatzea eta kulturaren langileentzat lan-tresna gisa baliagarria izatea lortu nahi da.

Izenburua: *Antzerkiaren eta dantzaren ikerketa 2000-2003*

Egilea/Erakundea: Xabide S. Coop.-Test media

Orrialde-kop.: 237

Egite-eguna: 2007

Ikerketa horren helburua da plangintzaren arabera antzerkiaren eta dantzaren egoeraren oinarri kuantitatibo baliagarria izatea. Horretarako, etorkizunerako segimendua egiteko adierazleak proposatzen ditu. 2000-20003 aldirako eta urtero, arte eszenikoen produkzioarekin, banaketarekin eta zuzeneko ekitaldiekin erlazionatutako oinarrizko aldagaiak kuantifikatzea da ikerketaren helburua, EAEko gaur egungo produkzioguneetan, banaketaguneetan eta emanaldien guneetan inkesta-metodologia erabiliz. Hortaz, horren helburua da aipatutako sektore bien egoeraren oinarri kuantitatiboa izatea, plangintza egiteko. Epe horretako egoera eta joera definitzen du, eta etorkizunerako segimendua egiteko adierazleak proposatzen ditu.